



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA  
DSS2016.EU

KULTUR PROGRAMA  
PROGRAMA CULTURAL

#Donostia2016





# DONOSTIA<sup>16</sup>

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

**Bada beste modu bat.** Pertsonengan, ideietan eta lanaketan sinesten duena, etorkizunari grinaz begiratzeko. Gure gizartearen ongizatea eta kultura indarrez bultzatzeko. Kulturaren eta artearen bidez, elkarbizitzako espazio batekin konektatzeko. LABORAL Kutxa Donostia 2016rekin, KULTURAREN EUROPAR HIRIBURUAREKIN. Hay otra forma. La que cree en las personas, en las ideas y en la cooperación, para mirar al futuro con pasión. Para contribuir con energía al bienestar social y cultural de nuestra sociedad. Para conectar con un espacio de convivencia a través de la cultura y de las artes. LABORAL Kutxa con Donostia / San Sebastián 2016, CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA.



DSS2016.EU



LABORAL  
kutxa

# AURKIBIDEA

## ÍNDICE

BIDEA DA HELMUGA / EL CAMINO ES EL DESTINO	5
ALKATEEN AGURRA / SALUDO DE LOS ALCALDES	6
INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN	8
PROGRAMAREN EGITURA / ESTRUCTURA DEL PROGRAMA	
ITSASARGIAK / FAROS	10
KAIKAK / MUELLES	12
ENBAXADAK / EMBAJADAS	13
ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES	14
ENERGIA-OLATUAK / OLAS DE ENERGÍA	16
KRONOGRAMA / CRONOGRAMA	18
PROGRAMA	
URTARRILA - MARTXOA / ENERO - MARZO	21
APIRILA - EKAINA / ABRIL - JUNIO	49
UZTAILA - IRAILA / JULIO - SEPTIEMBRE	73
URRIA - ABENDUA / OCTUBRE - DICIEMBRE	85
EUOPAR DIMENTSIOA / DIMENSIÓN EUROPEA	92
PARTAIDETZA / PARTICIPACIÓN	93
ARDORA	94
PROZESUA / EL PROCESO	96
LEGATUA / LEGADO	97
WROCLAW 2016	98
2016 GUNEA / ESPACIO 2016	99
DSS2016EU ZIFRATAN / DSS2016EU EN CIFRAS	100
BABESLEAK / PATROCINADORES	102

### DONOSTIA 2016 FUNDAZIOAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO/

CONTACTO CON LA FUNDACIÓN SAN SEBASTIÁN 2016

Calle Easo kalea 43

20006 Donostia/San Sebastián

info@dss2016.eu

T +34 943 483 344

### KOORDINAZIO EDITORIALA, ERREDAKZIOA ETA ZUZENKETA/

COORDINACIÓN EDITORIAL, REDACCIÓN Y CORRECCIÓN

2016 lantaldea/Equipo 2016

### ITZULPENA/TRADUCCIÓN

2016 lantaldea/Equipo 2016 / Euskalgintza

### DISEINU GRAFIKOA/DISEÑO GRÁFICO

2016 lantaldea/Equipo 2016 / Robin

### ARGAZKIAK/FOTOGRAFÍA

Kontraluz / Oscar Oliva

### INPRIMAKETA/IMPRESIÓN

Zeroa Multimedia

### PROGRAMA HONETAN JASOTAKO INFORMAZIOAK ALDAKETAK IZAN LITZAKE.

MESEDEZ JOAN GURE WEB ORRIRA (WWW.DSS2016.EU) INFORMAZIO

EGUNERATUA LORTZEKO.

LA INFORMACIÓN RECOGIDA EN ESTE PROGRAMA ES SUSCEPTIBLE DE

EXPERIMENTAR CAMBIOS. POR FAVOR, CONSULTA NUESTRA WEB

(WWW.DSS2016.EU) PARA OBTENER INFORMACIÓN ACTUALIZADA.

LG zk./Dep.Leg. SS 1168-2015

75.000 ale/ejemplares 0,38 € ale bakoitza/unidad (BEZ barne/IVA incluido).

### DSS2016EU LIZENTZIA

CC-BY-SA Creative Commons Aitortu-Partekatu

Gure edukia kopiatu, zabaldu eta nahasteko libre zara, baita bertatik etekin ekonomikoa atzeratzeko ere. Betiere, sortutakoa lizentzia berarekin argitaratuz gero; hau da, CC-BY-SA.

Lizentzia honek Approved for Free Cultural Use etiketa darama

Lizentzia ez da aplikatuko, argitaratuko edukia (testu, irudi, argazki...)

hirugarrenen datorenean; dela bere izenarekin sinatutako norbanakoa

denean, dela DSS2016EU ez den beste elkarte edo enpresa denean. Eduki

hauen gaineko eskubideak titularren esku geratzen da oso osorik, eta beraz, ez

dira erreproduzitu, banatu, moldatu eta komunikatu ahal izango titullarraren

baimen espresurik gabe.

### LICENCIA DSS2016EU

CC-BY-SA Creative Commons Atribución-CompartirIgual

Puedes copiar, difundir y remezclar nuestro contenido, incluso si vas a

obtener un beneficio económico de él, siempre que tú también utilices este

mismo tipo de licencia, es decir, CC-BY-SA. Por supuesto, siempre debes citar

y enlazar la fuente y el autor del contenido que utilices.

Esta licencia lleva la etiqueta Approved for Free Cultural Use.

No se aplica a los contenidos (textos, imágenes, fotografías...) publicados por

DSS2016EU procedentes de terceros que vayan firmados o sean atribuibles

a cualquier otra empresa/asociación diferente de DSS2016EU. Todos los

derechos sobre estos contenidos quedan estrictamente reservados a su

titular y, por tanto, no podrán ser reproducidos, distribuidos, transformados o

comunicados públicamente sin el consentimiento expreso de su titular.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO




MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE




X =

Elkarrekin  
bizi



X = Convivir



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016  
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA  
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

#donostia2016  
dss2016.eu

# Bidea da helmuga

## El camino es el destino

«Ez egonkortasun garai batean bizi gara, gatazka ugariko gizarte batean. Testuinguru horretan, Donostia 2016ren funtsa da elkarbizitza hobetzeko kulturak duen balioa azpimarratzea.»

«Vivimos una época de inestabilidad e incertidumbre en una sociedad con diversos conflictos. En ese contexto, la esencia de San Sebastián 2016 es poner en valor el papel de la cultura como herramienta para construir una convivencia mejor.»

«Elkarrekin bizitzea bizikide izaten ikastea da, eta horretarako ezinbestekoa da guzti-guztiok heltzea erronkari. Hiria pertsonen sarea baita eta elkarbizitzak zerikusia du pertsonen elkarrekin erlazionatzeko moduarekin.»

«Convivir es aprender a vivir juntos, y para conseguirlo es imprescindible que todos asumamos el reto. Porque la ciudad es una red de personas y la convivencia tiene que ver con la forma en la que éstas se relacionan.»

Donostia 2016ri buruz nahasteko beldurrik gabe zera baieztatu daiteke, inor ez duela epel utzi. Argi dago, gutxienez, iritzi-aniztasuna azaleratu duela.

Hautagaitza-prozesua 2011ko ekainaren 28an amaitu zenean, hiriak suma zitzakeen elkarbizitza-eredu berri bateranzko lehen pausoak. Lau hilabete eskasera, urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko amaituko zuela iragarri zuen. Berri hori aspaldidanik espero zen Donostian, Euskal Autonomia Erkidegoan atentatu gehien jasan duen hirian. Gizarte aldakor batean erronka zahar eta berriak agertu ziren egoera berri hartan, Donostia 2016k bere programaren bidez proposatu zuen artearen eta kulturaren berezko balioak herritarrek ahalduz eta elkarguneak sustatzeko baliatzea. Proposamen kontzeptual hau iradokitzaile bezain gauzatzeko zaila zen, eta haren berri ez zeukatenek asko hitz egin dute proiektuari buruz.

Horrez gain, Europako kultur hiriburuen egutegiak izatez bi zailtasun gehigarri ditu. Batetik, zaila da (eta neurri batean kaltegarria ere bai) hautagaitza-garaiko maila komunikatiboa etengabe bere horretan mantentzea, programa bost urte geroagora arte ez baita hezurramitzen. Bestetik, zorionez, ez da erraza jakitea

lurraldeak bost urtetan izango duen kultur garapena zein izango den eta, beraz, hautagaitza-proiektuan zehaztutako bide-orriak sektorea garatu ahala testuinguru berrira egokitzen joan behar izan du.

Nolanahi ere, gure proiektuaren esentzia diren herritar guztien ilusioa berriz pizteko momentua iritsi da. Donostia 2016 dagoeneko ez da enperadore harroaren jantzi hura, ez eta gauza miragarrien erretaula ere, begiratu daitekeena baina ikusi ez. Esku artean daukazu programa honek lagun askoren esfortzua jasotzen du. Gaur egun errealtate bihurtzen ari diren ekimenak proposatu zituzten lagunena eta, Donostia 2016 Fundazio barruan zein kanpoan, proiektu horiek gogo biziz gauzatzeko diharduten ehunka profesionalena. Eta ezin ditugu ahaztu proiektuaren garapena sentitu, gozatu eta partekatu duten herritar horiek guztiak. Pertsonak ezinbestekoak dira proiektuarentzat, eta mundu guztia da beharrezkoa: ezberdintasunek ez dute izan behar banatzen gaituzten oztopoak, elkarguneak baizik, elkar aberasten eta elkarbizitzarako kultura sustatzen lagunduko diguten elkarguneak. Funtzionatuko ote du? Batek daki. Arrakasta zure esku dago, guztion esku dago.

Si algo se puede afirmar con rotundidad sobre San Sebastián 2016 es que no ha dejado indiferente a nadie. No cabe duda de que haya impulsado, al menos, la diversidad de opiniones.

Desde el fin del proceso de candidatura el 28 de junio de 2011, la ciudad ya intuía los primeros pasos hacia un nuevo marco de convivencia. Apenas cuatro meses más tarde, el 20 de octubre, ETA anunció el cese definitivo de su actividad armada, un anuncio largamente esperado en la ciudad con más atentados de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En ese nuevo escenario en el que viejos y nuevos desafíos se abrían paso en una sociedad cambiante, San Sebastián 2016 proponía un programa en el que los valores inherentes del arte y la cultura facilitarían el empoderamiento de las personas y promoverían la creación de espacios de encuentro. Se trataba de una propuesta conceptual altamente sugerente pero difícil de materializar, cuyo desconocimiento ha dado mucho que hablar.

Además, el calendario de las capitales europeas de la cultura tiene de por sí dos dificultades añadidas. Y es que, por una parte, resulta complicado (y puede que hasta contraproducente) mantener el pulso comunicativo de la candidatura de un programa que debe

sucedir cinco años más tarde; y por otra, afortunadamente, no es fácil prever el desarrollo cultural que tendrá el territorio en cinco años, por lo que la hoja de ruta marcada por el proyecto de candidatura se ha ido adaptando al contexto según ha evolucionado el sector.

Sin embargo, ha llegado el momento de volver a encender la ilusión de todos esos ciudadanos que son la esencia de nuestro proyecto. San Sebastián 2016 ya no es ese traje del emperador vanidoso o ese retablo de las maravillas que se mira pero no se ve. El programa que tienes entre manos recoge el esfuerzo de muchísimas personas, desde aquellas que propusieron iniciativas que hoy se hacen realidad, hasta los cientos de profesionales que desde dentro y fuera de la Fundación San Sebastián 2016 han trabajado con ahínco y dedicación en su ejecución. Sin olvidarnos de todos aquellos ciudadanos y ciudadanas que han sentido, disfrutado y compartido el desarrollo del proyecto. Las personas son vitales para el proyecto, y todo el mundo es necesario: las diferencias no deben suponer barreras que nos dividan, sino espacios de encuentro que nos enriquezcan y nos ayuden a fomentar la cultura para la convivencia. ¿Funcionará? Quién sabe; el éxito depende de ti, depende de todas y todos.

## Kultur konpromisoa DSS2016Eurekin El compromiso cultural con DSS2016EU

«Elkarbizitzarako kultura» proiektua 2008an sortu zen, indarkeriari eta izuari lotutako Donostiaren irudiari aurre egiteko. Indarkeria-girotik bizirik irteten zen kultura-bizitzari balioa eman nahi genion. Erronka kolektiboa behar genuen terrorismoaren amaiera sustatzeko eta bakearen aldeko herritarren energia berriaren olatuak altxatzeko.

Asmo horrekin proposatu nuen Donostiaren tradizioarekin eta ahalmenekin bat zetorren titulua irabaztea, garapenean zehar, elkarbizitza eraikitzen ikasteko. Gainera, gure kultura-eredua gaintzen lagunduko liguke, autokonplazentzia gaintuz.

Gure proiektuaren kontaketak eta epikak herritarrentzat interesgarriak izan behar dute, ezinbestean, eta krisi eta gatazkez josita dagoen Europa honetan elkarbizitzako eta kohesio sozialeko arazoak dituzten Europako beste herrialde batzuei erabilgarri gertatu behar zaizkie. Beste hiri batzuekin sarean konektatzen goaz, hezkuntzaren zereginaren eta bakearen kulturaren gainean hausnartzeko. Betiere, erakusteko izuari eta beldurrari, sektarismoari eta gorrotoari, bazterkeriari eta pobrezari, arrazismoari eta xenofobiari kultura gehiagoren bidez egiten zaiela aurre, kulturarako sarbidea erraztuz.

Herritarrak mobilizatzea eta gure kultura-kolektiboak ahalduntzea da erronka, musikako, dantzako eta ikus-entzunezko programen, arte-, literatura- eta kirol-jardueren, eztabaida, topaketa, erakusketa eta programa sozialen koprodukzioari heltzeko.

Galdutako denbora eta DSS2016EU proiektuarekiko ilusioa berreskura ditzakegu. Elkarrekin, parte hartzeko bideak batuz eta irekiz, lortuko dugu.

El Proyecto «Cultura para la Convivencia» nació en 2008 para combatir una imagen de San Sebastián asociada a la violencia y el terror. Queríamos poner en valor una vida cultural que sobrevivía al clima de violencia. Necesitábamos un reto colectivo ambicioso para impulsar el final del terrorismo y levantar olas de una nueva energía ciudadana por la paz.

Con esa intención propuse ganar un título acorde con la tradición y las potencialidades culturales de San Sebastián; para aprender, a lo largo de su desarrollo, a construir la convivencia. Además, ayudaría a innovar nuestro modelo cultural superando la autocomplacencia.

Es imprescindible que el relato y la épica de nuestro proyecto interesen a la ciudadanía y resulte de utilidad a otros territorios europeos con problemas de convivencia y cohesión social en esta Europa desbordada por crisis y conflictos. Con otras ciudades vamos conectando en red para reflexionar sobre el papel de la educación y la cultura de paz. Todo para demostrar que el terror y el miedo, el sectarismo y el odio, la exclusión y la pobreza, el racismo y la xenofobia se combaten con más cultura, favoreciendo el acceso a la cultura.

El reto es movilizar a la ciudadanía y empoderar a nuestros colectivos culturales para abordar la coproducción de programas de música, danza, teatro y audiovisuales; actividades artísticas, literarias y deportivas; debates, encuentros, exposiciones y programas sociales.

Podemos recuperar el tiempo perdido y la ilusión por el proyecto DSS2016EU. Juntos, sumando y abriendo cauces de participación, lo conseguiremos.



Odón Elorza González

DONOSTIAKO ALKATE OHIA (1991 - 2011)  
EXALCALDE DE SAN SEBASTIÁN (1991 - 2011)

## Bide luzean, norabide egokian, beste urrats bat izan dadila Sea un paso más en la buena dirección de este largo viaje

Proiektu honek gorabeherez betetako urteak behar izan ditu bere burua asmatu, landu eta gauzatzeko. 2011n, proiektua European defendatzea egokitu zitzaigunean, zein egoeratan izan zen gogoratu nahiko nuke. Balio ezin hobean oinarritutako proiektua genuen: bakea eta bizikidetzeta, parte-hartzea, besteekiko errespetua, kultura kohesio sozialerako tresna.... Agian proiektu pertsonalizatuegia batzuentzat, baina aukera paregabea gehientzat.

Unea ere berezia zen Donostian eta Euskal Herrian, aro berria usaintzen zen, gobernu aldaketak, eskubide urraketak gaintzeko aukerak, bakerako urrats sendoak... Garrantzia zuen epaimahaiari garbi uzteak proiektu honek zituen balioak aurrera eramateko prest geundela. Talde politiko guztiak elkarrekin joan ginen horretarako, eta proiektua aurkeztu eta ordura arte alkatea izandakoa ere gonbidatu genuen, bizikidetzeta eraikitzeko eta elkarrekin lanean jarduteko borondate sendoa adierazteko. Eta defentsa egiterakoan, euskaraz egin genuen, gure hizkuntzaren eta kulturaren balioak agerian jartzeko, herri eta kultur anitzeko European eta munduan sinesten baitugu.

Geroztik lan handia egin da, proiektu honekiko atxikimendua eta ilusioa gero eta zabalagoa izan dadin. Zaila izan da askotan, baina emaitza hemen dago. Aurkako jarrerak ere egon badaude, zorionez; jendarte bizi, anitz eta kolore askotakoan iritzi ezberdinak izan behar direlako. Horrek balio handiagoa ematen dio herriari. Eskerrik asko inplikatu zareten guztioi. Askok asko eman duzue bidean. Onerako izan dadila.

Este proyecto ha necesitado años de altibajos para poder reinventarse, desarrollarse y hacerse realidad. Me gustaría recordar en qué situación nos encontrábamos en el año 2011, cuando tuvimos que defender el proyecto ante Europa. Teníamos entre manos un proyecto sustentado en valores inmejorables: la paz y la convivencia, la participación, el respeto a los demás, la cultura como un instrumento para la cohesión social, etc. Quizá fuera un proyecto demasiado personalizado para algunas y algunos, pero era una oportunidad excepcional para la mayoría.

Vivíamos un momento muy especial en San Sebastián y en el País Vasco, se percibía el aroma de una nueva era: cambios políticos, una oportunidad para superar la violación de derechos, pasos firmes hacia la paz... Resultaba fundamental dejar claro al jurado que estábamos dispuestos a llevar a cabo los valores propios de este proyecto. Para ello, nos presentamos allí todos los partidos políticos juntos, e invitamos al que hasta ese momento había sido el alcalde de la ciudad para defender el proyecto, como muestra de nuestra firme voluntad para trabajar conjuntamente en la construcción de un marco de convivencia. Realizamos la defensa en euskera, para dar visibilidad a nuestra lengua y cultura, ya que creemos en una Europa y un mundo compuestos por pueblos y culturas de todo tipo.

Desde entonces se ha trabajado sin cesar para conseguir que la adhesión y la ilusión al proyecto sea cada vez mayor. Ha sido una tarea ardua, pero el resultado está aquí. Hay actitudes contrarias también, por fortuna; porque en una sociedad viva, diversa y variopinta tiene que haber opiniones distintas. Eso es lo que aporta valor al pueblo. Gracias a todas y todos los que os habéis implicado. Muchos habéis dado mucho en este camino. Que sea para bien.



Juan Karlos Izagirre

DONOSTIAKO ALKATE OHIA (2011 - 2015)  
EXALCALDE DE SAN SEBASTIÁN (2011 - 2015)

# Donostiaren urtea

## El año de San Sebastián



Donostiaren ikuspegia Urgull menditik. Vista de San Sebastián desde el monte Urgull. Phillip Maiwald, 2009.

Inoiz ez zuten izan lau zifrek hainbestearinoko esanahirik hiri batentzat. 2, 0, 1, 6. Urte baten ikur diren lau zenbaki. Amets bat barne biltzen duen urte bat. Hiri oso baten inspirazio-arnasa den amets bat. Europari so egiten dion hiri bat, mundu zabaleko hainbat eta hainbat lagunen begiradak eta bisitak espero dituen.

Europako Kultur Hiriburua izatea ia lorpen paregabea da hiri txiki honentzat, mendeak eman baititu Kantauriko txoko batean. Baina hiriak Europako arduradunei Donostiaren proiektuak eta historiak halako ohorea merezi zutela pentsaraztea lortu izana gorabehera, uste sendoa dugu erronka honi erantzun beharko diogula Hiriburutzak iraun beharreko 366 egunotan. Eta eginkizuna argia da: hainbat kultur adierazpenen alderdi guztien sorta zabal batez gain, Donostiak kulturaren esparruan erreferentzia izatea ere lortu behar dugu, beste maila batean egoteko, kontinenteko hiri nagusien mapan. Kulturak lepo beteko du Donostia, eta kontinente osotik hedatuko du kultura Donostiak.

Hauspo-emailea izango da 2016 donostiarrentzat. Historia, artea, sormena, errespetua eta elkarrizketa da kultura. Sakontzea, errotzea, nortasuna, askatasuna eta mestizajea da kultura. Ekintzailtza, bokazioa, proiektzioa, industria eta aberastasuna da kultura.

Lan eta gozamen urtea izango da 2016a. Beste alor batzuetan lortu dugun bikaintasun hori bilatzeko urtea. Herritarren indarraren urtea, elkarrizketarena eta elkarbizitzarena. Munduan hainbat balio etengabe krisian daudelarik, gizarteak diluituta eta likido eginik, Donostia gureak, umil bezain jakitun, itsasargi bat izan nahi du, gure proiektua partekatu eta bizi nahi duten guztiei argi eta arnasa egiteko. Argiz beteriko urtea izango delako 2016a Donostiarrentzat.

Donostiaren urtea.



Eneko Goia Laso

DONOSTIAKO ALKATEA ETA DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA  
ALCALDE DE SAN SEBASTIÁN Y PRESIDENTE DE LA FUNDACIÓN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016

Nunca cuatro cifras habían tenido tanto significado tanto para una ciudad. 2, 0, 1, 6. Cuatro números que representan un año. Un año que engloba un sueño. Un sueño que inspira a toda una ciudad. Una ciudad que mira a Europa y que espera ser mirada y visitada por miles de personas de todo el mundo.

Ser Capital Europea de la Cultura es un logro como pocos para esta pequeña ciudad que desde hace siglos descansa en un rincón del Cantábrico. Pero lejos de considerar que haber convencido a los responsables europeos de que su proyecto y su historia la hacían merecedora de tal honor, somos conscientes de que este es un reto que al que habrá que responder durante los 366 días que dure la Capitalidad. Y el reto es claro: además de poder ofrecer una amplia oferta de las más variadas expresiones culturales en todas sus facetas, hemos de conseguir que el 31 de diciembre nuestra ciudad haya alcanzado una referencialidad en el ámbito cultural que la sitúe en otro estadio, en el mapa de las principales urbes culturales del continente.

La cultura va a inundar San Sebastián, y San Sebastián va a difundir cultura por todo el Continente. 2016 va a ser un año inspirador para sus ciudadanos. Cultura es historia, arte, creatividad, respeto y diálogo. Cultura es profundización, enraizamiento, identidad, libertad y mestizaje. Cultura es emprendimiento, vocación, proyección, industria y riqueza.

2016 va a ser un año para el trabajo y el disfrute. Para la búsqueda de esa excelencia que hemos alcanzado en tantos campos. El año de la energía ciudadana, del diálogo y de la convivencia. En un mundo con tantos valores en crisis constante, con las sociedades diluidas y líquidas, nuestra ciudad aspira desde la humildad pero también desde la conciencia, a ser un faro que ilumine e inspire a todo aquel que quiera compartir y vivir nuestro proyecto. Porque 2016 va a ser un año luminoso para la ciudad.

El año de San Sebastián.

# Urte bikain bati hasiera emango dion jaia

## La fiesta que inaugurará un gran año

2016a urte zirrargarria izango da hiriarentzat, kulturarentzat, bisitariarentzat eta lurraldearentzat. Bost egun iraungo dute urte hasierako ospakizunek: 120 ordu, gozatzeko eta elkarbizitzarako kultura 2016ko *leitmotiva* izan dadin.

2016 será un año apasionante para la ciudad, un año para la cultura, para sus visitantes y para el territorio. Un año que se inaugurará con cinco días de celebración, 120 horas para disfrutar y hacer de la cultura para convivir el *leitmotiv* de 2016.



### DANBORRADA EUROPARRA

Urtarrilaren 19ko gauean, danborren tarrapatarekin batera, hiriko jai nagusiak egun berezi bati ekingo dio Hiriburutzaren inaugurazioan. Ordu batzuk beranduago, haurren danborradak konpainia berri bat izango du: aurreneko aldiz, beste hiri bateko neska-mutikoeek Sarriegiren konposizioen erritmoan jardungo dute. Wroclawtik arituko dira, hiri hori ere Europako Kultur Hiriburu izango baita 2016an.

Alderdi Ederren jarriko diren pantaila erraldoien bidez, Donostiako eta Wroclaweko danbor-hotsek bat egingo dute bi hirien Hiriburutza ospatzeko. Bandera jaistean, ez da inaugurazioaren karra itzaliko; horren ordez, hiriko hainbat eragile eta erakunde soziokulturelek beren energia batuko diote DSS2016EUn hasierari, eta haiek diseinaturiko egitarau berezia abiaraziko da.

### EGITARAU BEREZIA BOST EGUNEZ

Inaugurazioa ospatzeko, jardueren egitarau zabala izango da urtarrilaren 20tik 24ra, eta hiriko hainbat artista, espazio, kolektibo eta erakunde egongo dira tartean. Kultur etxeek, kontzertu-aretoek, klubek, arte-elkarteek, antzokiek, museoek, arte-galeriek eta liburutegiak atak irekiko dituzte, denetariko adierazpen eta diziplina artistikoei leku emango dien arte-zirkuitu berri bati harrera egiteko. Ezin konta ahala jarduera antolatuko dira egitarau plural eta ireki horretan, herritarrek ere parte har dezaten: musika, erakusketak, proiektzioak, performanceak, kontzertuak...



Wroclawen egindako haur danborrada. Tamborrada infantil de Wroclaw. Redakcja Radia ZET, 2015.



## HERRITARREN JAI IKUSGARRIA

Inaugurazioa urtarrilaren 23an iritsiko da gorenera, larunbatean, Donostia 2016ri hasiera emateko zeremoniarekin; Hansel Cerezak diseinatu du sinbolismoz beteriko ekitaldia, eta Hiriburutzari itxura ematen dioten balioak irudikatuko dira bertan. Zeremonia horrekin, herritarrak ekintzaren erdigune bilakatuko dira esperientzia kolektibo batean, eta bizikidetzaren hobetzeko kultura eta elkarrizketa sustatzea izango dute helburu nagusi. Bestalde, ekitaldi instituzional bat ere egingo da hirian: Europako komisario batek Europako Kultur Hiriburuaren tituluari dagozkion diploma eta plaka emango dizkio alkateari.

## DISEINU PARTE-HARTZAILEA

Hautagaitzaren funtsa errespetatuz, DSS2016EUK modu parte-hartzailean diseinatu eta kudeatu du inaugurazioa. Zehazki, lau lantalde sortu ditu ospakizuneko elementu nagusiak jorra ditzaten: talde bat ibilbide profesional desberdinak dituzten pertsonen osatu dute, eta inaugurazioan erakutsi beharreko bizikidetzaren balioak landu dituzte; beste talde batek Donostiako egunaren prestaketa-lanetan lagundu du; beste lantalde batek, berriz, inaugurazioaren sormen-faseari heldu dio, eta arreta berezia jarri dio hasierako zeremoniari eta ekitaldi instituzionalari, Europak ezarri du horiek egiteko betebeharra; azkenik, beste lantaldea hiriko espazio eta erakunde soziokulturaletako ordezkariak osatu dute. Horrez gain, *Energia-olatu*en deialdi berezi bati esker, hiriko hamaika egitasmok zuzenean bat egingo dute inaugurazioarekin.

## UNA TAMBORRADA EUROPEA

La noche del 19 de enero, junto al redoble de los tambores, la fiesta grande de la ciudad iniciará una jornada muy especial dentro de la inauguración de la Capitalidad. Horas más tarde, la tamborrada infantil contará con una nueva compañía, ya que, por primera vez, niñas y niños de otra ciudad, en este caso de Wroclaw, la ciudad polaca que también será Capital Europea de la Cultura en 2016, participarán al ritmo de las composiciones de Sarriegi.

Por medio de pantallas gigantes en Alderdi Eder, los redobles de San Sebastián y Wroclaw convergerán para celebrar la Capitalidad en ambas ciudades. La arriada, lejos de apagar la llama de la inauguración, dará paso a la programación especial diseñada por una variedad de agentes y entidades socioculturales de la ciudad que sumarán su energía al arranque de DSS2016EU.

## CINCO DÍAS DE PROGRAMACIÓN ESPECIAL

La celebración de la inauguración consistirá en un extenso programa de actividades que involucrará, del 20 al 24 de enero, a diversos artistas, espacios, colectivos y entidades de la ciudad. Centros culturales, salas de conciertos, clubes, asociaciones artísticas, teatros, museos, galerías de arte y bibliotecas abrirán sus puertas para confluír en un circuito artístico inédito en el que tendrán cabida todo tipo de expresiones y disciplinas artísticas. Música, exposiciones, proyecciones, performances, conciertos... Un sinfín de actividades en un programa plural y abierto que aspira a que la ciudadanía se sienta partícipe.

## ESPECTACULAR FIESTA CIUDADANA

La inauguración culminará el sábado día 23 de enero con la ceremonia de apertura de San Sebastián 2016, un acto diseñado por Hansel Cereza que estará cargado de simbolismo en el que cobrarán visibilidad los valores que dan forma a la Capitalidad. Dicha ceremonia permitirá vivir una experiencia colectiva en la que la ciudadanía se convierta en el centro de la acción, cuyo firme objetivo sea el de impulsar la cultura y el diálogo para mejorar la convivencia. Asimismo, la ciudad acogerá un acto institucional en el que un comisario europeo hará entrega al alcalde del diploma y la placa correspondientes al título de Capital Europea de la Cultura.

## DISEÑO PARTICIPATIVO

Fiel al proyecto de candidatura, DSS2016EU ha diseñado y gestionado su inauguración de forma participativa. En concreto, ha creado cuatro grupos de trabajo en lo que ha desarrollado los elementos principales de la celebración: un primer grupo formado por personas con distintas trayectorias profesionales, con el objetivo de trabajar sobre los valores de convivencia a trasladar en la inauguración; un segundo grupo para colaborar en torno al día de San Sebastián; un tercero para desarrollar la fase creativa de la inauguración, prestando especial atención a la ceremonia inaugural y al acto institucional que deben realizarse como requisitos de Europa; y un último grupo formado por distintos representantes de espacios y entidades socioculturales de la ciudad. Además, una convocatoria especial de las *Olas de energía* permitirá que once iniciativas ciudadanas se sumen directamente a la inauguración.



Mons 2015.



Pilsen 2015.

## ELKARREKIN BIZITZEKO

### KULTURA

### CULTURA PARA

### CONVIVIR

## Donostia 2016, bi hitzetan:

### ✓ ELKARBIZITZA

1996an, UNESCOk argitaratutako Delors txostenak definitu zituen XXI. menderako lau hezkuntza-zutabeak: izaten ikastea, jakiten ikastea, egiten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea. 20 urteren buruan, agerikoa da elkarbizitzaren funtsezko balioak sustatu behar direla, aldatzen ari den munduari erantzuteko. Gizarte guztiek bizi dituzte zailtasunak, esaterako, arazo ekonomikoen edo desberdinkeriaren gorakada... Halako erronken aurrean, harreman-eredu iraunkor berria eraiki behar dugu berdinen eta ezberdinen artean. Gizakiak gizartera jotzen du berez, baina garrantzitsua da partekatzen eta guztien onura lortzen ikastea, gizarte-eredu berri baten protagonista aktibo bihurtzeko. Donostia 2016ren kultur programak hiru itsasargi tematiko ditu: elkarbizitzaren balioek markatutako norabidea argitzen dute. Beren jardueren bidez, itsasargiek gida izan nahi dute, hiriak bizi nahi duen eraldaketari ekin nahi diotenentzat.

### ★ HIRIA

Donostiaren edertasuna mundu guztian da ezagun. 1845 aldera «Easo Ederra» izena eman zioten, eta bada mende bat baino gehiago kostaldeko hiria Europako turismoaren jomugan dagoela. Bere hondartza ospetsuak, Kontxak, inguruan mendi berdeak dituenak, inguru ezin hobea oparitzen dio eta, gainera, kulturaren, gastronomiaren eta aisialdiaren eskaintza zabalarekin hobera egiten du. Halere, hiria ez da begirada hutsean gelditzeko. Tokiko biztanleen ongizatea aintzat hartu behar du, irisgarria, eskuragarria eta irekia izan behar du, eta hartu-emanak izan behar ditu hala bere inguruarekin nola beste hiri batzuekin. Egitarauak bost kairen bidez islatzen ditu hiriaren garapen soziokulturalak bultzatu nahi dituen eremuak. Zehazki, kaiek aberastu egingo dituzte itsasargien proiektuak.

## San Sebastián 2016, en dos palabras:

### ✓ CONVIVENCIA

En 1996, el informe Delors publicado por la UNESCO definió los cuatro pilares de la educación para el siglo XXI: aprender a ser, aprender a saber, aprender a hacer y aprender a convivir. 20 años más tarde, resulta evidente la necesidad de fomentar los valores fundamentales de la convivencia para responder a un mundo cambiante. Todas las sociedades afrontan dificultades como problemas económicos o el incremento de las desigualdades. Ante tales desafíos, debemos construir un nuevo modelo sostenible de relación entre iguales y diferentes. El ser humano es sociable por naturaleza, pero es importante que aprenda a compartir y lograr el bien común, para convertirse en protagonista activo de un nuevo modelo de sociedad. El programa cultural de San Sebastián 2016 presenta tres faros temáticos que vislumbran el rumbo marcado por valores de convivencia. A través de sus actividades, los faros quieren servir de guía para que las personas emprendan el nuevo viaje hacia la transformación que quiere afrontar la ciudad.

### ★ CIUDAD

La belleza de San Sebastián es conocida en el mundo entero. No en vano llamada «La Bella Easo» allá por 1845, esta hermosa ciudad costera cuenta con más de un siglo como destino turístico europeo. Su famosa playa de La Concha, rodeada de verdes montañas, le obsequia con un marco incomparable que se mejora, si cabe, con una amplia oferta cultural, gastronómica y de ocio. Sin embargo, una ciudad no es solo para contemplar. Debe ser un lugar pensado para el bienestar de sus habitantes, accesible y asequible, abierto y relacionado con su entorno y con otras ciudades. El programa refleja en forma de cinco muelles las áreas en las que quiere potenciar el desarrollo sociocultural de la ciudad. De esta forma, los muelles enriquecerán los proyectos de los faros.

## BAKEA PAZ

NORTASUNA / INKLUSIOA / ERRESPETUA /  
BERDINTASUNA / ANIZTASUNA /  
GIZA ESKUBIDEAK / GIZA DUINTASUNA /  
BALIO ETIKOAK / JUSTIZIA / ESKUBIDEAK /  
BIZIKIDETZA / EGIA / MEMORIA /  
ADISKIDETZEA / ELKARTASUNA /  
HEZKUNTZA / BAKEA

IDENTIDAD / INCLUSIÓN / RESPETO /  
IGUALDAD / DIVERSIDAD / DERECHOS  
HUMANOS / DIGNIDAD HUMANA /  
VALORES ÉTICOS / JUSTICIA / DERECHOS /  
CONVIVENCIA / VERDAD / MEMORIA /  
RECONCILIACIÓN / SOLIDARIDAD /  
EDUCACIÓN / PAZ

Mundu inperfektuan bizi gara, baina perfekzio falta horrek hurbiltzen gaitu gure alderdi gizatiarrenera; izan ere, gugan bizi baitira, elkarrekin, emozioak eta kulturak, asmatzeak eta akatsak. Bakea ez da helburua, ezpada bide... amaigabea. Bidaia infinitua da eta bidean saiatu egiten gara gatazkak aldaketa-aukera bihurtzen; gatazka horien konponbidean ahalik eta bake gehiena bilatzen dugu, abiapuntu baldintza sozial eta pertsonalen arabera. Itsasargi honek duintasunaren eta giza eskubideen inguruko errespetua sustatu nahi du, gobernantza-modu berriak sortzeko gako gisa. Bere baitako proiektuak antzerkia edo graffitia bezalako arteen bidez gauzatzen dira, eta ekimen horiek erronka jotzen digute, bakearen eta elkarbizitzaren inguruan hausnar dezagun; horrela, **errespetu, bidezkotasun eta solidaritate handiagoa dituen gizartea** lortzeko legatu eredu garria bilatzen da.

Vivimos en un mundo imperfecto, pero es esa imperfección la que nos acerca a nuestro lado más humano, puesto que en nosotros conviven emociones y cultura, aciertos y errores. La paz no es un destino, sino un camino... sin fin. Es un viaje infinito en el que intentamos que los conflictos sean oportunidades de cambio, en cuya resolución buscamos el máximo de paz posible con acuerdo a las condiciones sociales y personales de partida. Desde este faro se quiere fomentar el respeto por la dignidad y los derechos humanos como claves para la creación de nuevos modos de gobernanza. Sus proyectos, a través de artes como el teatro o la danza, nos desafían para reflexionar en torno a la paz y la convivencia, y buscar así un legado que sirva de referente para lograr **una sociedad más respetuosa, justa y solidaria**.

## BIZITZA VIDA

NORBANAKOAK / GASTRONOMIA /  
SEXUALITATEA / KIROLA / OSASUNA /  
GIZARTEA / ONGIZATEA /  
GEOGRAFIA KOMUNA / GIZARTE EREDUA /  
FEMINISMOA / COMMONS / KODE IREKIA /  
MAKER / AHALDUNTZEA / INGURUA /  
ARKITEKTURA / HIRIGINTZA /  
ONDARE NATURALA / ITSASOIA /  
IBAIK / MENDIA

INDIVIDUO / GASTRONOMÍA / SEXUALIDAD /  
DEPORTE / SALUD / SOCIEDAD /  
BIENESTAR / GEOGRAFÍA COMÚN /  
MODELO SOCIAL / FEMINISMO / COMMONS /  
CÓDIGO ABIERTO / MAKER /  
EMPODERAMIENTO / ENTORNO /  
ARQUITECTURA / URBANISMO /  
PATRIMONIO NATURAL / MAR /  
RÍOS / MONTE

«Neure burua eta bizi nauen egoera naiz ni» esan zuen José Ortega y Gassetek. Hala azaldu nahi izan zuen pertsona bakoitzaren «gainerako erdia» inguruan dugun errealitateak osatzen duela. Beraz, bizitzea norberaren burua, inguruak eta mundua bera zaintzean izan liteke. Bizitzaren itsasargiak, filosofia horri jarraiki, zenbait proiektu aurkezten ditu norbanakoaz hausnartzeko, gizaki, gizarte bateko kide eta planeta bateko bizilagun gisa. Osasuna, lana edo ingurumena bezalako gaiak lantzen dituzte, eguneroko atal diren eta pertsonak herritar bihurtzen dituzten beste batzuekin batera. Itsasargi honetako jarduera eta topaketek gogoeta egitera bultzatuko gaituzte: zer-nolako harremana dugu geure buruarekin, gizartearekin eta inguruarekin. Helburua da **bizimodu orekatua, humanista eta iraunkorra** sustatzea.

«Yo soy yo y mi circunstancia» decía José Ortega y Gasset, queriendo expresar así que la realidad que nos rodea forma «la otra mitad» de cada persona. En ese sentido, vivir es cuidarse, cuidar de los demás y cuidar del mundo. El Faro de la vida, siguiendo esa filosofía, presenta una serie de proyectos para reflexionar en torno al individuo como ser humano, como miembro de una sociedad y como habitante de un planeta. Tratan temas como la salud, el trabajo o el medio ambiente, así como muchos otros que forman la vida del día a día y convierten a las personas en ciudadanas. Sus acciones y encuentros nos invitan a repensar cómo nos relacionamos con nosotros mismos, con la sociedad y con el entorno, para fomentar **una vida equilibrada, humanista y sostenible**.

## AHOTSAK VOCES

ADIERAZPENA / ARTE ESZENIKOAK / MUSIKA /  
DANTZA / ARTE PLASTIKOAK /  
BERBAZKO ARTEAK / ZINEMA /  
ARGAZKILARITZA / LITERATURA /  
ARTE BISUALAK / HERRITARREN SORMENA /  
SORKUNTZA KOLEKTIBOA / TRANSMISIOA /  
KULTURANIZTASUNA / AHOZKOTASUNA /  
TRADIZIOA / MEDIAZIOA / HIBRIDAZIOA /  
KOMUNIKAZIOA / HIZKUNTZAK /  
ITZULPENGINTZA / IKUS-ENTZUNEZKOA /  
WWW / APP / TEKNOLOGIA

EXPRESIÓN / ARTES ESCÉNICAS / MÚSICA /  
DANZA / ARTES PLÁSTICAS /  
ARTES VERBALES / CINE / FOTOGRAFÍA /  
LITERATURA / ARTES VISUALES /  
CREATIVIDAD CIUDADANA / COCREACIÓN /  
TRANSMISIÓN / INTERCULTURALIDAD /  
ORALIDAD / TRADICIÓN / MEDIACIÓN /  
HIBRIDACIÓN / COMUNICACIÓN / LENGUAS /  
TRADUCCIÓN / AUDIOVISUAL / WWW /  
APP / TECNOLOGÍA

Inork ez du ikusten mundua den bezala: bakoitzak bere nortasunaren ikuspegitik ikusten du, gure kultur ibilbidearen ikuspegitik. Hiriaren benetako irudira hurreratzeko modu bakarra da besteen begietatik ere ikustea eta, horretarako, ezinbestekoa da elkar ulertzen, ezagutzen eta aitortzen ikustea. Bada, hori guztia errazagoa izango da batzuen eta besteen sormena sustatzen badugu; izan ere, zenbat eta gehiago eta hobeto azaldu, hainbat eta lehenago ulertuko baitugu elkar. Itsasargi honek komunikazioa berebiziko engranaje bezala irudikatzen du, pertsonak, kolektiboak eta gizartea oro har lotzeko; kulturen zein belaunaldien artean funtzionatzen du. Bere jarduerak lagungarri dira ulertzeko zer-nolako laguntza ematen duten musika edo literatura bezalako arteek **hiri kohesionatuagoa, pluralagoa eta sormen handiagokoa** lortzeko.

Nadie ve el mundo tal como es; cada uno lo vemos desde el prisma de nuestra identidad, desde la visión de nuestro bagaje cultural. La única forma de acercarnos a su imagen real pasa por verlo también desde los ojos del otro, y para ello es necesario que aprendamos a entendernos, conocernos y reconocernos mutuamente. Y todo ello será más fácil si fomentamos la creatividad de unos y otros, pues cuanto más y mejor nos expresemos, antes nos entenderemos. Este faro entiende la comunicación como el engranaje vital que conecta a las personas, a los colectivos y a la sociedad en general, tanto entre culturas como entre generaciones. Sus actividades nos ayudan a conocer el valor de artes como la música o la literatura para crear **una ciudad más cohesionada, plural y creativa**.



## PAGADI

Pentsamendu kritikoa arte garaikidearen bidez

Pensamiento crítico a través del arte contemporáneo

Pentsamendu garaikidearen praktika artistikoetan inplikaturako eragileak eta artistak inguruko bizitasunaren termometroak dira. Epe ertain eta luzerako ikerketa prozesuak proposatzen dituzte, non herritarrak gonbidatzen dituzten euren lanekin gogoeta egin eta elkarrekintzan aritzera, eta emaitzak ohiko moldeak puskatuz aurkezten dituzten. Baso bat dago lan edo prozesu artistiko ororen atzean. Alde horretatik, kai honek nabarmendu nahi du artistaren rola eta balio ukigarri zein ukigaitzak eratzeko duen ahalmena. *Pagadi* arte garaikidearen produkzioari laguntzen dioten kultur zentroen arteko harremanak eta artisten sarea indartu nahi du, euren edukia egungo gizartearen konpromisoekin lotuz.

Las y los artistas y agentes implicados en las prácticas artísticas del pensamiento contemporáneo son termómetros de la vitalidad del entorno. Proponen procesos de investigación a medio y largo plazo en los que invitan a la ciudadanía a reflexionar e interactuar con sus obras, y presentan sus resultados rompiendo con las formas convencionales. Un bosque se esconde detrás de cada obra o proceso artístico. En ese sentido, este muelle busca poner en valor la figura del artista y su función en la generación de valores tangibles e intangibles. *Pagadi* pretende fortalecer el tejido artístico y las relaciones interinstitucionales de los centros culturales más implicados en el apoyo a la producción del arte contemporáneo, vinculando sus contenidos con los compromisos de la sociedad actual.

## BESTELAB

Dena bestelakoa delako parte hartzen duzunean

Porque todo es distinto cuando participas

Herritarrek gizartearen duten esku-hartzea sustatzeak demokraziaren kontzeptuari berari erantzuten dio, eta hori bultzatzeak herritarren eskubide bat garatzea dakar. Pertsonak beren komunitatearekin konprometitzen dira, eta gizartearen atal aktibo bihurtzen. Herritarren inplikazioa funtsezkoa da edozein jardueraren arrakastatsua izan dadin. Oinarrizko elementua da erronka berrien aurrean: elkarbizitza, gizartearen koherentzia, inmigrazio berria integratzea, ingurumena zaintzea, eremu publikoaren erabilera, etab. Kai honek sustatzen dituen ekimenek erraztu egiten dute pertsonen ahalduntzea eta partaidetza; orobat, sortzeko modu berrien alde egiten du, non ezberdinen arteko topaketek, hibridazioak eta diziplinartekotasunak garrantzi berezia hartzen baitute. *Bestelabek* gizarte-berrikuntzako laborategi esperimentalak izan nahi du, lankidetzaren jardunbideak oinarri hartuta.

La promoción de la participación ciudadana en la sociedad responde al propio concepto de democracia, y su promoción supone el desarrollo de un derecho ciudadano. Las personas se comprometen con su comunidad y se constituyen como parte activa de la sociedad. La implicación ciudadana es fundamental para el éxito de cualquier actuación, de manera que es un elemento básico frente a los nuevos retos: convivencia, coherencia social, integración de nueva inmigración, cuidado del medioambiente, el uso del espacio público, etc. Este muelle promueve iniciativas que facilitan el empoderamiento y la participación de las personas, y apuesta por nuevas formas de crear donde el encuentro entre diferentes, la hibridación y la interdisciplinariedad cobran especial relevancia. *Bestelab* trata de ser un laboratorio experimental de innovación social basado en prácticas colaborativas.

## HAZITEGIAK

Artistak eta kultur espazioak are hurbilago

Artistas y espacios culturales aún más cerca

Kai honek herritarren, kultur espazioen eta artisten arteko distantzia txikitzeko helburua du. Entsegu ireki, emanaldi aurreko hitzaldi edo eskola tailerren gisako jardueren bitartez arte mediazioaren normalizazioa sustatzen du, artistek eta publikoek ohiko eszenatoki edo erakusketa aretoetatik at egin dezaten topo elkarrekin. Aldi berean, antzoki eta museoak sorkuntza egonaldietarako erabiltzea sustatzen du, sormen hazitegi bihurtuz eta praktika artistikoa herritarrei hurbilduz. Gainera, lurraldeko artista eta kultur erakundeen partaidetza bultzatzen du Europako sare eta proiektuetan, esperientzia berri eta etorkizuneko lankidetzari atea irekiz. Donostia Kultura lankidetzan ari da kai honekin eta 2016. urtearen ondorengo jarraipenaz arduratuko da.

Este muelle está diseñado para reducir la distancia entre la ciudadanía, los espacios culturales y los artistas. Impulsa la normalización de la mediación artística a través de actividades como ensayos abiertos, charlas previas a la exhibición o talleres escolares, para que artistas y públicos se encuentren y relacionen fuera del habitual escenario o la sala de exposiciones. Al mismo tiempo, promueve el uso de teatros y museos como residencias de creación, transformándolos en semilleros creativos y acercando la práctica artística a la ciudadanía. Además, impulsa la participación de artistas y entidades culturales del territorio en redes y proyectos europeos, abriendo así la puerta a nuevas experiencias y futuras colaboraciones. Donostia Kultura colabora con este muelle y se encargará de su continuidad después de 2016.

## 284+

Aniztasun linguistikoaren iraunkortasuna

La sostenibilidad de la diversidad lingüística

Hizkuntzak elementu biziak dira eta baldintza egokiak behar dituzte garatu eta denboran irauteko. Komunikaziorako eta identifikaziorako ezinbesteko elementuak dira: elkarbizitzarako gakoetako bat. Europan 284 hizkuntza baino gehiago daude; gaur egungo erronka aberastasun hori guztia gara dadin bermatzea da, hizkuntz aniztasunaren iraunkortasuna bilatuz. Euskararen berreskurapenari emandako bultzadagatik berezia den lurralde honetan, kai honek hizkuntza-aniztasunari balioa eman eta eremu urriko hizkuntzen inguruan lanean diharduten eragilearen sareak bultzatu nahi ditu, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin esku esku elkarlanean.

Las lenguas son elementos vivos que necesitan de entornos favorables para desarrollarse y perdurar en el tiempo. Son un elemento esencial para la comunicación y la identificación, claves para la convivencia. Europa alberga más de 284 lenguas y su reto actual consiste en crear las condiciones idóneas para que toda esa riqueza se desarrolle, buscando la sostenibilidad de la diversidad lingüística. En un territorio caracterizado por el impulso de la revitalización del euskera, este muelle quiere poner en valor la diversidad e impulsar redes de agentes que trabajan en torno a las lenguas minoritarias, trabajando en colaboración con el Consejo de Organismos Sociales del Euskera Kontseilua.

## HIRIKIA

Kultura eta teknologia eskutik

Cultura y tecnología de la mano

Europak ezagutzaren gizartean oinarritzen ditu bere elkarbizitzaren printzipioak; beraz, informazioarako sarbidea eta komunikazioa sustatzea dira, oraindik orain, IKTen zeregin nagusia. Teknologia kulturarekin harremanak izateko modu berriak ahalbidetzen ditu; izan ere, teknologia berrien erabiltzaileok partaide aktibo eta sortzaile baikara munduko gertakarietan. Nolanahi ere, sarbidea izateaz gain, pertsonak sortu, birstortu eta gozatu egin nahi dute. Hiri irekiagoa sortze aldera, kai honek herritarren ahalduntzea eta irisgarritasun digitala sustatzen ditu, etorkizuneko hiri inteligenteen zutabe gisa. Bestalde, tresnak eta parte hartzeko espazio irekiak sortzea bultzatuko du, teknologia herritarren zerbitzura jartzeko. Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearekin elkarlanean jarduteak helburuen jarraitutasuna bermatuko du.

Europa basa sus principios de convivencia en la sociedad del conocimiento, y por tanto el acceso a la información y el fomento de la comunicación siguen siendo la labor principal de las TICs. La tecnología permite nuevas formas de relacionarse con la cultura, dado que las y los usuarios de las nuevas tecnologías somos participantes activos y creadores de lo que ocurre en el mundo. Sin embargo, más allá de tener acceso, las personas quieren crear, recrear y recrearse. Con el fin de crear una ciudad más abierta, este muelle promueve el empoderamiento ciudadano y la accesibilidad digital como pilares de las ciudades inteligentes del futuro, y fomentará la creación de herramientas y espacios participativos y abiertos, poniendo la tecnología al servicio de los ciudadanos.

La colaboración con la Facultad de Informática de la Universidad del País Vasco garantiza la continuidad de sus objetivos.

## ENBAXADAK EMBAJADAS

### EUROPA TRANSIT

GIZA DUINTASUNA / BIZIKIDETZA / MEMORIA /  
ADISKIDETZA / INKLUSIOA / ERRESPECTUA

DIGNIDAD HUMANA / CONVIVENCIA / MEMORIA /  
RECONCILIACIÓN / INCLUSIÓN / RESPETO

### BIZIZ

ONGIZATEA / INGURUA / HIRIGINTZA /  
KIROLA / SEXUALITATEA / GASTRONOMIA

BIENESTAR / ENTORNO / URBANISMO /  
DEPORTE / SEXUALIDAD / GASTRONOMÍA

### TOSTA

HIZKUNTZA-ANIZTASUNA / SORKUNTZA ARTISTIKOA /  
KULTUR ANIZTASUNA / AHOZKOTASUNA / HIZKUNTZAK

DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA / CREACIÓN ARTÍSTICA /  
INTERCULTURALIDAD / ORALIDAD / LENGUAS

## Europatik Europara De Europa a Europa

Kultur Hiriburu gisa, Donostia 2016k dagokion tituluaren mailan egon nahi du, eta bere aztarna utzi kontinente guztian. Hori dela eta, hiru enbaxada ibiltari bidaliko ditu kontinenteko hamar milioi kilometro koadroen eremu zabal batera, Europak osatzen duen kultur mosaiko erraldoia aldarrikatzeko, komunitate ezberdinen arteko ulermena sustatzeko eta Hiriburutzaren proiektua kanpoan azaltzeko misioa izanik. Europako geografia partekatua esparru ezin hobea da elkarbizitzaren kulturaren balioak aztertze eta erabiltzeko.

San Telmo Museoa bi erakusketa bilduko ditu, elkarrizketan ari diren bi testuinguru aurkezteko. Lehenengoak berrikusi egingo du Gaur talde galkorra izan zenaren gertakizun artistiko eta kultural handia (konstelazio modernoa izan zen, Oteizak, Chillidak, Balerdik, Basterretxeak, Sistiagak, Amablek, Mendiburuk eta Zumetak osatutakoa). Orain dela 50 urte aurkeztu zuten, manifestu batekin, Barandiaran galerian. Dionisio Barandiaran izan zen espazio experimental eta berritzaile hartako mezenasa. Laborategi irekia egiteko saiakera abangoardista hura 1967aren amaieran itxi zen, baina artista guztien ibilbide bikaina gelditu zaigu. Bigarren erakusketak Europako artista eta kolektiboen beste konstelazio bat bilduko du: Txomin Badiola, PSJM, Goldschmied & Chiari, Azucena Vieites, Iratxe Jaio & Klaas van Gorkum, Borjan Fajfric, Eugenio Ortiz eta Avelino Sala. Beren proposamenek hainbat ikuspegi azalduko dute forma kritikoen, idazkeren, memorien eta gure sasoko arteen kooperazio-moduen inguruan.

Proposamenean, halaber, erakusketa zabalduak, bisitak, mingegiak, tailerrak, bi argitalpen eta dokumental bat egingo dira.

San Telmo Museoa reunirá dos exposiciones que presentan dos contextos en diálogo. La primera revisa el gran acontecimiento artístico y cultural que fue el efímero grupo Gaur (una



Blami · 2015

constelación moderna integrada por Oteiza, Chillida, Balerdi, Basterretxea, Sistiaga, Amable, Mendiburu y Zumeta) y su presentación hace 50 años con un manifiesto en la Galería Barandiaran. Dionisio Barandiaran fue el mecenas de ese espacio experimental y renovador. Aquella tentativa vanguardista de laboratorio abierto quedaría clausurada a finales de 1967, pero queda la sobresaliente trayectoria de cada uno de los artistas. La segunda muestra acogerá otra constelación contemporánea de

artistas y colectivos europeos: Txomin Badiola, PSJM, Goldschmied & Chiari, Azucena Vieites, Iratxe Jaio & Klaas van Gorkum, Bojan Fajfric, Eugenio Ortiz y Avelino Sala. Sus propuestas expondrán una diversidad de tomas de posición sobre las formas críticas, las escrituras, memorias y modos de cooperación en las artes de nuestro tiempo.

Exposiciones expandidas, visitas, seminarios, talleres, dos publicaciones y un documental completan la propuesta.

URTARRILA - ABENDUA  
ENERO - DICIEMBRE✓ AHOTSAK  
VOCES

# 2016 irakurketa 2016 lecturas

366 liburu kapital 366 libros capitales

INSTALAZIOA / IRAKURRALDIA INSTALACIÓN / LECTURA

📍 GIPUZKOAKO LIBURUTEGI ETA  
LIBURUDENDAK  
BIBLIOTECAS Y LIBRERÍAS DE  
GIPUZKOA

👤 ERAGILEAK AGENTES  
GIPUZKOAKO LIBURU SALTZAILEEN  
ELKARTEA / GREMIO DE LIBREROS  
DE GIPUZKOA, DONOSTIAKO UDAL  
LIBURUTEGIEN SAREA / RED DE  
BIBLIOTECAS MUNICIPALES DE SAN  
SEBASTIÁN, KOLDO MITXELENA  
KULTURUNA, TABAKALERA

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES  
EIDE, KUNSTHAL, TECNUN,  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

🌐 2016irakurketa.dss2016.eu  
2016lecturas.dss2016.eu

#2016Irakurketa  
#2016Lecturas

📖 LITERATURA  
LITERATURA

Liburu-saltzaile, liburuzain eta editoreek liburuak gomendatu dituzte, DSS2016EUko hamabost proiektuen edukia eta gaiak aintzat hartuta. Hautatutako nobela, saiakera, komiki, ipuin eta poema-bildumek biblioteka berezia sortuko dute, eta diseinua lagun izango du, ikusgarriagoa izan dadin. Irakurleek *ad hoc* sortutako liburu-erakustokia aurkituko dute lagun duten liburu-denda eta biblioteketan. Eta hautatutako istorio horiek, era berean, ekintzak inspiratuko dituzte hirian. Beren karterako gauza baliotsuena bibliotekako txartela dela dakitenentzat; tentazioa liburu-denda gisa itxuratzen dutenentzat.

Libreros y bibliotecarios han recomendado libros a partir del contenido y los temas de quince proyectos de DSS2016EU. Las novelas, ensayos, cómics, cuentos y poemarios escogidos configuran una particular biblioteca, que contará con el diseño como aliado para su visibilidad. Los lectores se encontrarán en las librerías y bibliotecas cómplices un expositor de libros creado *ad hoc*. Y las historias elegidas inspirarán a su vez actividades en la ciudad. Una propuesta para aquellos que saben que lo más valioso de su cartera es el carné de la biblioteca, para los que la tentación tiene forma de librería.

URTARRILA - URRIA  
ENERO - OCTUBRE

BAKEA  
PAZ

# Dance2gether

Elkarrekin dantzatu bagaitezke, elkarrekin bizi gaitezke  
Si podemos bailar juntos, podemos vivir juntos

DANTZALDIA / TAILERRA / EMANALDIA BAILE / TALLER / REPRESENTACIÓN

EAE / CAV

ERAGILEAK AGENTES  
DE LOOPERS, DANTZAGUNEA

dance2gether.dss2016.eu

#Dance2gether

@BakeaPaz2016

HEZKUNTZA / ERRESPECTUA /  
ELKARBIZITZA / ELKARTASUNA  
EDUCACIÓN / RESPETO /  
CONVIVENCIA / SOLIDARIDAD

2014ko urrian hasitako ekimena.  
Actividad iniciada en octubre de 2014.



Five Days to Dance dokumentalaren fotograma Fotograma del documental Five Days to Dance (SUICAFilms - REC)

*Dance2gether* proiektuan parte hartzea erabaki zuten ikastetxeetako ikasleek ohiz besteko astea biziko dute. Gimnasioan bildu dira astelehen goizeko lehen orduan. Aurrez aurre dituzte Wilfried van Poppel eta Amaya Lubeigt, De Loopers koreografoak. Azalpen soil bat nahikoa izango da ikasleek beren buruak koka ditzaten: astelehenean koreografia bat egiteko entseguak hasiko dituzte, eta ostiralean hezkuntza-komunitate osoaren aurrean dantzatuko dute. *Dance2gether* egingo dute; *Five Days to Dance* dokumentalak -sari andana jasotako filma- bikain jaso duen esperientzia.

Une horretatik aurrera aste bizia hasiko da; hunkipenez betea, frustrazioz, malkoz eta, batez ere, irribarrez betea; ezagutzen ez den horri aurre egiteko aste bat; gelan eta jolas-tokian dituzten rolak aldatzeko astea. Erruz egindako lanak taularatze ikusgarria izango du sari.

*Dance2gether*-ek *Five Days to Dance* hamar ikastetxetara eraman du. Berotze-arietak izan dira. Proiektuaren gailurra 2016ko urrian izango da, Donostian, dantza agerraldi jendetsua egiten denean. Dantzari izateko aukera izango du nahi duen orok.

Aukera izango dugu gure gorputzen lengoaiaren bitartez beste batzuekin erlazioatzeko. Hilabeteko bizikidetzaz-erperientzia erakargarria izango da, dantzak eskaintzen dituen aukerak landuko ditugu, eta koreografia jendetsu bat izango da azken ekitaldia.

El alumnado de uno de los centros que decidieron participar en el proyecto se dispone a vivir una semana inusual. El lunes a primera hora de la mañana se reúnen en el gimnasio frente a Wilfried Van Poppel y Amaya Lubeigt, coreógrafos de De Loopers. Una breve explicación los sitúa: el lunes empezarán a ensayar una coreografía que interpretarán ante todo el centro el viernes por la tarde. Tienen por delante *Dance2gether*, una experiencia recogida de forma soberbia en un documental llamado *Five Days To Dance* que está cosechando premios allí donde lo proyectan.

A partir de ese instante empieza una semana intensa, llena de emociones, frustraciones, lagrimas, y sobre todo risas; de enfrentarse a lo desconocido; de cambiar los roles a los que están habituados en el aula y en el patio; una semana de trabajo duro que, finalmente, encuentra su premio en la actuación final.

*Dance2gether* ha llevado *Five Days To Dance* a una decena de centros escolares en doce meses. El momento álgido del proyecto *Dance2gether* tendrá lugar en octubre de 2016, mes en el que la ciudad acogerá una actuación de danza comunitaria. Una invitación a convertirnos en bailarines.

Una oportunidad para convivir con otros a través del lenguaje de nuestros cuerpos. Una experiencia de convivencia intensa de un mes, en la que experimentaremos y exploraremos las posibilidades que este lenguaje nos ofrece y que culminará con una coreografía multitudinaria.

2 OTSAILA - 13 ABENDUA  
FEBRERO - DICIEMBRE

BAKEA  
PAZ

# Erronkak Desafíos

Etorkizunari aurrea hartzea  
Anticiparse al día de mañana

HITZALDIA CONFERENCIA



EAE CAV

ERAGILEAK AGENTES  
JAKIUNDE

BABESLEA PATROCINADOR  
LABORAL KUTXA

erronkak.dss2016.eu  
desafios.dss2016.eu

#Erronkak2016 #Desafios2016

@BakeaPaz2016

BIZIKIDETZA / ELKARTASUNA /  
HEZKUNTZA / ANIZTASUNA  
CONVIVENCIA / SOLIDARIDAD /  
EDUCACIÓN / DIVERSIDAD

Zein izango dira gure jakin-min, kezka edo arazoak bihar? Horri erantzun nahi dio *Erronkak*, hitzaldi eta eztabaidek osatzen duten programa. Herritarrek sentibilizatu eta orientatu nahi ditu, baita zenbait tresna eskaini ere, XXI. mendeak ekarriko dituen erronka kolektibo nagusiei aurre egin ahal izateko.

Urte guztian zehar hainbat euskal udalerritan egingo diren ekimenetan mahai gaineratuko diren gaiak osasuna, kultura, zientzia eta ekonomiari buruzko premiazko auziak identifikatu eta landuko dituzte. Horretarako, Jakiunde (Zientzia, Arte eta Letren Euskal Akademia) instituzioko kideek eta nazioarteko adituek osatutako zientzia batzorde bat sortu du galdera horiei guztiei erantzuna emateko helbururarekin.

¿Cuáles van a ser nuestras principales inquietudes, preocupaciones o problemas en el día de mañana? Esa es la pregunta que quiere responder *Desafíos*, un programa de conferencias y debates que busca sensibilizar, orientar y dotar a los ciudadanos de una serie de herramientas para poder hacer frente a los grandes retos colectivos a los que se enfrentará en el siglo XXI.

Los asuntos que se pondrán sobre la mesa en las actividades, que se celebrarán durante todo el año en diferentes localidades de la geografía vasca, identificarán y abordarán cuestiones de relevancia en aspectos relacionados con la salud, la cultura, la ciencia, la economía, la competitividad, la ordenación territorial o la organización social. Con esta finalidad, Jakiunde, la Academia vasca de las Ciencias, las Artes y las Letras, ha convocado un comité científico integrado por miembros de la institución y expertos internacionales que tratará de dar respuesta a todas estas preguntas.

OTSAILA - ABENDUA  
FEBRERO - DICIEMBRE

BAKEA  
PAZ


# Baitara baita

Erligio-aniztasuna, erronka eta aukera  
La diversidad religiosa, reto y oportunidad

INSTALAZIOA / HIZKETALDIA / TOPAKETA / EZTABAIDA / ERAKUSKETA

INSTALACIÓN / DIÁLOGO / ENCUENTRO / DEBATE / EXPOSICIÓN


 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

 ERAGILEAK AGENTES  
NEGOCIADO DE DIVERSIDAD DEL  
AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA/  
SAN SEBASTIÁN, INSTITUTO DE  
DERECHOS HUMANOS PEDRO  
ARRUPE DE LA UNIVERSIDAD DE  
DEUSTO, E.T.S. DE ARQUITECTURA  
DE LA UPV/EHU

 baitarabaita.dss2016.eu

 #BaitaraBaita

 @BakeaPaz2016

 ANIZTASUNA / ERRESPETUA /  
INKLUSIOA / BERDINTASUNA /  
ELKARBIZITZA  
DIVERSIDAD / RESPETO /  
INCLUSIÓN / IGUALDAD /  
CONVIVENCIA

2015eko maiatzean hasitako ekimena.  
Actividad iniciada en mayo de 2015.

Gai al da Donostia hainbat erlijioentzat  
eraikin bat sortzeko eta eraikitzeko?  
Galdera hori aitzakia baliagarria izango  
zaigu Donostian dauden erlijioak hobeto  
ezagutzeko eta haien arteko elkarbizitzan  
sakontzeko.

Behin abiapuntu hori zehaztuta, *Baitara  
baitak* helburuok bete nahi ditu: erlijio-  
aniztasunaren kudeaketa publikoari  
heltzeko moduak lantzea; konfesioen  
arteko ezagutza errazteko espazioa eta  
aukerak sortzea; eta erlijioen arteko  
elkarrizketa sustatzea, giza eskubideetan,  
zuzentasunean eta elkar errespetuan  
oinarrituta.

«*Baitara baitak* erlijioen  
arteko ezagutza sustatuko  
du aurreiritziak leuntzea  
helburu hartuta»

Deustuko Unibertsitateko Giza  
Eskubideen Pedro Arrupe Institutuarekin  
lankidetzan topaguneak eratuko ditugu  
erlijioetako ordezkariekin batera, haien  
arteko elkarrizketa errazteko, eta kultur  
askatasuna bermatzeko beharrak  
identifikatzeko. Gai horiek gizarteari  
irekitako jardunaldietan ere landuko dira.

Era berean, hasieran egindako galdera  
horrek erantzun hautemangarri bat  
ere izango du. UPV/EHUko Arkitektura  
Goi Eskola Teknikoko ikasleek eraikin  
iragankorra diseinatuko eta eraikiko dute.  
Donostiako Oñati plazan kokatuko den  
eraikin horretan espiritualitateari eta  
erlijioei lotutako ekitaldi sorta egingo da.

¿Es San Sebastián capaz de concebir y  
acoger un espacio de culto multirreligioso?  
Es la pregunta que nos sirve como pretexto  
para un intento de profundización en el  
conocimiento y en la convivencia de las  
diversas confesiones existentes en San  
Sebastián.

Establecido este punto de partida,  
los objetivos de *Baitara baita* son los  
siguientes: explorar y abordar métodos  
para la gestión pública de la diversidad  
religiosa; crear oportunidades y espacios  
para favorecer el conocimiento de las  
diferentes confesiones; y promover el  
diálogo interreligioso sobre la base de los  
derechos humanos, la equidad y el respeto  
mutuo.

«*Baitara baita* favorecerá el  
conocimiento de diferentes  
confesiones con el fin de  
mitigar prejuicios»

En colaboración con el Instituto Pedro  
Arrupe de la Universidad de Deusto, se  
impulsarán espacios de encuentro para  
favorecer el diálogo entre los miembros de  
las diferentes confesiones y sensibilidades,  
e identificar y evaluar sus necesidades para  
ejercer la libertad de culto. Esas cuestiones  
también se tratarán en jornadas abiertas a  
la ciudadanía.

Asimismo, la pregunta que da pie a este  
proyecto encontrará su respuesta a modo  
de un espacio de culto multirreligioso  
efímero que diseñarán y construirán los  
estudiantes de la E.T.S. de Arquitectura  
de la UPV/EHU, y que se ubicará en la  
Plaza Oñati de San Sebastián, frente a  
su facultad. Bajo esta se desarrollará un  
programa de actividades relacionado con  
las religiones, con la espiritualidad y la  
necesidad de trascender que tiene el ser  
humano.



OTSAILA  
FEBRERO

BIZITZA  
VIDA

# Time Machine Soup

Europako historian barrena zentzumenen bidez  
Un viaje por la historia de Europa a través de los sentidos

HAPPENING / DASTAKETA HAPPENING / DEGUSTACIÓN

🕒 1 H 15 MIN

👤 SARRERAREKIN  
CON ENTRADA

👤 ERAGILEAK AGENTES  
SANTOS BREGAÑA, HIKA TEATROA,  
IBAN GARATE, HARKAITZ CANO,  
FRÉDÉRIC DUHART, IÑIGO COJO,  
XABIER ERKIZIA, XABIER LOZANO,  
DEBOLEX, BASQUE CULINARY  
CENTER

🌐 [timemachinesoup.dss2016.eu](http://timemachinesoup.dss2016.eu)

# #TimeMachineSoup

📍 ANTROPOLOGIA / GASTRONOMIA /  
EUROPAKO HISTORIA  
ANTROPOLOGÍA / GASTRONOMÍA /  
HISTORIA EUROPEA



Jose Luis López de Zubiria - 2007

Haitzuloetako gizakiengandik 80 amonak banatzen gaituztela zioen Jorge Oteizak bere *Quosque Tandem...!* liburuan. Premisa honetan oinarrituta eta zopa aitzakiatzat hartuta, Europako historian zehar bidaia zirraragarrian murgilduko gaituen denbora makinan sartzeraz gonbidatzen gaitu *Time Machine Soup* happening-ak.

Egungo zopa industrialetik hasi eta leize-zuloetako lehenengo salda hipotetikoraino, bidaiariak hamabi zopa dastatuko dituzte, erlojuak emandako ordu bakoitzeko bana, kontinente zaharraren historiaren une esanguratsuetan geldialdiak eginez.

Happening ludiko honetan, plazerrari eta nutrizioari beharrez, sukaldearen balio antropologikoari dago lotuta gastronomia. Literatura, arte bisualak, antropologia, gastronomia eta historia nahasten dira fintasan handiz irudikatutako ikuskizun honetan. Zentzumenak piztea nahikoa izango da iragana esploratzera egingo dugun bidaia honetan murgiltzeko.

«Aski lirateke laurogei.

Laurogei besterik ez: arraunlari guztiak amonak diren itsasontzi bateko galerak; erdi hutsik dagoen zine areto bat; merkantziatzko bagoi bat amonaz gainezka. Laurogei amona euren laurogei zopekin: egunero bi zopa hartzea nahikoa, hilabete eta erdiren buruan guztiak dastatu eta neolitikoraino iristeko. Laurogei amona, laurogei zopa.»

**Harkaitz Cano**

Jorge Oteiza sostenia que tan sólo 80 abuelas nos separan de la vida de las cuevas. *Time Machine Soup* se inspira en esta premisa recogida en su *Quosque Tandem...!* para crear una máquina del tiempo que promete un viaje fascinante a lo largo de la historia de Europa con la sopa como elemento conductor.

Desde la actual sopa industrial hasta el hipotético primer caldo cocinado en las cavernas, los viajeros degustarán doce sopas, una por cada hora que marca el reloj, con parada en otros tantos momentos históricos que han marcado el devenir del viejo continente.

En este happening lúdico la gastronomía trasciende su papel asociado al placer y a la nutrición para reivindicar su faceta más antropológica a través de una cuidada puesta en escena que aúna literatura, artes audiovisuales, antropología, gastronomía e historia. La estimulación de los cinco sentidos hará posible este periplo en el que para explorar el pasado sólo hará falta dejarse llevar y sentir.



Luis Haranburu Altuna

IDAZLEA ETA EDITOREA  
ESCRITOR Y EDITOR

Zopa elikagaien esentzia likidoa da. Jangarrien arima emaroa. Zopa ama da eta baita borborka dagoen kultura ere. Europa bere nazioen zopa da eta kultura orenen sustantzia. Europako eltze zabalean egosten dira Homero, Platon eta Sofokles, Dante Alighieri, Cervantes, Shakespeare, Pascal eta Goetherekin batera, zeinak Hölderlin, Nietzsche, Verlaine eta Prevertekin partekatzen duten gune kulinarioa. Irakitean Bach eta Ravelen musikak entzun ohi dira Brell, Laboa eta Elton Johnen nota sotilekin batera. Zoparen testurak Rembrandt, Vermeer eta

Degasen koloreak ditu. Zopak nabarmen egiten du hobera Axular apur batekin. Zopa da elikagaietan lehena eta azkena; haur besoetakoek eta agure hortzgabeek hartzen dutena. Zopa bizitzaren antzekoa da: libre irakiten duen sormena.

La sopa es la sustancia líquida de los alimentos. Es el alma nutricia de lo comestible. La sopa es madre y es cultura en ebullición. Europa es la sopa de sus naciones y es la sustancia de sus culturas. En la olla abierta de Europa se cuecen

Homero, Platón y Sófocles junto al Dante Alighieri, Cervantes, Shakespeare, Pascal y Goethe que comparten espacio culinario con Hölderlin, Nietzsche, Verlaine y Prévert. Cuando rompe el hervor, suenan Bach y Ravel con leves notas de Brell, Laboa y Elton John. Su textura tiene los colores de Rembrandt, Vermeer y Degas. La sopa mejora con una pizca de Axular. La sopa es el primero y el último de los alimentos. La toma el bebé y la sorbe el anciano desdentado. La sopa es como la vida: una compleja creación que bulle en libertad.



OTSAILA - EKAINA  
FEBRERO - JUNIO

✓ BIZITZA  
VIDA

✱ PAGADI

# Anarchivo sida

Osasuna, lengoia, performatibitatea eta artxiboa  
Salud, lenguaje, performatividad y archivo

ERAKUSKETA / TAILERRA / TOPAKETA / PERFORMANCEA

EXPOSICIÓN / TALLER / ENCUENTRO / PERFORMANCE

📍 TABAKALERA, ELKARTEEN  
ESPASIOAK, IKASTETXEAK ETA  
INSTITUTUAK, ESPAZIO PUBLIKOA  
TABAKALERA, ESPACIOS DE  
ASOCIACIONES, COLEGIOS E  
INSTITUTOS, ESPACIO PÚBLICO

👤 PROPOSAMENA PROPUESTA  
EQUIPO RE (AIMAR ARRIOLA,  
NANCY GARÍN & LINDA VALDÉS)

ERAGILEAK AGENTES  
MIGUEL BENLLOCH, JESÚS  
JELETON, AIMAR PÉREZ GALI,  
NICOLAS MALEVÉ, CHRISTIAN  
RODRIGUEZ, ASOCIACIONES Y  
AGENTES SOCIALES.

📌 KOPRODUKZIOA COPRODUCCIÓN  
DSS2016EU, TABAKALERA

🌐 [anarchivosida.dss2016.eu](http://anarchivosida.dss2016.eu)

# #AnarchivoSida

📌 KRISIA / AFECTIBITATEA  
OSASUNA / PREKARIETATEA  
/ GORPUTZAREN POLITIKAK /  
MEMORIA

CRISIS / AFECTIVIDAD / SALUD  
PRECARIEDAD / POLITICAS DEL  
CUERPO / MEMORIA



"20 retratos de activistas queer de la Radical Gai, LSD y RQTR, en el Madrid de los noventa" ren stillak. HD bideoa 2:08:50 · Andrés Senra 2014  
Stills de "20 retratos de activistas queer de la Radical Gai, LSD y RQTR, en el Madrid de los noventa" video HD 2:08:50 · Andrés Senra 2014

*Anarchivo sidak* honako hau proposatzen du: 80ko hamarkadatik gaur egunera arteko Europa hegoaldeko eta Latinoamerikako «hiesaren krisia»-ren inguruko estetika eta performatiba eta esperientzia kolektiboak kartografiatzea. Proiektuak ez du hiesa epidemia huts gisa lantzen, kultura-, afektibitate- eta ekonomia-paradigmaren aldaketa gisa baino; hori dela eta, analisi historiografiko egin beharrean, baldintza neoliberalak inposatutako bizitza-mugak modu kolektiboan onartu eta birkonfiguratu nahi ditu.

Hiru urtez ikerketan eta materialak ekoizten aritu ostean, *Anarchivo sidak* erakusketa batean aurkeztuko du egindako lana, 2016ko apirilean, Tabakalera, Carme Nogueira artistarekin lankidetzan. Erakusketak «natura / kultura» egitura klasikoa landuko du. Programa-jarduera paraleloak berriz, ondorengo gaiak izango ditu ardatz: osasuna, jakintza eta boterea, lengoaiaren eta entzutearen arau-dimentsioa edo gorputza eta performatibitatea erresistentzia bezala.

*Anarchivo sida* propone cartografiar prácticas estéticas y performativas y experiencias colectivas en torno a la «crisis del sida» desde la década de los 80 hasta hoy en día, en el contexto del sur de Europa y de América Latina. El proyecto aborda el VIH no como una simple epidemia, sino como un cambio de paradigma cultural, afectivo y económico, por lo que, más que realizar un análisis historiográfico, pretende reconocer y reconfigurar colectivamente los límites de la vida impuestos por la condición neoliberal.

Tras tres años de investigación y producción de materiales, *Anarchivo sida* se presentará en Tabakalera en abril de 2016 con una exposición que abordará la clásica articulación «naturaleza / cultura» y que contará con la colaboración de la artista Carme Nogueira. El programa de actividades paralelas se centrará en cuestiones como la relación entre salud, saber y poder, la dimensión normativa del lenguaje y la escucha o el cuerpo y la performatividad como resistencia.

OTSAILA - ABENDUA  
FEBRERO - DICIEMBRE

✓ AHOTSAK  
VOCES

✱ 284+

# EUSkarriak

Hizkuntz aniztasuna kalean dago  
La diversidad lingüística habita la calle

INSTALAZIOA / INTERBENTZIOA / PROZESU PARTEHARTZAILEA

INSTALACIÓN / INTERVENCIÓN / PROCESO PARTICIPATIVO

📍 DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

👤 ERAGILEAK AGENTES  
BAGERA

🌐 [euskarriak.dss2016.eu](http://euskarriak.dss2016.eu)

# #EUSkarriak2016

📌 ANIZTASUNA / ELKARBIZITZA  
/ HERRITARREN SORMENA /  
ARTE PLASTIKOAK/ SORKUNTZA  
KOLEKTIBOA / KULTURANIZTASUNA  
/ HIZKUNTZAK / ITZULPENGINTZA /  
TEKNOLOGIA / GEOGRAFIA KOMUN  
EUOPARRA

DIVERSIDAD / CONVIVENCIA/  
CREATIVIDAD CIUDADANA /  
ARTES PLÁSTICAS / COCREACIÓN /  
INTERCULTURALIDAD / LENGUAS/  
TRADUCCIÓN / TECNOLOGÍA /  
GEOGRAFÍA COMÚN

Badakizu zenbat pertsona euskaldundu dira Donostian azken urteetan? Zein da hizkuntzaren papera kulturean? Zenbat hizkuntza mintzatzen diren Europan? Zergatik erabili bat ala bestea? Hizkuntzen eremuan aditu eta arituek biografia anitzeko herritarrek eta diziplina askotako sortzaileek Europako hizkuntzen eta euskararen inguruko euren ikuspegia jarri dute mahai-ganean. Hausnarketa hauek eta bertatik eratorritako mezuak hirian zehar agertuko dira gutxien espero dugun leku eta moduetan. Edozein momentutan beraiekin topo egin eta gure esperientzien inguruan pentsatzeko gonbidapena jasoko dugu.

¿Sabes cuánta gente ha aprendido euskera en San Sebastián durante los últimos años? ¿Qué papel juegan las lenguas en la cultura? ¿Sabes cuántas lenguas hay en Europa? ¿Por qué utilizar una u otra? Profesionales con un recorrido contrastado en el campo de las lenguas, ciudadanas y ciudadanos anónimos con biografías diversas y creadoras y creadores de distintas disciplinas han aportado su forma de entender la realidad lingüística de Europa y del euskera. Estas reflexiones y los mensajes derivados de ellas, se verán por toda la ciudad de forma imprevisible. Los encontraremos en cualquier momento y en cualquier lugar y nos invitarán a pensar en torno a nuestras experiencias.



OTSAILA - AZAROA  
FEBRERO - NOVIEMBRE

✓ BIZITZA  
VIDA

✱ BESTELAB

# WhatsART

Zure mundua aldatzeko artea  
Arte para cambiar tu mundo

LABORATEGIA / TOPAKETA LABORATORIO / ENCUENTRO

11 GAZTE TALDE NAGUSIAN  
33 GAZTE BIGARREN TALDEAN  
11 JÓVENES EN GRUPO PRINCIPAL  
33 JÓVENES EN SEGUNDO GRUPO

ERAGILEAK AGENTES  
KULTIBA CAMBIO CULTURALES

whatsart.dss2016.eu

#WhatsART

BIZIKIDETZA / ESKUBIDEAK /  
ERRESPECTUA  
CONVIVENCIA / DERECHOS /  
RESPECTO



Gipuzkoa izango da sorkuntzan interesa duten eta elkarbizitza sustatzeko arte-proiektu bati ekin nahi dioten gazteak atzemateko bilaketaren eszenarioa. Hamaika pertsonako talde bat sortuko da, eskualde bakoitzeko pertsona bat hautatuta, eta talde horrek hausnarketa egingo du, nahi duten etorkizunaren inguruan. Ondoren, taldekideek amestutako eszenario horretara bideratutako ideia edo baldintzak agertuko dira. Gipuzkoako lurralde bakoitzerako identifikatutako betekizun espezifikoa biltzen dituen erantzun kolektibo bakar bat emango da, gerora, arte-sorkuntza bat proiektatzeko eta ekoizteko balioko duena.

Gipuzkoa será escenario de una búsqueda para detectar jóvenes con inquietudes creativas y con ganas de emprender un proyecto artístico que fomente la convivencia en su entorno. Se creará un equipo de once jóvenes formado por una persona de cada comarca, con el que se realizará una reflexión en torno al futuro que desean para posteriormente representar ideas o condiciones enfocadas a ese escenario soñado por ellos. Se dará una única respuesta colectiva que englobe los requisitos específicos identificados para cada uno de los territorios de Gipuzkoa que se materializará en proyectar y producir una creación artística.

OTSAILA - ABENDUA  
FEBRERO - DICIEMBRE

✓ AHOTSAK  
VOCES

✱ HIRIKIA

# Behagunea

Kulturaren talaia digitala  
La atalaya digital de la cultura

WEBGUNEA PÁGINA WEB

behagunea.dss2016.eu

#Behagunea


KODE IREKIA / TEKNOLOGIA / WWW  
CÓDIGO ABIERTO / TECNOLOGÍA /  
WWW

Ekitaldiz betetako urtean, hizkuntza eta kultura ugariaren topaleku bihurtuko da hiria. Nola neurtu ekitaldi bakoitzak hiritarrengan sortutako atxikimendua? Nola sustatu parte-hartzea, eta iritzia emateko zein bide eskaini?

Behagunea webguneak Hiriburutzaren baitan antolaturiko ekintza zein ekitaldiek Interneten eta sare sozialetan izan duten jarraipena neurtuko du automatikoki. Milaka albiste, iritzi-artikulu eta mezu bildu eta aldeko zein kontrako iritzia modu argian erakutsiko ditu ekitaldien termometro bihurtuz. Horrez gain, webgunean bertan ekitaldi jakin bati buruzko iritzia eman ahal izango du erabiltzaileak.

En un año lleno de eventos, la ciudad congregará a diversas lenguas y culturas. ¿Cómo medir la adhesión ciudadana lograda por cada evento? ¿Cómo impulsar la participación y qué vía proporcionar para opinar?

La web Behagunea medirá automáticamente el seguimiento logrado por las actividades y los eventos de la capitalidad en internet y en las redes sociales. Recogerá miles de noticias, artículos de opinión y mensajes favorables y desfavorables, y los mostrará de forma clara, convirtiéndose así en termómetro de los eventos. Además, el usuario podrá dar su opinión sobre un evento concreto en la misma página web.



26 OTSAILA - 27 OTSAILA  
FEBRERO - FEBRERO

✓ AHOTSAK  
VOCES

# Rekording

«Recordar», latinezko re-cordisetik:  
bihotzetik berriz igarotzea  
«Recordar», del latín re-cordis:  
volver a pasar por el corazón

APP / IBILBIDEA / PODCASTA / IRRATSAIO APP / RECORRIDO / PODCAST / EMISIÓN DE RADIO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERAGILEAK AGENTES  
BADIHARDUGU ELKARTEA,  
AUDIOLAB, LA SONIDERA, INKO  
MARTÍN, ALBERTO DE LA HOZ  
LAGUNTZAILEAK COLABORADORES  
CASARES IRRATIA / DONOSTIA  
KULTURA, NAGUSILAN, DEPARTAMENTO  
DE JUVENTUD DEL AYUNTAMIENTO DE  
SAN SEBASTIÁN, AFIGI, ASOCIACIÓN DE  
FAMILIARES Y AMIGOS DE PERSONAS  
CON ALZHEIMER Y OTRAS DEMENCIAS  
DE GUIPÚZCOA

rekording.dss2016.eu

#Rekording

COMMONS / KODE IREKIA /  
MEMORIA / AHOZKOTASUNA /  
HIBRIDAZIOA / APP / TEKNOLOGIA  
COMMONS / CÓDIGO ABIERTO/  
MEMORIA / ORALIDAD /  
HIBRIDACIÓN / APP / TECNOLOGÍA

Donostiako leku batzuk eta bertako bizimodua nolako zen irudikatzen laguntzen duten istorioak gordetzen ditu herritarren memoriak. Kontakizun horiek, 40 urtetik gora dituzten oroitzapen subjektiboak, baliagarri izango dira istorio berriak sortzeko egitura gisa, eta beste artista eta gidoigile batzuek berrinterpretatuko dituzte, irriti-antzerkiko eta soinu-arteko tailerretan. Kartografia sonora hori narrazioek eta sormen-lanek osatuko dute, eta mugikorretako aplikazio baten bidez entzun ahal izango dira, pasieran ibili artean. Horri esker, aukera hori bere telefono mugikorrean instalatzen duen erabiltzaileak hiria berraurkituko du, entzunez eta soinu-esperientzia baliatuz; gainera, ezarritako ibilbideak edo norberak aukeratutakoa egin ahal izango ditu.

Jendaurreko aurkezpena otsaileko azken asteburuan egingo da; zehazki, soinu-pistak antzetzeko dira, zenbait eremu publikotan. Aplikazioa doan eskuratu ahal izango da, baina soinu-sorkuntzak Casares Irratiak ere emango ditu.

La memoria de la ciudadanía alberga historias que dibujan cómo eran algunos lugares de San Sebastián y cómo se vivía en ellos. Estos relatos, recuerdos subjetivos de hace más de 40 años, servirán como estructuras para la creación de nuevas historias y serán reinterpretadas por otros artistas y guionistas en talleres de radio-teatro y arte sonoro. Esta cartografía sonora estará compuesta por narraciones y creaciones que podrán ser escuchadas mediante una aplicación móvil mientras se pasea. De esta forma, las usuarias y los usuarios que instalen esta opción en su teléfono móvil redescubrirán la ciudad desde la escucha y la experiencia sonora, pudiendo seguir los itinerarios establecidos e improvisar su propio recorrido.

La presentación pública se realizará el último fin de semana de febrero con una teatralización de las pistas sonoras en diversos espacios públicos. La aplicación estará disponible gratuitamente, pero las creaciones sonoras también serán emitidas por Casares Irratia.

OTSAILA - ABENDUA ✓ BAKEA  
FEBRERO - DICIEMBRE PAZ

# Tira-birak

## Tiras que aflojan

Gure iragan hurbilaren memoria, bineten bidez  
La memoria de nuestro pasado reciente en viñetas

ERAKUSKETA / TAILERRA / HITZALDIA

EXPOSICIÓN / TALLER / CHARLA

📍 EAEKO, NAFARROAKO ETA IPARRALDEKO UNIBERTSITATE-CAMPUSAK  
CAMPUS UNIVERSITARIOS DE LA CAV, NAVARRA E IPARRALDE

👤 ERAGILEAK AGENTES EMAN, GIZARTE, POLITIKA ETA KOMUNIKAZIO IKERKETA TALDEA - UPV/EHU, OKENDO KULTUR ETXEA

🌐 [tirabirak.dss2016.eu](http://tirabirak.dss2016.eu)  
[tirasqueaflojan.dss2016.eu](http://tirasqueaflojan.dss2016.eu)

# #TiraBirak #TirasQueAflojan

@BakeaPaz2016

📌 HEZKUNTZA / BAKEA / BALIO ETIKOAK / ERRESPECTUA / ANIZTASUNA  
EDUCACIÓN / PAZ / VALORES ÉTICOS / RESPETO / DIVERSIDAD



James Gillray · 1805 · Library of Congress, USA

Egunkarietako tira edo binetak gure gizartearen bilakaera hamarkadaz hamarkada markatu duen gatazkaren ispilu izan dira. Umoreak, satirak, kritika mingotsenak eta destilatu ohi duten solidaritate-sentimenduak arindu egiten dute giza jarrera ulertezinek zenbaitetan eragindako errealitatea. Hori guztia izango da erakusketan baten aztergai eta abiapuntu, eta hainbat marrazkilarik errealitate bahetuaren erretratua egingo dute.

Tira-birakek hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieratik gaur egunera arteko bineten bilakaera formala eta edukiak azalduko ditu. Ibilbide horri esker, tira grafikoak eragin zituen

atmosfera politiko-soziala gogoratuko eta ezagutuko dugu.

Lanaren azken emaitza erakusketan ibiltari bat izango da, eta astebeteko programazioa eta jarduera osagarriak izango ditu lagun: hitzaldiak, tailerrak eta binetei aplikatutako teknologia berrien laborategiak. UPV/EHUko EMAN ikerketa-taldea arduratuko da tirak aztertzeaz eta erakusketan jarriko direnak hautatzeaz.

Las tiras o viñetas de los diarios han sido fiel reflejo del conflicto que ha marcado durante décadas el devenir de nuestra

sociedad. El humor, la sátira, la crítica más ácida, el sentimiento solidario que destilan, ofrecen el contrapunto de una realidad consecuencia de unos comportamientos humanos muchas veces incomprensibles. Todo ello es objeto de estudio y motivo para la concepción de una exposición que retratará una realidad tamizada por los ojos de diferentes dibujantes.

Tiras que aflojan muestra la evolución formal y de contenido de las viñetas desde finales de los setenta hasta nuestros días. Un recorrido que servirá para recordar y conocer la atmósfera social y política que dio lugar a dichas tiras gráficas.

El resultado final de esa labor será una exposición itinerante que será apoyada por una programación semanal de actividades paralelas que abarcarán conferencias, talleres, y laboratorios vinculados a nuevas tecnologías aplicadas a las viñetas. El grupo de investigación EMAN de la UPV/EHU es el encargado del estudio y de la selección de las tiras que completarán la exposición.



Magalie Besse

INSTITUT UNIVERSITARE DE VARENNE-EKO ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE INSTITUT UNIVERSITAIRE DE VARENNE

Prentsako marrazkiak adierazpen- eta prentsa-askatasunerako bitarteko paregabea dira, ezaugarritzat baitute momentuan ulertzen direla; batzuetan ez du axola zein hizkuntzatan dauden adieraziak, komunikaziorako eta ideien hedapenerako bitarteko bikaina dira, eta gainera, bitarteko unibertsala dira. Prentsako marrazkien eraginkortasuna horien atzean dagoen umoreak indartzen du. Horregatik, karikaturen ondorioz, nahiko sarri, marrazkilariek kritikak,

mehatxuak eta errepresaliak jasotzen dituzte. Marrazkilarien lotsagabekeriak eta euren estilo propioak bihurtzen dituzte benetako artista, demokraziaren eta askatasunaren soldadu.

Las viñetas de prensa constituyen un indudable medio de libertad de expresión y de libertad de prensa. Ante todo son una excelente herramienta de comunicación universal, ya que tienen

la particularidad de ser inmediatamente comprensibles, independientemente del idioma. La eficacia de las tiras de prensa viene reforzada por el humor en el que a menudo se apoyan, a pesar de que, en ocasiones, la caricatura haya convertido a los ilustradores en blanco de críticas, amenazas e incluso represalias. No obstante, su impertinencia y estilo propio les convierten en verdaderos artistas, defensores de la libertad y la democracia.

20 MARTXOA  
MARZO AHOTSAK  
VOCES

# Altzoko haundia

## El gigante de Altzo

Txotxongiloak eta musika, protagonista  
Títeres y música juntos en escena

ANTZEZLANA REPRESENTACIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERAGILEAK AGENTES  
TOPIC, TEATRO BARAKALDOLAGUNTZAILEAK COLABORADORES  
AVIAMA, CALCINOR, INSTITUTO  
ETXEPARE, EKE (EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA), ALTZOKO UDALAaltzokohaundia.dss2016.eu  
elgigantedealtzo.dss2016.eu#AltzokoHaundia  
#GiganteDeAltzoARTE ESZENIKOAK / DANTZA /  
BITARTEKARITZA / HEZKUNTZA /  
ARTES ESCENICAS / DANZA /  
MEDIACIÓN / EDUCACIÓNMartxoak 20 estreinaldia Donostian  
20 de marzo estreno en San Sebastián

Iñigo Ibañez · 2015 · Tolosa

Familiarentzako ikuskizuna da, Miguel Joaquín Elizegi *Altzoko haundiaren* benetako istorioa oinarri duena. Gigantismoa zuen gizon hark, eta oso ezaguna izan zen Europan, XIX. mendearan erdialdean. Bakartasuna, ezberdina errespetatzea, naturarekiko maitasuna, inozentzia eta ontasuna islatzen dira eszenaratze honetan, non opera, musika eta txotxongiloak biltzen baitira.

Nestor Basterretxeak diseinatu zituen txotxongiloak, Koldo Izagirrek idatzi du libretoa, David Azurzak konposatu du musika, Emmanuel Márquez arduratu da zuzendaritza eszenikoaz eta La Enananaranja konpainia txotxongiloen manipulazioaz. Obrak muntaia paraleloa izan du Mexikon, eta Charleville-Mézières-en estreinatu zen.

Ópera familiar inspirada en la historia real de Miguel Joaquín Elizegi, conocido como *El gigante de Altzo*, un hombre aquejado de gigantismo que fue muy popular en Europa a mediados del siglo XIX. La soledad, el respeto al diferente, el amor por la naturaleza, la inocencia y la bondad se reflejan en esta puesta en escena en la que convergen la ópera, la música y los títeres.

Nestor Basterretxea diseñó las marionetas, Koldo Izagirre ha escrito el libreto, la música ha sido compuesta por David Azurza, la dirección escénica ha corrido a cargo de Emmanuel Márquez y la manipulación de los títeres de la compañía La Enananaranja. La obra ha contado con montaje paralelo en México y fue estrenada en el Festival Mundial de la Marioneta de Charleville-Mézières.

MARTXOA  
MARZO BIZITZA  
VIDA

# DSSirez

Eroekin jolasean  
Jugando con Eros

INTERBENTZIOA / TAILERRA INTERVENCIÓN / TALLER

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

dssirez.dss2016.eu

#DSSirez

SEXUALITATEA / IDENTITATEA /  
ERRESPECTUA / ANIZTASUNA  
SEXUALIDAD / IDENTIDAD /  
RESPECTO / DIVERSIDAD

Antzinako Greziaz geroztik unibertsoa mugitzen duen indar nagusietakoa da erotismoa eta XVIII. mendetik izaera errebeldearen eta askearen adierazgarri ere bada. Erotika bizitzeko modua kulturak baldintzatzen duela oinarri hartuta, eta desira aniztasuna aldarri, bost zentzumenekin gozatzera gonbidatzen gaitu *DSSirez* mugimenduak.

Berogailu erotikoa izango da eta herritarren desira eta fantasia piztuz temperatura igoaraziko du. Zurrumorbo agenteek mito eta sinismen faltsuekin amaituko dute sexualitate eredu bakarra defendatzen duten zurrumurrak desagerrarazteko. *DSSiren Karabana* hiriko auzoetara gerturatuko da, guztiok erotismoaz hausnartu eta gozatu dezagun. *Ligodromoan*, berriz, probokazioarekin eta fantasiarekin jolasean bizipoza piztuko dugu.

El erotismo es una de las fuerzas principales que mueven el universo desde la Antigua Grecia y un signo de rebeldía y libertad desde el siglo XVIII. Partiendo del supuesto de que la erótica es cultural y poniendo el foco en la diversidad del deseo, llega el movimiento *DSSirez* para invitarnos a disfrutar del erotismo con los cinco sentidos.

Funcionará como fuente erótica de calor y elevará la temperatura incidiendo en el deseo y la fantasía de la ciudadanía. Los agentes Zurrumorbo lucharán contra los mitos y las falsas creencias para desmontar los rumores que establecen un único modelo de sexualidad. *La Caravana de los DSSeas* recorrerá los barrios de la ciudad para hacernos reflexionar y disfrutar de la erótica; y en el *Ligódromo* aprenderemos jugando que la provocación y la estimulación de la fantasía son alimento para una vida sana.

MARTXOA - EKAINA  
MARZO - JUNIO BAKEA  
PAZ BESTELAB

# Herri zahar, andre berri

Emakumeen rola tokiko tradizioetan  
El rol de la mujer en las tradiciones locales

TOPAKETA ENCUENTRO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

herrizaharandreberri.dss2016.eu

#HerriZaharAndreBerri

@BakeaPaz2016

TRADIZIOA / EMAKUMEA /  
BERRIKUSTEA / AZTARNA  
TRADICIÓN / MUJER / REVISIÓN /  
HUELLA

Emakumeek tokiko tradizioetan eta haien errepresentazioetan duten zereginaz euskal gizarteak duen proiektzioa landuko du proiektuak. Lehenengo fasean, Etorikizuna Bilatzeko Biltzarraren parte hartzeko metodologiak bidea emango die tartean dauden taldeei etorkizunerako nahi den egoera aurreikusteko, misio bat adosteko, ekintzaren erantzukizuna bere egiteko eta inplementatzea hitzemateko. Proiektzio hori oinarri hartuta, prozesu paraleloetan lan zehatz bat sortuko da, identifikatutako ardatzen inguruan. Prozesuan zehar sortutako edukia jaso egingo da eta modu artistikoan islatuko da.

El proyecto trabajará sobre la proyección que la sociedad vasca hace en relación al papel de la mujer en las tradiciones locales y sus representaciones. En una primera fase, la metodología participativa de Conferencia de Búsqueda de Futuro, permitirá a colectivos implicados en la materia visualizar un futuro escenario deseado, consensuar una misión, asumir la responsabilidad de la acción y comprometerse a implementarla. Partiendo de esa proyección, se abordará en procesos paralelos un trabajo específico sobre los distintos ejes identificados. El contenido del proceso será recogido y plasmado de una forma artística.

26 MARTXOA  
MARZO - URRIA  
OCTUBRE✓ BAKEA  
PAZ ✨ HIRIKIA

# Insert Change

Zer jolastu, hura izan  
Eres lo que juegas

TAILER IREKIA / JOLASA TALLER ABIERTO / JUEGO

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

👤 ERAGILEAK AGENTES  
PINTXO DEVELOPER, GUGAN

🌐 insertchange.dss2016.eu

# #InsertChange

Proiektu honek bideojokoa kultur produktu bezala aldarrikatu nahi du; lehen pertsonan errealtateak eta gatazkak bizitzeko aukera aparta ematen duen kultur produktu gisa, hain zuzen.

Izan ere, bideojokoen jokalaria beste errealtate horietan murgiltzen baitute, eta erabakiak harraraztera eta horiekin kontsekuente izatera derrigortzen: gerretako izugarrikeriak, hondamendi ekologikoak, gatazka sozialak, etab. Egoera horiek dilema moral zailak mahaigaineratzen dituzte. Horrela, bada, bideojokoa ibilgailu perfektua da giza eskubideei buruzko hausnarketara bultzatzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko, modu ludikoan. Premisa horretatik jaio da *Insert Change*, eta gogoeta eta sorkuntza partekaturako prozesu ireki bat izango da. Bertan, diziplina anitzetako profilek hartuko dute parte eta elkarlan horren emaitza kutsu sozialeko bideojoko bat izango da.

Jokoen daukaten potentzial kritikoa eta sozializatorako espazioak sortzeko gaitasuna arakatuko dira proiektu honekin. Baina, batez ere, jolastea eta ondo pasatzea izango da helburua.

🐦 @BakeaPaz2016

📌 BALIO ETIKOAK / MAKERRAK / HIBRIDAZIOA

VALORES ÉTICOS / MAKER / HIBRIDACIÓN

Este proyecto pretende reivindicar el videojuego como producto cultural que brinda una oportunidad única para experimentar, en primera persona, realidades y conflictos.

Porque el videojuego sumerge al jugador en otras realidades, le hace tomar decisiones y ser consecuente con cada una de ellas: horrores de la guerra, catástrofes ecológicas, conflictos sociales... Se puede enfrentar a situaciones que plantean duros dilemas morales. Así, el videojuego es el vehículo perfecto para invitar a la reflexión en torno a los derechos humanos y promover el pensamiento crítico, de una forma lúdica. De esta premisa surge *Insert Change*, un proceso abierto de reflexión y cocreación en el que colaborarán perfiles de distintas disciplinas y que dará como resultado la creación de un videojuego de carácter social.

Se busca explorar el potencial crítico de los juegos y su capacidad para crear espacios de socialización. Pero ante todo y sobre todo, divertirse y jugar.



Pintxo Developer - 2015 - Donostia

MARTXOA  
MARZO ✓ AHOTSAK  
VOCES

# Prime Time

Pantaila txikian aliatu handien bila  
En busca de grandes aliados en la  
pequeña pantalla

EMISIOA EMISIÓN



Joaquín Gáñez, 2015

📍 EUROPA

👤 ERAGILEAK AGENTES  
EIKEN (CLUSTER AUDIOVISUAL DE  
EUSKADI)LAGUNTZAILEAK COLABORADORES  
EUROPA CREATIVA, EITB

🌐 primetime.dss2016.eu

# #PrimeTime2016

📌 ANIZTASUNA / GEOGRAFIA  
PARTEKATUA / BALORE ETIKOAK /  
HEZKUNTZA / KULTURARTEKOTASUNA/  
IKUSENTZUNEZKOADIVERSIDAD / GEOGRAFÍA COMÚN/  
VALORES ÉTICOS / EDUCACIÓN /  
INTERCULTURALIDAD / AUDIOVISUAL

2015eko abendua: ideia onenaren hautaketa

2016ko apirila: pilotuaren estreinaldia

Diciembre de 2015: Selección de la mejor idea

Abril de 2016: Presentación del episodio piloto

Hiriburutzaren beste hainbat proiektu gisa, *Prime Time* galdera batetik jaio zen: Posible al da Europako kultura eta bere balioen inguruko tarte bat izatea telebistako *prime time*an? Ikusle ugarirentzako saio erakargarria sor daiteke, itsasargien edo erronka garaikide handien edukitik abiatuta? Proposamenaren xedea da normalean *prime time*ari lotutako kontzeptua aldatzea eta erakustea posible dela kalitatezko telebista egitea, kultura europarrean eta 2016ko balioetan oinarrituta; ikusle askorentzat; masen hedabide nagusiaren hezkuntza- eta kultura-ahalmena aldarrikatu nahi da, eta publikoa dena telebistatik berrikusi. Ideia onena nazioarteko deialdi baten bidez hautatuko da, eta finantzazioa lortuko du saio pilotu bat ekoizteko eta merkatu nagusietara jotzeko, produktua telebista-kateei saltzeko.

Como otros tantos proyectos de la Capitalidad, *Prime Time* nació de una pregunta: ¿Es posible tener un espacio en el *prime time* televisivo sobre los valores y la cultura europea? ¿Un programa atractivo dirigido a grandes audiencias a partir del contenido de los faros o de los grandes desafíos contemporáneos? La propuesta aspira a modificar el concepto tradicionalmente asociado al *prime time*, y mostrar que es posible realizar televisión de calidad basada en la cultura europea y los valores de 2016 para grandes audiencias, reivindicar la potencialidad educativa y cultural del medio de comunicación de masas por excelencia y repensar lo público desde la televisión. La mejor idea, escogida a través de una convocatoria internacional, obtendrá financiación para producir un episodio piloto y acudir a los principales mercados a vender el producto a los canales de televisión.

25 - 27 MARTXOA  
MARZO ✓ BAKEA  
PAZ

# Stop War Festibala

Zauriak ixteko eta herriak batzeko musika  
Música para cerrar heridas y unir pueblos

JAIALDIA / FOROA / TAILERRA

KONTZERTUA / FESTA

FESTIVAL / FORO / TALLER

CONCIERTO / FIESTA

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

👤 ERAGILEAK AGENTES  
GINMUSICA, DEMAGUN, KULTURA  
ALTERNATIBOA

🌐 [stopwarfestibala.dss2016.eu](http://stopwarfestibala.dss2016.eu)

# #StopWarFest

🐦 @BakeaPaz2016

📌 JUSTIZIA / ELKARBIZITZA /  
ADISKIDETZEA / BAKEA /  
HEZKUNTZA  
JUSTIZIA / CONVIVENCIA /  
RECONCILIACIÓN / PAZ / EDUCACIÓN



Europa gerra odoltsuen eszenatoki izan da, hiriak suntsitzeaz gainera, herriak banandu dituzten gatazken eszenatoki. *Stop War Festibalak* ahotsa eman nahi dio hiriari

«Jaialdiak bertoko eta nazioarteko musikariak batuko ditu, eta gerren aurka eta giza eskubideen alde lan egiten duten kolektibo eta aktibistei emango die ahotsa»

eta, horrela, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko aldarria egin. Aste Santuan bete-betea, jaialdiak bertoko eta nazioarteko musikariak batuko ditu, eta gerren aurka eta giza eskubideen alde lan egiten duten kolektibo eta aktibistei emango die ahotsa.

*Stop War*-ek hiru eszenatoki izango ditu egunez eta, horietan, kultur jarduerak izango dira, besteak beste, musika, haurrentzako tailerrak, dantza, bideo-jokoen maratona... Gaeuz, artista ospetsuek musikaz beteko dute eszenatoki nagusia.

Jaialdi honek proposatzen du, gerraren aurkako jarrera sendoa edukitzeaz gainera, generoen arteko harremana modu zabalagoan eta errespetuan oinarrituta hausnartzea, bai eta naturarekin harmonian dagoen bizitza izatea, eskubide zibil unibertsalak defendatzea edo justiziarik ezaren aurrean desobediencia egitea ere, antolaketa sozialerako zeharkako modu gisa, munduan nagusi den ordena zuzentzeko.

Europa ha sido escenario de cruentas guerras, conflictos que además de destruir ciudades han separado pueblos. *Stop War Festibala* quiere dar voz a la ciudad, y así, lanzar un grito en pro de la paz y la convivencia. En plena Semana Santa, el festival reunirá a músicos locales e internacionales y dará voz a colectivos y activistas que trabajan en la lucha contra las guerras y a favor de los derechos humanos.

*Stop War* contará con tres escenarios diurnos donde habrá actividades culturales como música, talleres infantiles, danza, una maratón de videojuegos... Por la noche, artistas de renombre llenarán de música el escenario principal.

«El festival reunirá a músicos locales e internacionales y dará voz a colectivos y activistas que trabajan en la lucha contra las guerras y a favor de los derechos humanos»

Este festival propone, más allá de una firme posición contra la guerra, una reconsideración más amplia y respetuosa de la relación entre géneros, una vida en armonía con la naturaleza, la defensa de los derechos civiles universales o la desobediencia ante la injusticia, como formas transversales de organización social para corregir el orden mundial imperante.



Ane Irazabal

KAZETARIA  
PERIODISTA

## Distantzia

Damaskotik Estokolmora 4.796 kilometro daude. Abioez egun erdian lotzen dira bi hiriak, baina Kassemek lau hilabete behar izan ditu Siriatic ihes egin eta Suediara iristeko. Bere istorioa beste milaka errefuxiatuen berdina da, kalko bat, etxean dena utzi, motxila hartu eta exodoa egin duen siriar batena. Kassemek zorionekoa dela dio: «Afganistango errefuxiatuek denbora bikoitza behar dute». Siria, Libano, Turkia, Grezia, Mazedonia, Serbia, Hungaria, Austria, Alemania eta Suedia. Herrialde bakoitzean hamaika penuria eta

JUNIOBIZITZA  
VIDA

284+

# Hitzargiak

Elkar argitzen duten hizkuntzak  
Lenguas que se dan luz entre sí

TOPAKETA ENCUESTRO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

ERAGILEAK AGENTES  
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

hitzargiak.dss2016.eu

#Hitzargiak

HIZKUNTZAK / ANIZTASUNA  
LENGUAS / DIVERSIDAD

Beren hizkuntzan bizitzeko oztopoekin topo egitean irudimena garatu eta mekanismoak asmatu behar izan dituzten hamarnaka hizkuntza komunitate daude Europan. Gizarte-mugimenduak, kooperatiba txikiak, hedabideak, kultur elkarteak, hezkuntza-zentroak, erakunde publikoak eta abar etengabeko espermentazioan dabiltza ideiak, kanpainak, proiektuak eta produktuak asmatuz, beharizan berrietara egokitu eta hizkuntza gutxituak sustatzeko. Berrikuntzaren eredu garbia dira; lankidetzeta eta elkarlan modu berriak, harremanak eta eraldaketa biderkatzeko gakoak.

Erantzuteke dagoen erronka elkar ezagutzearena da. Eremu urriko hizkuntzak bultzatzen lan egiten duten pertsona eta taldeek besteen ideia eta esperientzietatik ikasteko aukera izatea. Horretarako, beharrezkoa izango da praktika berritzaile eta arrakastatsuenak identifikatu eta ahal bezainbeste zabaltzea, prozesuak ikusgai jartzea eta eragileen arteko elkarrizketak eta

topaketa erraztea, noski. Web plataforma batek bilduko du eragileek partekatu nahi duten guztia. Azkenik, sare osoa eta bere energia sortzaile eta berritzailea topaketa batean hezuramaituko da; bertan erakutsi, entzun, ikasi eta partekatu ahal izango da edozein ideia eta proiektu, gure hizkuntza txikietatik Europa aniztunari ekarpena egiten jarrai dezagun.

Hay decenas de comunidades lingüísticas en Europa que ante todo tipo de dificultades que se les han ido presentando para poder desarrollar alguna actividad en su propia lengua, han tenido que ingeniárselas y crear mecanismos nuevos con tal fin. Desde movimientos sociales, pequeñas cooperativas, medios de comunicación, asociaciones culturales, centros educativos, instituciones públicas y demás experimentan constantemente con todo tipo de ideas, campañas, proyectos y productos para adaptarse a las nuevas necesidades e impulsar sus lenguas

minoritarias. Es pura innovación; nuevas formas de colaboración y cooperación, claves para multiplicar las relaciones y las transformaciones.

El reto pendiente es facilitar que se conozcan entre ellas. Que cualquier persona o grupo que trabaje promocionando lenguas minorizadas pueda aprender de las ideas y experiencias de los demás. Para eso, será necesario identificar y diseminar las más innovadoras y exitosas prácticas, hacer visible los procesos y, por supuesto, favorecer las conversaciones y los encuentros entre agentes.

Una plataforma web recopilará todo lo que los agentes estén dispuestos a compartir. Finalmente, toda esta red y toda su energía creativa e innovadora se condensará en el encuentro en el que se podrá mostrar, escuchar, aprender y compartir cualquier idea o proyecto válido para que sigamos aportando a la Europa diversa desde nuestras pequeñas grandes lenguas.



EKAINA  
JUNIOAHOTSAK  
VOCES

# Itzultzaile berriak

Mugarik gabeko literatura  
Literatura sin fronteras

EGONALDIA / TAILER IREKIA

RESIDENCIA / TALLER ABIERTO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
TABAKALERA

[itzultzaileberriak.dss2016.eu](http://itzultzaileberriak.dss2016.eu)

#ItzultzaileBerriak

ERAGILEAK AGENTES  
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

KOMUNIKAZIOA / ITZULPENGINTZA /  
LITERATURA  
COMUNICACIÓN / TRADUCCIÓN /  
LITERATURA

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES  
EIZIE



«Europako hizkuntza itzulpena da». Umberto Ecoen adagioak ematen dio arnas proiektu honi. Atzerriko itzultzaileei bekak eskaini zaizkie, euskara hobetzeko. Argia da helburua: euskaraz idatzitako literaturaren mugak zabaltzea. Nazioarteko deialdia egin ondoren, honako itzultzaile hauek hautatu dira: Laura Liubnavicivte, Mariya Petrova Pachkova, Barbara Pregelj, Katarzyna Sosnowska, Merilin Kotta, Karina Mishchenkova, Lenka Niznanska eta Matylda Figlerowicz. Hala, irakurle lituandarrek, bulgariarrek, eslovakiarrek, poloniarrek, estoniarrek, errusiarrek eta txekiarrek euskaratik zuzenean itzulitako lanetarako sarbidea izango dute.

Itzultzaile berriek beren esperientziaren berri emango dute publiko zabalari irekitako jardunaldietan eta itzultzaileei zuzendutako saio espezifikotan.

«La lengua de Europa es la traducción». El adagio de Umberto Eco alienta este proyecto que beca a profesionales extranjeros del mundo de la traducción para que mejoren su conocimiento del euskera. El propósito es claro: ampliar los límites de la literatura escrita en lengua vasca. Tras lanzar una convocatoria internacional, con la selección de Laura Liubnavicivte, Mariya Petrova Pachkova, Barbara Pregelj, Katarzyna Sosnowska, Merilin Kotta, Karina Mishchenkova, Lenka Niznanska y Matylda Figlerowicz, las y los lectores lituanos, búlgaros, eslovenos, polacos, estonios, rusos y checos podrán acceder a obras traducidas directamente del euskera.

Las nuevas traductoras ya seleccionadas compartirán su experiencia en jornadas abiertas al público general y en sesiones específicas dirigidas al sector de la traducción.

EKAINA  
JUNIOBIZITZA  
VIDA

BESTELAB

# Break a Leg!

Hainbat gaitasun eszenan  
Distintas capacidades a escena

LABORATEGIA / ANTZEZLANA

LABORATORIO / REPRESENTACIÓN



[breakaleg.dss2016.eu](http://breakaleg.dss2016.eu)

#BreakALeg

INKLUSIOA / ESKUBIDEAK /  
ELKARTASUNA  
INCLUSIÓN / DERECHOS /  
SOLIDARIDAD

Tokiko eta nazioarteko lagun banak osatutako tandem baten zuzendaritza artistikopean, bi astez elkarrekin biziko dira hainbat gaitasun eta desgaitasun dituzten arte eszenikoetako hamasei profesional. Aste horietako lehenengoan laborategi moduko bat egingo da mugimendua eta lan eszenikoa jorrazteko, eta bigarrena partaideen gaitasun ezberdinetan oinarritutako proposamen eszeniko bat garatzeko izango da.

Egonaldi honen emaitza bi saiotan erakutsiko da. Lehen saioa proiektuarekiko eta landutako gaiarekiko interes eta sentsibilitate berezia duten eragileei zuzenduta egongo da. Bigarrena, aldiz, publiko orokorrari irekita egongo da.

Bajo la dirección artística de un tándem formado por una persona local y una internacional, 16 profesionales de las artes escénicas con distintas capacidades y discapacidades, convivirán durante dos semanas. La primera servirá de laboratorio en el que experimentarán con el movimiento y el trabajo escénico, para dar paso a una segunda semana centrada en la elaboración de una propuesta escénica basada en las distintas capacidades de quienes participan. El trabajo desarrollado será expuesto en dos ocasiones. La primera sesión se dirigirá a agentes con especial interés y sensibilidad hacia el proyecto y la temática abordada. La segunda será una función abierta al público.

UDABERRIA  
PRIMAVERAELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

# Poesiaren ibilaldia

## La marcha de la poesía

Donostiako aztarna poetikoen atzetik  
Tras las huellas poéticas de San Sebastián

HAPPENING

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

Udaberriko ekinokzioarekin bat eginez, herritarren literatura-prozesio honek Poesiaren Munduko Eguna ospatuko du Donostiako kaleetan barrena. Esther Ferrer artistak diseinatutako jarduera da, DSS2016EUK emandako karta zuriaren baitan, eta ibilaldi honek oihartzun poetikoak dituzten lekuak bisitatuko ditu. Horietan, poesia ahots goran irakurriko da; hain zuzen ere, lekuari berari edo gertaera, gai, edo pertsonaren bati lotutako olerkiak. QR kode banak identifikatuko du ibilbidea osatzen duten gunetako bakoitza; horrela, parte-hartzaileek euren gailu mugikorren bitartez irakurri ahal izango dute toki bakoitzari dagokion poesia.

POESIA / TRANSMISIOA  
POESÍA / TRANSMISIÓN

Coincidiendo con el equinoccio de primavera, una procesión literaria ciudadana recorrerá San Sebastián para celebrar el Día Mundial de la Poesía. La marcha, ideada por la artista Esther Ferrer en respuesta a la *carta blanca* que le ha dado DSS2016EU, es una acción que se detendrá en diferentes puntos de la ciudad con reminiscencias poéticas, donde se leerá en voz alta una poesía vinculada al propio enclave, a un acontecimiento, a una temática o una persona. Los lugares que componen el recorrido estarán marcados por códigos QR, para que las y los participantes puedan leer desde sus dispositivos móviles los poemas asociados a cada localización.



Busto de Clara Campoamor por Lucas Alcalde Busto de Clara Campoamor por Lucas Alcalde

27 MAIATZA  
MAYO

## Ez Dok Amairu hitzez hitz

Hamabi kantu, eta konposizio instrumental bat  
Doce canciones, más una composición instrumental

KONTZERTUA CONCIERTO

FATIMA PARROKIA (ERRETERIA)

ERAGILEAK AGENTES  
ERESBIL, EHUKO LABOA KATEDRA


#2016elkarrizketak  
#conversaciones2016

MUSIKA / ONDAREA  
MÚSICA / PATRIMONIO

Kontzertu honetarako, Ez Dok Amairu kultura mugimendu abangoardistak (1965-1972) plazaratu zituen hamabi kantu aukeratu dira. Gaur egungo beste hainbeste musikagilek jatorrizko kantuon berridazketak edo harmonizazioak aurkeztuko dituzte, eta lau abesbatza gazteen ahotan jarriko dira. Garai hartako euskal poeta eta kantarien hitzak entzun ondoren, emanaldia biribiltzeko, musika hutsez osatutako hamahirugarren pieza bat eskainiko da, zenbakiaren begizkoa baliogabetzeko.

Para este concierto se han seleccionado doce canciones grabadas por miembros del movimiento cultural vanguardista Ez Dok Amairu (1965-1972), y otros tantos compositores actuales presentarán versiones o armonizaciones de estos temas, interpretadas por cuatro coros

juveniles. Tras escuchar las doce canciones escritas por autores vascos de aquella época, y como colofón al concierto, la decimotercera pieza será una composición instrumental, para romper el maleficio del número.



Iñigo Royo, 2015

1 APIRILA  
ABRIL

## ICMA Awards

Donostia, musika klasikoaren erdigunea  
San Sebastián, epicentro de la música clásica

KONTZERTUA CONCIERTO

KURSAAL

ERAGILEAK AGENTES  
EUSKADIKO ORKESTRA  
SINFONIKOA

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

MUSIKA / SARIAK  
MÚSICA / PREMIOS

ICMA sariak (International Classical Music Awards) musika klasikoaren alorrean banatzen diren sari nagusiak dira, eta 2016an Donostian emango dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta DSS2016EUREn arteko kolaborazioari esker. Bi erakundeek elkarrekin bultzatu zuten Gipuzkoako hiriburuaren hautagaitza sari-banaketaren egoitza izateko, eta biak izango dira erakunde-anfitrioi: sari-banaketaren ekitaldia eta ondorengo gala-kontzertua antolatzeaz arduratuko dira.

Los premios International Classical Music Awards (ICMA), los máximos galardones de la música clásica, se entregarán en San Sebastián en 2016, gracias a la colaboración entre la Orquesta Sinfónica de Euskadi y DSS2016EU. Ambas instituciones impulsaron la candidatura de la capital guipuzcoana como sede de la ceremonia, y serán las organizaciones anfitrionas, encargadas de organizar la entrega de premios y el posterior concierto de gala.



UZTAILA - IRAILA  
JULIO - SEPTIEMBRE

DONOSTIAPEDIA	74
HORMEK DIOTE	
PARDES QUE HABLAN	75
CODEFEST	75
EUROPA BAT-BATEAN	
DE REPENTE, EUROPA	77
CORALE	78
ITSASFEST	78
EIECINE   ZINEMA IKASLEEN	
NAZIOARTEKO TOPAKETA	
ENCUENTRO INTERNACIONAL DE	
ESTUDIANTES DE CINE	78
KALEBEGIAK	79
IKUSMIRA BERRIAK	80
GABON TXIRRITA	80
CORNERS OF EUROPE	81
PLAZ & PLAY	83
STREET TARTAR	83
12 POINTS	84
GLAD IS THE DAY	84
ZINEMA ETA GATAZKAK	
CINE Y CONFLICTOS	84

9 UZTAILA - ABENDUA  
JULIO - DICIEMBRE✓ AHOTSAK  
VOCES

✳ HIRIKIA

✳ 284+

# Donostiapedia

## XXI. mendeko auzolan digitala El trabajo comunal digital del siglo XXI

WEBGUNEA PÁGINA WEB

🌐 donostiapedia.dss2016.eu

# #Donostiapedia

📌 COMMONS / EZAGUTZA /  
HIZKUNTZAK  
COMMONS / CONOCIMIENTO /  
LENGUAS

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua eta Wikipediaren hamabosgarren urteurren bat egiten dutela aitzakia hartuta, Wikipedia-hiri bihurtuko dugu Donostia. Nola? Hiriko eragileekin lankidetzan, hiriaren historia eta kulturari buruzko artikulak argitaratu eta edonorentzako eskuragarri jarri. Hiriko leku esanguratsuetan kokatutako QR kodeek mundu fisiko eta digitalaren arteko lotura sortuko dute, eta erabiltzaileari artikulak bere hizkuntzan erakutsiko dizkiote.

Wikipediako ezagutza eta herritar zein bisitarien esperientzia uztartu nahi ditu ekimenak. Donostiari buruzko ezagutza bildu, eta gure hizkuntzetan ez ezik, ahalik eta hizkuntza gehienetara zabaldu. Horrekin batera euskal Wikipedia indartzea eta hiriari buruzko informazioa handitu, zabaldu eta modu errazean eskuragarri jartzea ere lortu nahi du proiektuak.

Arnas luzeko proiektua da dudarik gabe, Kultur Hiriburutzaren baitan hasiera eman eta aurrera begira bere ibilbidea egingo duena. Abiapuntu gisa, ekimen

zehatzak definitu dira: Amarpedia auzolandegia, Wikipedia ikastetxeetan, edit-a-thon maratoiak... Guztietan hiria bera eta herritarrak izango dira protagonista, Donostiari buruzko ezagutza sortuz eta zabalduz.

Zure parte-hartzea behar-beharrezkoa da hiriaren eraikuntza digitalean.

La Capitalidad Europea de San Sebastián 2016 coincide con el decimoquinto aniversario de la Wikipedia. Con ese motivo, convertiremos San Sebastián en una wiki-ciudad. ¿Cómo lo haremos? Mediante el trabajo conjunto con agentes y ciudadanía, generando y publicando artículos sobre la historia y la cultura de la ciudad. Colocaremos códigos QR en lugares emblemáticos, para mostrar a usuarios y usuarias los artículos en su propia lengua, y creando así un nexo entre el mundo físico y virtual.

Donostiapedia pretende unir el conocimiento de la Wikipedia con la experiencia propia de la ciudadanía y sus visitantes. El objetivo es recopilar todo ese conocimiento colectivo sobre



San Sebastián, partiendo de nuestras lenguas locales, y traducir los artículos al mayor número posible de lenguas. Junto a ello, el proyecto también pretende fortalecer la Wikipedia en euskera y aumentar y facilitar la información sobre la ciudad. Se trata, sin duda, de un proyecto a largo plazo que se iniciará durante la Capitalidad y continuará su camino después. Se han creado algunas

iniciativas concretas a modo de inicio: el taller vecinal Amarpedia, Wikipedia en los centros escolares, maratones edit-a-thon... En todas ellas la ciudad misma y la ciudadanía serán protagonistas, creando y difundiendo el conocimiento sobre San Sebastián.

Tu participación es indispensable para la construcción digital de la ciudad.



### Iban Zaldúa

IDAZLEA ETA EHUKO IRAKASLEA  
ESCRITOR Y PROFESOR DE LA UPV

### Dena

—Wikipedian den-dena dago.  
—Ez esan ergelkeriak.  
—Egia da —umeak, irmo—. Begiratu bestela zure izena.  
—Ni ez nago Wikipedian —zorionez, pentsatu du agureak—.  
Edonola, utzi ordenagailu hori. Eta itzuli besteekin; tarta jatera doaz.  
Neskak ospa egin du. Ane du izena; bilobaren gelakoa da.  
Halere, Wikipedia ireki eta bere izen-abizenak idatzi ditu.  
Badaezpada. Bertan dago ordea. Sarrera labur-labur batean, 1980ko hilketa batean parte hartu zuela zehazten duena. Sekula argitu ez zen soldatzaile haren aurkako atentatuan.  
Eta —hasieran ez da ohartu—, bere jaiotza dataren ondoan, heriotzarena. Gaurkoa hain zuzen.  
Burua teklatuaren gainean topatu dute. Bihotzekoa, antza.  
Inork ez du bilatu, jakina, soldatzaile haren izena: hala eginez gero, sarrera labur-labur batean, Ane izeneko birbiloba bat izango zukeela ikusiko luke.  
Den-dena dago Wikipedian.

### Todo

—En la Wikipedia está todo. Absolutamente todo.  
—No digas tonterías.  
—Es verdad —responde la niña con firmeza—. Mira si no tu nombre.  
—Yo no estoy en la Wikipedia —por fortuna, piensa el viejo—. De todas maneras, apártate de ese ordenador. Y vuelve con los demás, que están a punto de comerse la tarta.  
La niña se marcha. Se llama Ane, es de la clase de su nieto.  
Entonces abre la Wikipedia y escribe su nombre y su apellido. Por si acaso. Y ahí está. En un artículo muy breve que señala que en 1980 participó en un asesinato. En el atentado contra aquel soldador, que nunca se resolvió.  
Y —al principio no se ha dado cuenta—, junto a su fecha de nacimiento, la de su muerte. La del día de hoy, precisamente.  
Lo encuentran con la cabeza sobre el teclado. Un infarto, casi con seguridad.  
A nadie se le ha ocurrido buscar, claro está, el nombre de aquel soldador: si lo hubieran hecho habrían podido ver, en un artículo muy breve, que habría llegado a tener una biznieta, de nombre Ane.  
Todo, absolutamente todo, está en la Wikipedia.

UZTAILA - ABUZTUA  
JULIO - AGOSTOBAKEA  
PAZ

# Hormek diote

## Paredes que hablan

Hormak bizikidetzaren balioaren igorle  
Paredes transmisoras de convivencia

ESKUHARTZEA / PROIEKZIOA / DANTZALDIA

INTERVENCIÓN / PROYECCIÓN / BAILE

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
PASAIA  
ERRETERIA

@BakeaPaz2016


ERAGILEAK AGENTES  
EREITEN

INKLUSIOA / ERRESPEKTUA /  
HEZKUNTZA / BIZIKIDETZA  
INCLUSIÓN / RESPETO / EDUCACIÓN /  
CONVIVENCIA

hormekdiote.dss2016.eu  
paredesquehablan.dss2016.eu

2015eko urrian hasitako ekimena.  
Actividad iniciada en octubre de 2015.

#HormekDiote  
#ParedesQueHablan



Koldo Almandoz - Javi Agirre - Donostia - 2015

Bost horma: hiru Donostian, bat Pasaian eta Erreterian beste bat. Esku-hartze bana jasango dute beren azalean. Artea eta, teknologia berriei esker, interakzio-aukera eskainiko diete Donostiako zein kanpoko bizilagunei. Haietan paratuko diren lanak bertako artistek zein atzerrikoek egingo dituzte: Mentalgassik, Igor Rezolak, Judas Arrietak, Harsak, Jenny Karna-Escalantek, Ismael Iglesiasek, Horma Chic kolektiboak eta Las Chicas de Pasaik-ek. Hormak 2015eko udazkenean margotuko dituzte, eta 2016an berriro ere beste arte-adierazpen batzuen (dantza, zinema...) lekuko izango dira.

Cinco paredes: tres de San Sebastián, una de Pasaia y otra de Erreteria serán objeto de sendas intervenciones que aunarán arte y la posibilidad de interacción gracias a las nuevas tecnologías. Las obras correrán a cargo de artistas tanto locales como foráneos entre los que se encuentran Mentalgassi, Igor Rezola, Judas Arrieta, Harsa, Jenny Karna-Escalante, Ismael Iglesias, Iñigo Salaberria, el colectivo Horma Chic y Las Chicas de Pasaik, entre otros. Las obras, que se pintarán en otoño de 2015, serán revisitadas como espacio escénico para la danza y proyecciones en 2016.

Hormak, harresiak, gure egunerokotasunaren parte dira. Banatu, zedarritu, eutsi, oztopatu... egiten dute. Igo, jaitsi edo inguratu egin behar izaten ditugu eta, ia-ia oharkabeen, egunero hartu-emanu dugu eraikuntza horiekin. *Hormek diote* proiektuak harreman horri begiratzeko modu berri bat margotu nahi du eta, horretarako, ziurrenik, guztietan den eta arte-adierazpenik antzinakoena eta oinarrikoena aukeratu dugu: horma-irudia. Ahaleginduko gara paretak bizikidetzari-ikur bihurtzen, pertsona guztientzat etorkizun oparago bat eragozteko gero eta harresi gehiago eraikitzen den unean.

Estos elementos urbanísticos marcan nuestro día a día. Separan, delimitan, sostienen, obstruyen... espacios públicos y privados. Las personas debemos subirlos, rodearlos, o bajarlos. Prácticamente sin darnos cuenta de ello, mantenemos un diálogo diario con estos elementos arquitectónicos. *Paredes que hablan* pretende ser un altavoz de esa relación, una reivindicación de la comunicación en construcciones levantadas para separar; y para ello se valdrá de, posiblemente, la expresión artística más antigua y básica de todas: el mural. Intentaremos que las paredes se conviertan en elementos de convivencia, frente a los muros y barreras que construimos para poner trabas al deseo de alcanzar un futuro mejor para todos los seres humanos.

4 - 8 UZTAILA JULIO

BIZITZA  
VIDA

HIRIKIA

284+

# Codefest

Hizkuntz komunitateentzako baliabideak  
Herramientas para comunidades lingüísticas

MINTEGIA / IKASTAROA / TAILERRA

SEMINARIO / CURSO / TALLER

IBAETAKO CAMPUSEAN  
CAMPUS DE IBAETA

IZEN-EMATEA INSCRIPCIÓN  
WEB BITARTEZ / EN LA WEB

100 PLAZA  
100 PLAZAS

ERAGILEAK AGENTES  
DONOSTIAKO INFORMATIKA  
FAKULTATEA, IXA TALDEA

codefest.dss2016.eu

#Codefest

HIZKUNTZAK / KODE IREKIA  
LENGUAS / CÓDIGO ABIERTO


Nazioarteko Codefest udako eskolak eremu urriko hizkuntzentzako baliabide teknologikoak jarri nahi ditu eskura, eguneroko komunikazio elektronikoetan norberaren ama hizkuntza erabiltzea sustatzeko helburuarekin. Astebeteko tailer praktikoan, elkarrekin lan egingo dugu hizkuntzalari, software-garaztaile, ikasle eta hizkuntzarekiko grina daukan jendeak. Zuk zeuk, adibidez!

Ez dago aditua izan beharrik, edonork parte har dezake. Hizkuntzarekiko zaletasuna eta haren alde zerbait egiteko gogoia dira baldintza bakarrak. Auzolana izango dugu oinarri, egindakoaren kodea partekatuko dugu eta emaitza komunitatearen esku utzi.



La escuela de verano Codefest Internacional quiere poner a disposición de las y los usuarios recursos tecnológicos para aprender lenguas minorizadas, para que tengamos la oportunidad de utilizar nuestra lengua madre en las comunicaciones electrónicas. Durante un taller práctico de una semana trabajaremos con lingüistas, desarrolladores de software, alumnos y personas animadas a aprender lenguas. Por ejemplo... ¡tú misma o tú mismo!

No es necesario ser experto: cualquiera puede participar. La afición por las lenguas y las ganas de hacer algo en su favor son las únicas condiciones. El trabajo comunal será la base, compartiremos el código de lo realizado y pondremos el resultado en manos de la comunidad.



Orona

# KULTURA SUSTATUZ ELEVANDO LA CULTURA



Orona Fundazioak topagune bat sortu nahi du hezkuntzaren, gizartearen, kirolaren, kulturaren, ekonomiaren eta erakundeen esparruetako eragileekin. Gizartearen garapena sustatzeko baliagarriak diren ezagutzen eta ideien trukea erraztea da helburua. Donostia / San Sebastián 2016aren helburuak partekatzen ditugu.

Eskerrik asko gugar konfiantza jartzeagatik.

La Fundación Orona pretende generar un espacio de encuentro con agentes educativos, sociales, deportivos, culturales, socio-económicos e institucionales, buscando un mejor intercambio de conocimiento e ideas que, finalmente, se transforman en resultados que fomentan el desarrollo de la sociedad. Compartimos objetivos con Donostia / San Sebastián 2016.

Gracias por confiar en nosotros.



Orona  
fundazioa

[www.oronafundazioa.org](http://www.oronafundazioa.org)

9 - 16 UZTAILA  
JULIO AHOTSAK  
VOCES

# Europa bat-batean

## De repente, Europa

Kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketa  
Encuentro europeo del canto improvisado

TOPAKETA ENCUESTRO

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
PALACIO MIRAMAR, ESPACIO  
PÚBLICO, ESPACIO 2016, KURSAAL

👤 ERAGILEAK AGENTES  
BERTSOZALE ELKARTEA, MINTZOLA  
FUNDAZIOA, CURSOS DE VERANO  
DE LA UPV-EHU

🌐 europabatbatean.dss2016.eu  
derepenteuropa.dss2016.eu

# #EU1\_1ean

📌 ITZULPENGINTZA / HIZKUNTZAK  
/ HIBRIDAZIOA / TRADIZIOA  
/ AHOZKOTASUNA /  
KULTURARTEKOTASUNA /  
FEMINISMOA  
TRADUCCIÓN / LENGUAS /  
HIBRIDACIÓN / TRADICIÓN /  
ORALIDAD / INTERCULTURALIDAD /  
FEMINISMO



Conny Beyreuther · 2003

Europako inprobisatzailerik onenek Donostian izango dute hitzordua, Europako kulturen ahozko tradizioen nazioarteko topaketan. Ekimen honen aurrekaria 2003koa da, Bertsozale Elkartek lehenengoz antolatu zuenean Gipuzkoako hiriburuan topaketa bat: *Ahozko Inprobisazioa Munduan*.

Oraingoan, Mintzola Fundazioak DSS2016EUrekin lankidetzan jardungo du, ekimen hari jarraitutasuna emateko eta ahozko inprobisatzaileen nazioarteko sarea sendotzeko. Ordezkarri sardiniar, kurdu, galego, kanariar, katalan, galestar, austriar eta poloniarrek bertsoariekin batera jardungo dute eta, horrela, zenbait tradizio batera jarriko dute eszenan, kulturen arteko elkarrizketa batean.

Gurutzaketa horiek arratsaldero herritarren bila aterako dira; izan ere, hiriko espazio publikoetan izango dira.

Goizetan, EHUren Uda Ikastaroekin lankidetzan, gaian adituak direnek eremu horretan sakondu eta azken ikerketen berri emango dute.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa, gutxiengoan dauden hizkuntzen testuinguruen eta ahozko tradizioaren arteko erlazioa, genero-ikuspegia eta zientzian eta teknologian aplikatutako ikerketak goizeko hitzaldien edukien eta arratsaldeko aurkezpenen inspirazio izango dira.

Nazioarteko topaketa Donostian izango da, uztailaren 9tik 16ra, eta itxiera-ekitaldia egingo da Kursaal; bertan, munduko hainbat ahozko tradizio batuko dira. Gosegarri gisa, 2016ko udaberriari, Euskal Herrian aurretiko jardunaldi batzuk egingo dira, udazkenean Leonen eta Bartzelonan egin ostean.

Las mejores improvisadoras e improvisadores de Europa se darán cita en San Sebastián en el encuentro internacional de las tradiciones orales de las culturas europeas. El precedente de esta iniciativa se remonta al año 2003, cuando Bertsozale Elkartea organizó por primera vez en la capital guipuzcoana un encuentro bajo el título *Improvisación oral en el mundo*.

Esta vez, Mintzola Fundazioa trabajará en colaboración con DSS2016EU, para dar continuidad a aquel evento y reforzar la red internacional de improvisadoras e improvisadores orales. Representantes sardos, kurdos, gallegos, canarios, catalanes, galeses, austriacos y polacos actuarán junto a bertsozaleak, provocando la confluencia en escena de diferentes tradiciones en un diálogo intercultural.

Estos cruces saldrán cada tarde al encuentro de la ciudadanía puesto que se celebrarán en

espacios públicos de la ciudad. Por las mañanas, en colaboración con los Cursos de Verano de la UPV, especialistas en la materia profundizarán en este ámbito y difundirán las últimas investigaciones.

La transmisión de generación en generación, la relación entre la tradición oral y los contextos de lenguas minoritarias, la perspectiva de género y las investigaciones aplicadas en ciencia y tecnología inspirarán tanto los contenidos de las conferencias matinales como las presentaciones que tendrán lugar a la tarde.

El encuentro internacional tendrá lugar en San Sebastián del 9 al 16 de julio, y finalizará con un acto en el Kursaal en el que se fusionarán las diversas tradiciones orales del mundo. Como aperitivo, en primavera de 2016, se desarrollarán unas jornadas previas en el País Vasco tras las realizadas en otoño en León y Barcelona.

UZTAILA JULIO - URRIA OCTUBRE AHOTSAK VOCES

# Corale

## Iragana-oraina-etorkizuna Pasado-presente-futuro

MINTEGIA / ERAKUSKETA / KONTZERTUA TALLER / EXPOSICIÓN / CONCIERTO

GIPUZKOA, LAPURDI

**ERAGILEAK** AGENTES PHILLIPPE REGNIER, SARAOKO ONDARE KULTURALA ELKARTEA, HEGO LAPURDIKO HIRIGUNEA, INESFERA, CONFEDERACIÓN DE COROS DEL PAÍS VASCO, GIPUZKOAKO ABESBATZEN FEDERAZIOA, ERESBIL, SARAOKO HERRIKO ETXEA

**LAGUNTZAILEAK** COLABORADORES OKENDO KULTUR ETXEA, DONOSTIA KULTURA, GAUTENA

corale.dss2016.eu

# #Corale

GEOGRAFIA KOMUNA / ANIZTASUNA / INKLUSIOA / ELKARBIZITZA / MEMORIA / HEZKUNTZA / ARTE ESZENIKOAK / MUSIKA / DANTZA / ARGAZKILARITZA / ARTE BISUALAK / TRADIZIOA / BITARTEKARITZA / IKUSENTZUNEZKOAK / TEKNOLOGIA / KULTURARTEKOTASUNA

GEOGRAFÍA COMÚN / DIVERSIDAD / INCLUSIÓN / CONVIVENCIA / MEMORIA / EDUCACIÓN / ARTES ESCÉNICAS / MÚSICA / DANZA / FOTOGRAFÍA / ARTES VISUALES / TRADICIÓN / MEDIACIÓN / AUDIOVISUAL / TECNOLOGÍA / INTERCULTURALIDAD

Corale hiru ekintzek osatuko dute, tradizio koralak, Hiriburutzaren lurraldean duen garrantziaren inguruko hausnarketa sustatuko dutenak eta honekin batera kultur-nortasuna, folklorea eta hezkuntza-balioa.

Horretarako Eresoinka Enbajada Kulturalaren esperientzia gogorazaziko duen erakusketa bat antolatuko da Okendo Kutur Etxean eta baita erakustaldi koralez osatutako ekitaldi bat ere, *Eresoinkaren Itzalak*.

Horrez gain, jarduera koralaren transmisio-gaitasuna nabarmentzeko, bi tailer antolatuko dira: bat, sehaska- eta lo-kanten ondareari buruzkoa; beste bat, integrazioaren aldekoa, Gautenaren laguntzarekin (Gipuzkoako Autismo Elkarte).

Corale se compondrá de tres actividades que fomentarán la reflexión sobre el vínculo de una de las tradiciones más enraizadas en el territorio de la Capitalidad, la coral, con la identidad cultural, el folklore y el valor educativo.

Lo hará mediante una exposición ubicada en el C.C. Okendo que recordará la experiencia de la Embajada Cultural Eresoinka y un evento de espectáculos corales bajo el título *Eresoinkaren Itzalak*.

Asimismo, para subrayar la capacidad de transmisión de la actividad coral, se organizarán dos talleres: uno en torno al patrimonio de canciones de cuna y regazo y otro a favor de la integración en colaboración con Gautena ( asociación Gipuzkoana de autismo).

27 ABUZTUA AGOSTO BIZITZA VIDA

# Itsasfest

## Natura eta gu Por la exaltación de la naturaleza

JAIALDIA / IBILALDIA / TAILERRA FESTIVAL / RECORRIDO / TALLER

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN ONDARRETA HONDARTZA PLAYA DE ONDARRETA

**ERAGILEAK** PROMOTORES JAIZKIBEL AMAHARRI, SURF RIDER FOUNDATION EUROPE

itsasfest.dss2016.eu

# #Itsasfest

NATUR ONDAREA / ITSASOA / BALIO ETIKOAK / ELKARBIZITZA / MUSIKA PATRIMONIO NATURAL / MAR / VALORES ÉTICOS / CONVIVENCIAS / MÚSICA



Ondarretako hondartza izango da ingurumena herritarrei hurbildu nahi dien jaialdi handi honen kokalekua. Denon atseginerako jaia, aukera egongo da tailer eta jokoetan parte hartzeko, eta produktu osasuntsu eta zapoetsuak erosteko; dena musikaren erritmoan. Hori guztia gure natur inguruarekin harreman iraunkorragoa sustatzeko. Jaialdia baino lehen, bi geo-ibilbide egingo dira itsasertetik; orobat, kostako zaintzaileen plataforma bat sortuko da, herritarrek itsasoa babesteko lanetan duten parte-hartzea areagotzeko.

La playa de Ondarreta será el marco de un gran festival que busca acercar el entorno a la ciudadanía. Una fiesta para todos los gustos donde se podrá participar en talleres, juegos, adquirir productos sanos y sabrosos. Y todo al ritmo de la música. Todo esto para fomentar una relación más sostenible con nuestro entorno natural. Previo al festival, se llevarán a cabo dos georutas por el litoral, y paralelamente, se pondrá en marcha una plataforma de guardacostas para ahondar en la participación de la ciudadanía en la protección del mar.

20 - 23 IRAILA SEPTIEMBRE AHOTSAK VOCES

# Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa Encuentro Internacional de Estudiantes de Cine

TOPAKETA ENCUENTRO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**ERAGILEAK** AGENTES FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIÁN, TABAKALERA

**LAGUNTZAILEAK** COLABORADORES PANAVISION, AGENCIA FREAK / FEELSALES, BIOBIOCINE FESTIVAL INTERNACIONAL CONCEPCIÓN CHILE, SHORT FILM CORNER, TORINOFILMLAB, ORONA FUNDAZIOA

zinemaikasleak.dss2016.eu  
estudiantesdecine.dss2016.eu# #Zinemalkasleak  
#EstudiantesDeCine

ZINEA / IKUSENTZUNEZKOAK / ELKARBIZITZA / DONOSTIAKO ZINEMALDIA / CINE / AUDIOVISUALES / CONVIVENCIA / FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIAN

Mundu osoko zinema-eskoletako ikasleen lanak biltzen dituen hitzordu finkoa da. Hautatutako filmak saio irekietan aurkeztzen dira. Gainera, praktika eta teoria zinematografikoari buruzko hitzaldiak eta nazioarteko ikus-entzunezko industriako profesionalak emandako eskola magistralak barne hartzen ditu ekimenak. Hainbat sari eskuratzeko aukeraz gain (besteak beste, filmatze-lanetarako ikus-entzunezko ekipamendua uztea, nazioarteko 50 jaialditan izena ematea edo diru-saria), partaideek Donostiako Zinemaldia elkarrekin bizitzeko aukera dute, bai eta jaialdiaren testuinguruan dakitena eta ikasten dutena trukatzeko ere.

Cita consolidada que reúne a estudiantes de escuelas de cine de todo el mundo. La selección de sus cortometrajes se presenta en sesiones abiertas que se completan con coloquios sobre la práctica y teoría cinematográfica y con clases magistrales impartidas por profesionales de la industria audiovisual internacional. Además de optar a diferentes premios, entre otros la cesión de equipamiento audiovisual para rodajes, la inscripción en 50 festivales internacionales o una gratificación económica, sus participantes conviven y comparten conocimientos y aprendizaje dentro del marco del Festival de Cine de San Sebastián.

IRAILA  
SEPTIEMBRE

✓ AHOTSAK  
VOCES

# Kalebegiak

Hiri bat, hamabi begirada  
Una ciudad, doce miradas

PROIEKZIOA PROYECCIÓN

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

👤 ERAGILEAK AGENTES MORIARTI PRODUKZIOAK, LARROTXENE KULTUR ETXEA / DONOSTIA KULTURA, MICHEL GAZTAMBIDE, JORGE GIL

LAGUNTZAILEAK COLABORADORES DONOSTIAKO ZINEMALDIA, EITB, FILM COMMISSION / DONOSTIAKO SUSTAPENA, MUSIKENE EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO IKASTEGIA, EHUKO LETREN FAKULTATEA (ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ALORRA), EUSKADIKO FILMATEGIA, FILMOTECA ESPAÑOLA

🌐 [kalebegiak.dss2016.eu](http://kalebegiak.dss2016.eu)

#Kalebegiak

f Kalebegiak2016

📺 kalebegiak2016

📌 ZINEMA / ADIERAZPENA / ARTE BISUALAK / SORKUNTZA PARTEKATUA CINE / EXPRESIÓN / ARTES VISUALES / COCREACIÓN

*Kalebegiak* Donostiaren gaineko begirada kolektiboa da.

Donostia eszenatoki hartuta, hamabost zuzendarik ekoiztako hamabi istorio osatuko dute filma, eta Donostiak istorio-iturri gisa duen ahalmena azpimarratuko da bertan.

Larrotxene Kultur Etxearen sabelean hazita eta Michel Gaztambide eta Jorge Gilek zuzenduta, honako egiaztapen honetatik jaio da: azken berrogeita hamar urteotan, zinea kultura-motor garrantzitsuenetako bat —garrantzitsuena ez bada— izan da hiriarentzat eta inguruarentzat, eta izen esanguratsuak eman dizkio nazioarteko eszena zinematografikoari. Proiektuak izen sonatu horietako batzuen eta talentu berrien elkarbizitza ahalbidetuko eta eragingo du.

Film luzea osatuko duten film laburrak honako hauek zuzenduko dituzte: Koldo Almandoz, Asier Altuna eta Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho —Inko Martinen gidioa zuzenduko du—, Borja Cobeaga, María Elorza eta Maider Fernández —*Las chicas de Pasaik*—, Isabel Herguera eta Izibene Oñederra, Ekain

«Errealitateak berak, inguratzen gaituen horrek, askotariko irakurketak izan ditzake. Hauxe da sekretua: nork begiratzen duen.»

Irigoien, Julio Medem, Gracia Querejeta eta Imanol Uribe. Gainera, *Kalebegiak* gure lurraldeko talentu handieneko teknikariez elikatuko da; besteak beste, honako diziplina hauetan: soinu-banda sortzea, argazki-zuzendaritza, muntaia... Kontsaratutako izenei Larrotxeneko ikasleak batuko zaizkie hainbat zinematografia-sailetan. Tokiko talentuaren aldeko apustu horrek Musikeneren partaidetza izango du musika sortzean, eta Euskal Herriko Unibertsitatearena azpitoluen itzulpenean.

*Kalebegiak* es una mirada colectiva sobre San Sebastián.

Una película formada por doce historias realizadas por quince directores y directoras con la ciudad de San Sebastián como escenario, subrayando su potencial como fuente de historias.

Gestada desde el Centro Cultural de Larrotxene y coordinada por Michel Gaztambide y Jorge Gil, nace de la constatación de que en los últimos cincuenta años el cine ha sido uno de los motores culturales más importantes —si no el más importante— de la ciudad y su entorno, aportando nombres muy destacados a la escena cinematográfica internacional. El proyecto permitirá, y provocará, la convivencia entre algunos de esos ilustres nombres con nuevos talentos. Las obras que conformarán el filme serán dirigidos por Koldo Almandoz, Asier

«La misma realidad, aquello que nos rodea, puede tener diferentes lecturas. El secreto está en quién la mira.»

Altuna y Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Daniel Calparsoro, Iñaki Camacho —dirigiendo el guión de Inko Martín—, Borja Cobeaga, María Elorza y Maider Fernández —*Las chicas de Pasaik*—, Isabel Herguera e Izibene Oñederra, Ekain Irigoien, Julio Medem, Gracia Querejeta e Imanol Uribe. Además, *Kalebegiak* se nutrirá de los mayores talentos a nivel técnico de nuestro territorio en disciplinas como composición de banda sonora, dirección de fotografía, montaje... Nombres consagrados a los que se sumarán alumnos de Larrotxene en distintos departamentos cinematográficos. Esta apuesta por el talento emergente y local se refrenda con la participación de Musikene en la composición de la música y de la Universidad del País Vasco en la traducción de los subtítulos.



Koldo Agirre · 2015



## Borja Cobeaga

Zinema azokako barraka batean hasi zen, eta esan liteke sekula ez dela bertatik irten. Baina artistak, nobelagileak, musikariak, arkitektoak eta teknologia honetan aukera handiak ikusi dituzten mota guztietako egileak erakarri dituen barraka da. Horrela, zinemak bizitza bikoitza bizi izan du; harremana izan du industrial eta kulturala denarekin eta komertziala eta artistikoa denarekin. Sarritan, sinetsarazi nahi digute gauza batek ala besteak izan behar duela, ezinezkoa dela bi xede horiek bateragarri egitea. Hala ere, esperientziak erakusten digu

irauten duten lanak direla gusturik zorrotzenen onespina dutenak eta publiko handia berenganatu dutenak.

El cine empezó en una barraca de feria y se podría decir que nunca ha salido de ella. Pero es una barraca que ha atraído a artistas, novelistas, músicos, arquitectos y autores de todo tipo que han visto grandes posibilidades en esta tecnología. Así, el cine ha vivido una doble vida, una relación a dos bandas con lo industrial y lo cultural, lo comercial y lo artístico. Muchas veces se nos quiere hacer creer que tiene que ser una cosa o la otra, que es imposible compatibilizar ambas aspiraciones. Sin embargo la experiencia nos demuestra que aquellas obras que perduran son las que tienen la aprobación de los gustos más exigentes y además han conquistado al gran público.

IRAILA — URRIA  
SEPTIEMBRE — OCTUBRE

AHOTSAK  
VOCES

## Ikusmira berriak

Ikus-entzunezko narratiba berrien bila  
Buscando nuevas narrativas audiovisuales

EGONALDIA RESIDENCIA

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

**ERAGILEAK AGENTES**  
FESTIVAL DE CINE DE SAN SEBASTIÁN,  
TABAKALERA, FILMOTECA VASCA,  
DONOSTIA KULTURA

**BABESLEAK PATROCINADORES**  
REC ( GRABAKETA ESTUDIOA)

**ikusmiraberriak.dss2016.eu**

**#IkusmiraBerriak**

**ADIERAZPENA, ZINEA, ARTE**  
**BISUALAK**  
EXPRESIÓN, CINE, ARTES VISUALES

Nola lengoaia zinematografikoaren hala ekoizpen-baliabideen alorrean berritzearen eta esperimentazioaren aldeko apustua egiten duten ikus-entzunezko proiektuak laguntzeko programa da. Prestakuntzaren, ekoizpenaren eta erakusketaren inguruan egituratzen da, eta lurraldeari lotutako nazioarteko zein nazioko jaialdi eta ekimenak ditu ardatz; Kimuak film laburren selekzioa, Clermont-Ferrand jaialdiko Labo atala eta Zinema Ikaileen Nazioarteko Topaketa, hain zuzen ere. Gainera, urtero-urtero lau egonaldi eskainiko ditu ikus-entzunezko sortzaileentzat, tutorizazioa, eskola magistralak eta euskal ekoiztetxeekin *pitching* bat tarteko. Emaitzak Donostia Zinemaldian erakutsiko dira.

Programa de apoyo a proyectos audiovisuales que apuesten por la innovación y la experimentación, tanto del lenguaje cinematográfico como de los medios de producción. Se articula en torno a la formación, la producción y la exhibición, y se centra en festivales e iniciativas nacionales e internacionales vinculadas al territorio, como la selección de cortos Kimuak, la proyección de la sección Labo del Festival de Clermont-Ferrand y el Encuentro Internacional de Estudiantes de Cine. Además, ofrecerá anualmente cuatro residencias para creadores audiovisuales que engloban tutorización, clases magistrales y un *pitching* con productoras vascas. Los trabajos resultantes se exhibirán en el Festival de Cine de San Sebastián.

IRAILA —  
SEPTIEMBRE

BAKEA  
PAZ

## Gabon, Txirrita

«Nere aipamenak izango dira beste larogei urtian»  
«Hablarán de mí en los próximos ochenta años»

ANTZEZLANA REPRESENTACIÓN

**URNIETA**  
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**gabontxirrita.dss2016.eu**

**#GabonTxirrita**

**@BakeaPaz2016**

1982an, Xabier Letek teatro-lan bat taularatu zuen: *Gabon, Txirrita*. Pertsonaia nagusia Jose Manuel Lujanbio Txirrita bertsolari famatua izan zen. Historiaren Auzitegiak pertsonaiaren ibilerak epaitzen ditu, «gizon izugarri» gisa deskribatuta. 80 urte beteko dira Txirrita hil zenetik eta, urtemuga hori dela eta, Hiriburutzak Leteren obra berriro taularatuko du Urnietako herritarrekin lankidetzan.

Bestalde, Bernardo Atxaga idazleak Leteren obraren hariari tirako dio testu dramatiko berri bat osatzeko; testu hori taularatzea izango da Donostia 2016ren erronketako bat. Atxagaren lan horretan, Txirritaz gain, euskal kulturako, politikako eta gizarte arloko hainbat pertsonaia azalduko da.

Horrela, *Gabon, Txirritak* euskal ahozko eta idatzizko tradizioaren, eta musika-tradizioaren funtsezko hiru izen bilduko ditu.



Txirrita eta Saiburu Indalecio Ojanguren

En 1982, Xabier Lete llevó a escena una obra de teatro, *Gabon, Txirrita*, cuyo personaje principal es el célebre bertsolari Juan Manuel Lujanbio Txirrita. En ella el Tribunal de la Historia juzga las andanzas del personaje, descrito como un «elemento de cuidado». Coincidiendo con el 80 aniversario de la muerte del bertsolari, la capitalidad volverá a escenificar fielmente la obra de Lete junto con el pueblo de Urnieta.

Por otra parte, el escritor Bernardo Atxaga

tirara del hilo de Txirrita que dejó Xabier Lete con su obra, para crear un texto dramático que llegará a los escenarios de la mano de San Sebastián 2016. En la nueva obra de Atxaga, además del propio Txirrita, aparecerán otros personajes históricos significativos de los ámbitos político, cultural y sociales vascos.

En suma, *Gabon, Txirrita* reunirá a tres nombres esenciales de la tradición vasca oral, escrita y musical.



### Bernardo Atxaga

IDAZLEA  
ESCRITOR

Xabier Lete eta beste bi lagun Londreseko Highgate kanposantuan barneratzen dira. Politikan, artean edota literaturan garrantzia izandako pertsonak daude han lurperatuta, eta haien artean George Eliot, Malcolm McLaren, Eric Hobsbawm eta Karl Marx. Xabier Lete eta beste bi lagunek haietaz hitz egiten dute ibili bitartean. Bat-batean, ordea, ustez Highgatetik atera gabe, Euskal Herriko politikan, artean edota literaturan zeresana izan zutenen hilobiak ikusten hasten dira: Gabriel Arestirena, Koldo Mitxelenarena, Jorge Oteizarena, Xalbadorrena, Txirritarena...

Xabier Lete se adentra junto con dos amigos en el cementerio Highgate de Londres, donde están enterradas varias personalidades del mundo de la literatura, el arte y la política, como son George Eliot, Malcolm McLaren, Eric Hobsbawm y Karl Marx. Mientras pasean por el cementerio, Xabier Lete y sus dos amigos hablan sobre ellos. Sin embargo, y supuestamente sin salir del cementerio Highgate, empiezan a ver las tumbas de personalidades de renombre en la política, en el arte o en la literatura del País Vasco: Gabriel Aresti, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza, Xalbador, Txirrita...



19 IRAILA - 2 URRIA  
SEPTIEMBRE - OCTUBREBIZITZA  
VIDA

HAZITEGIAK

# Corners of Europe

Han-hemenka istorioak kontatuz  
Recontar historias de aquí y allí

EGONALDIA RESIDENCIA

EUROPA

**ERAGILEAK AGENTES**  
INTERCULT (STOCKHOLM), EXODOS (LJUBLJANA), POGON (ZAGREB), DRUGO MORE (RIJEKA), CITY CULTURE INSTITUTE (GDANSK), ARTS COUNCIL OF NORTHERN IRELAND (BELFAST), ISIS ARTS (NEWCASTLE), REX (BELGRADE), DOKUFEST (PRIZREN) AND TEATRO PUBBLICO PUGLIESE (BARI).

corners.dss2016.eu

#CornersOfEurope

cornersofeurope

@\_Corners\_

Europako periferiatik etorritako hainbat diziplinatako artisten lankidetzak proiektuak sustatzeko plataforma da *Corners of Europe*. Lan-metodologia ere berritzailea da: artistak, 20-25eko taldeetan antolatuta, parte hartzen duten herrialdeetan antolatutako espedizioetan bizi dira elkarrekin, eta tokiko gizartearen, kulturaren eta politikaren errealitatea dute iturri, beren proposamen artistikoak egiteko.

Bazkideek ko-ekoizten dituzte proposamenak. Ondoren, modu bateratuan aurkezten dira, proiektua bizi den artean (2017aren amaierara arte, alegia), kideek antolatutako *Corners Event* direlakoetan. Parte hartzeak dira proiektu gehienak, eta jatorri eta diziplina ezberdinetako zenbait artista, bi eta bost artean, biltzen dira lankidetzan. Gaur egun, 60 artista baino gehiago ari dira plataforman parte hartzen. Plataforma honetako 8-10 proiektu inguru irailean iritsiko dira Donostiara; besteak beste euskal artista hauenak: Juan Azpitarte, Beatriz Churruca, Ixone Ormaetxe, Borja Ruiz, Asier Zabaleta eta Joseba Irazoki.

*Corners Of Europe* es una plataforma para el impulso de proyectos de colaboración multidisciplinares de artistas provenientes de la periferia de Europa. La metodología de trabajo es asimismo innovadora: los artistas, en grupos de 20-25, conviven en expediciones organizadas en los países participantes, y se inspiran en sus realidades sociales, culturales, y políticas para desarrollar las propuestas artísticas.

Estas propuestas son coproducidas por los socios para, finalmente, ser presentadas de manera conjunta en los *Corners Event* que, a lo largo de la vida del proyecto, hasta finales de 2017, organizarán los socios. Buena parte de estos proyectos son participativos y en los mismos colaboran entre dos y cinco artistas de diferentes orígenes y disciplinas. En la actualidad más de 60 artistas participan en esta plataforma que en septiembre presentará entre 8-10 proyectos en San Sebastián. Los artistas vascos son: Juan Azpitarte, Beatriz Churruca, Ixone Ormaetxe, Borja Ruiz, Asier Zabaleta y Joseba Irazoki.



## Chris Torch

PROIEKTUAREN ZUZENDARI ARTISTIKOIA  
DIRECTOR ARTÍSTICO DEL PROYECTO

Europako mapa bat hartu genuen eta hura inguratzen duten lau itsasoen gainean laukizuzen bat marraztu genuen. Koadro horretatik kanpo geratu ziren gatazkaz betetako gizarteak, kultur identitate paregabeak, txikiak, eta egoera ahulean dauden hizkuntzak. Europako txoko horietako artistak eta publikoa elkarrekin harremanetan jartzea erabaki genuen, guztia erdigunerantz erakartzen duen indar magnetiko horrekin hausteko eta Europa barrualdetik kanpoaldera zabaltzeko helburuarekin.

Orain, Europako periferiako gune horietako 65 artista eta ikertzaile baino gehiago murgilduta daude proiektuak koproduzitzen,

elkartrukatzen eta esperientziak ikasten. European egiten ari garen ibilbide honetan, Suediatik hasi eta Balkanetako hegoaldera, edo Ukrainatik Donostiaraino, narratiba berri bat sortzen ari da. Proiektu europar hau berrazmatzea toki ikusezinetan hasten da.

Cogimos un mapa de Europa y dibujamos un rectángulo formado por los cuatro mares que la enmarcan. Fuera de este rectángulo había sociedades dinámicas llenas de conflictos, identidades culturales únicas y pequeñas y frágiles lenguas. Decidimos conectar a artistas y público de los vértices exteriores de Europa, rompiendo con esa fuerza magnética

convencional que atrae todo hacia el centro, desplegando Europa de dentro hacia fuera.

Ahora, más de 65 artistas e investigadores europeos procedentes de todos esos extremos en donde reside nuestro futuro están inmersos en la coproducción, el intercambio y el aprendizaje de experiencias. En nuestro recorrido por Europa, desde Suecia hasta el sur de los Balcanes, o de Ucrania a Donostia, va surgiendo una nueva narrativa. La reinvencción del Proyecto Europeo comienza en lugares invisibles.



g u z t i o n   g i z a r t e a

e r a i k i z

---

# GRUPO **MOYUA**

---

GRUPO MOYUA DESARROLLO, S.L.

Paseo de Errotaburu, 1-5ª Planta 20018 San Sebastián · © 943 317 600 · info@moyua.com

www.moyua.com

IRAILA  
SEPTIEMBRE

✓ BIZITZA  
VIDA

# Plaz & Play

Elkarrekin bizitzeko jokoak Jugar para convivir

JOLASA / KIROL JARDUERA JUEGO / ACTIVIDAD DEPORTIVA

📍 DONOSTIAKO PLAZAK  
PLAZAS DE SAN SEBASTIÁN

🌐 [plazplay.dss2016.eu](http://plazplay.dss2016.eu)

# #Plaz&Play

📍 KIROLA / DIBERTSIOA / OSASUNA  
DEPORTE / DIVERSIÓN / SALUD

*Plaz&Play* Donostia jolas zelai handi bilakatuko da. Joko kooperatiboak, fisikoak, sortzaileak, mentalak, digitalak eta klasikoak, bertakoak eta atzerrikoak... era askotako jokoak antolatuko dira hiriko plazetan, eremuok jolas parkeak bailiran. Kaleak jolaserako espazio gisa aldarrikatuko dira eta jolasa kirol jarduera ez lehiakorra dela defendatuko da. Azken batean, elkarbizitzarako eta denbora partekatzeko aitzakia dira jolas hauek. Bizitza osasuntsua eta gizartearen kohesioa lortzeko bidean kirolak duen garrantzia azpimarratu nahi da, batez ere. Jokoetan parte hartzeko, kirolerako eta jolaserako grina baino ez dira behar.

*Plaz&Play* convertirá San Sebastián en un gran tablero y desplegará en las plazas de la ciudad juegos cooperativos, físicos, creativos, mentales, digitales y clásicos, de aquí o de allá... Se trata de una reivindicación de las calles como espacio lúdico y del juego como ejercicio deportivo recreativo y no competitivo; una excusa para convivir y compartir. A través de estos juegos se pondrá en relevancia la importancia del deporte como práctica lúdica para una vida sana y herramienta indispensable para la cohesión social. Para participar sólo harán falta ganas de hacer deporte y de jugar.

30 IRAILA - 2 URRIA  
SEPTIEMBRE - OCTUBRE

✓ AHOTSAK  
VOCES

# Street tARTar

Ikaskuntza, sorkuntza eta adierazpen urbanoa  
Aprendizaje, creación y expresión urbana

JAIALDIA FESTIVAL

📍 GROS MANTEO  
(DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN)

👤 ERAGILEAK AGENTES  
GARIKOITZ C. MURUA  
(BEANTATUZ), ESKINA FEMENINA,  
NEREA LORON (FURIA), MAISHA  
MC, GUSTAVO MOTA (SOUL  
FLAVAS), EIDER RODRÍGUEZ  
(BAMBOO DANCE), DANI SAMPAYO  
(LOTZEN ADD)


🌐 [streettartar.dss2016.eu](http://streettartar.dss2016.eu)

# #StreetARTar

📍 ARTE PLASTIKOAK / FEMINISMOA  
/ AHALDUNTZEA / ANIZTASUNA /  
ELKARBIZITZA / ARTE ESZENIKOAK /  
DANTZA / MUSIKA / AHOZKO  
ARTEAK / SORKUNTZA KOLEKTIBOA  
FEMINISMO / EMPODERAMIENTO  
/ DIVERSIDAD / CONVIVENCIA  
/ ARTES ESCENICAS / DANZA /  
MÚSICA / ARTES PLASTICAS /  
ARTESVERBALES / COCREACIÓN

Kaleko artean aritzen diren inguruko eragileei eskaintza formala egin ostean, zazpi ordekariz osatutako komisio artistiko batek, Kultur Hiriburutzan diziplina honek izango duen islaren diseinua eta kudeaketa adostu behar du. DSS2016Euren lan-moduen adibide argia da, eta helburu du partaidetza-prozesuak bultzatzea, lan-sareak indartzeko eta lurraldeko eragileen arteko lankidetzaz errazteko. Lan hori egiteko Hiriburutzaren ekipoaren laguntza izango dute.

*Street tARTar*-ek gizarte sortzaileagoa lortzeko espazio publikoen erabilera eta eraldaketa aldarrikatzen du. Programazioan bere lekua izango



Raúl Mihai, 2013. [www.flickr.com/raulmihai](http://www.flickr.com/raulmihai)

dute kaleko artearekin lotutako lengoai ezberdinak, hip-hopak, esku-hartzeak, muralismoak eta parkourak besteak beste. Arlo honetan pertsonak prestatzeak pisu handia izango du programazioan, baina, horrez gain, erakustaldiez eta zuzeneko emanaldiez gozatu ahal izango da. Halaber, batzordeak inklusio soziala indartuko du, emakumeen ahalduntzea, bai eta kulturaren arlo honetan euskara erabiltzea ere.

Tras una invitación formal a numerosos agentes activos del arte urbano del entorno, una comisión artística formada por siete representantes diseña y gestiona de manera consensuada el reflejo que este ámbito tendrá dentro del programa cultural de la capitalidad. Se trata de un claro ejemplo de los modos de trabajo que DSS2106EU quiere impulsar,

promoviendo los procesos participativos con el fin de fortalecer redes de trabajo y facilitar la colaboración entre diferentes agentes del territorio. Para llevar a cabo esta tarea cuentan con el apoyo del equipo de la capitalidad.

*Street tARTar* reivindica el uso y transformación del espacio público para conformar una sociedad más creativa. Dentro de la programación tendrán cabida el hip-hop, la intervención urbana y el *parkour* entre otros lenguajes relacionados con el arte urbano. La formación en torno a estas disciplinas será uno de los principios fundamentales de la programación; además, se podrá disfrutar también de exhibiciones y actuaciones en vivo de todas las disciplinas. Asimismo, la comisión reforzará la inclusión social, el empoderamiento de las mujeres y el uso del euskera en este ámbito cultural.



Furia

RAP ABESLARIA  
CANTANTE DE RAP

Kokoteraino nago. Heterosexual, zisgenero, argal, 1000 selfie-tan harrapatuta, ustiapen-kontsumitzaile... nahi gaituztela dioten diskurtsoekin, gurutzea hanka artean baina belorik gabe eta autoestimu justuarekin, badaezpada, irizpidea eduki eta zerbait aldatzeko borrokatuko bagara ere. Kokoteraino nago gogorarazi behar izanaz hil egiten gaituztela, sinbolikoki eta literalki. Kokoteraino azaltzeaz engranajearen zati zarela eta hura posible egiten duzula, irribarre egiten dizudan bitartean, mindu ez zaitezten. Rap-a, hiri-kulturaren beste elementu batzuk bezala, kokoteraino daudenen eskuetatik sortzen da, eta hiriko alde baztertuetatik normaltasunaren gaitza duen gizarteari egiten diote oihu.

Estoy harta. De vivir discursos que nos quieren heterosexuales, cisgénero, flacas, atrapadas en 1000 selfies, consumidoras de explotación, con la cruz entre las piernas pero sin velo y con la autoestima justa, no sea que se nos ocurra tener criterio y luchemos para cambiar algo. Estoy harta de tener que recordar que nos matan, simbólica y literalmente. Harta de explicarte que eres parte del engranaje y lo haces posible, mientras te sonrío para que no te ofendas. El rap, como otros elementos de la cultura urbana, nace de aquellxs que están hartxs y desde los márgenes gritan a una sociedad enferma de normalidad.

21-24 UZTAILA  
JULIOELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

# 12 Points

Jazz europarraren kimuak  
Promesas del jazz europeo

JAIALDIA / FOROA

FESTIVAL / FORO

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
KURSAAL, VICTORIA EUGENIA

ERAGILEAK AGENTES  
HEINEKEN JAZZALDIA, DONOSTIA  
KULTURA, IMPROVISED MUSIC  
COMPANY, MUSIKENE

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

DANTZA / KULTURANIZTASUNA  
DANZA / INTERCULTURALIDAD

Irlandako 12 Points jaialdia Donostian izango da Heineken Jazzaldiaren egitarauaren baitan. Hamabi jazz-talde sortuberrik, Europa osotik jasotako ehunka eskaeren artean aukeratuak, beraien lan berritzaileak aurkeztuko dituzte jaialdi honen baitan. Egitarauaren osagarri gisa, "Jazz Futures" eztabaida-foroa antolatuko da, gailentzen ari diren musika-ereduak ardatz izango dituen. Heineken Jazzaldiaren eta DSS2016EUren arteko koprodukzio honek iazko kolaborazioaren helburu bera dauka, hau da, Europako jaialdien arteko harremana sustatzea eta tokiko publikoari Europatik etorritako musika-proposamen berriak ezagutzera ematea. Izan ere, pasa den edizioan, PUNKT jaialdi norvegiarraren saioak izan ziren Donostian bi erakundeon lankidetzari esker.

El festival irlandés 12 Points recalará en San Sebastián dentro de la programación de Heineken Jazzaldia. Durante cuatro días, doce bandas de jazz jóvenes, escogidas entre cientos de solicitudes procedentes de toda Europa, presentarán sus novedosas creaciones en el marco de este festival, que se complementa con el programa "Jazz Futures", un foro de debate sobre las formas de música emergentes. Esta coproducción entre Heineken Jazzaldia y DSS2016EU sigue la estela de la colaboración establecida el año pasado, que trajo a San Sebastián una muestra del festival noruego PUNKT, con el mismo ánimo de favorecer el contacto entre festivales europeos y de dar a conocer las nuevas propuestas musicales europeas al público local.

ABUZZUA  
AGOSTO

# Glad is the Day

Musika jaialdia Egian  
Festival de música en Egia

JAIALDIA FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN (EGIA)

ERAGILEAK AGENTES  
DABADABA, LE BUKOWSKI

#2016elkarrizketak  
#conversaciones2016

MUSIKA / BIZIKIDETZA  
MÚSICA / CONVIVENCIA

Pasa den urtean arrakastaz estreinatu zen *Glad is the Day* jaialdia, eta 2016ko udan hazi egingo da. Le Bukowski eta Dabadaba aretoek sortu zuten proiektu hau, musika independentearen eta undergroundaren tokiko bi eragile nagusietakoek, xede izanik Egia auzoa Donostiako uda eta kultura egitarauan txertatzea. Bi aretoek urte osoan zehar ematen duten programazioaren erakustaldi bat eskaintzen du egun-argiz eta aire zabalean egiten den jaialdi honek.

Tras el exitoso debut del festival *Glad is the Day* el verano pasado, 2016 verá crecer esta cita nacida de la colaboración de las salas Dabadaba y Le Bukowski, dos de los principales motores de la escena musical independiente y underground local. El festival, diurno y al aire libre, nació con el objetivo de integrar el barrio de Egia en el mapa estival y cultural de San Sebastián, con una muestra de lo que a lo largo del año se ofrece en ambos locales.

IRAILA  
SEPTIEMBRE

# Zinema eta gatazkak Cine y conflictos

Zinema eta indarkeriazko gatazka garaikideak  
Begirada dialektikoa  
El cine y los conflictos violentos contemporáneos  
Una mirada dialéctica

PROIEKZIOA PROYECCIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
KURSAAL

ERAGILEAK AGENTES  
DONOSTIA ZINEMALDIA  
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE  
DE SAN SEBASTIÁN

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

ADISKIDETZEA / BAKEA  
RECONCILIACIÓN / PAZ

Nola joratu ditu zinemak azken hamarkadetan izan diren indarkeriazko gatazkak? Galdera horri erantzuteko, eta helburu izanik ikuspegi ahalik eta aniztunena erakustea, 35 filmek osatutako zikloa aurkeztuko du Donostia Zinemaldiak. Mundu osoko hainbat gatazkei buruzko lanak bilduko ditu; besteak beste, honako lekuetakoak: Palestina, Israel, Kolonbia, Yugoslavia ohia, Mexiko, Irlanda, Euskadi, Ukraina, Ruanda, Sierra Leona edo Afganistan. Begirada dialektiko eta zabala izango da, baina ezinbestean osatugabea; izan ere, oso handia da egoera biolentoak bizi dituzten herrialdeen kopurua, eta horrek eragotzi egiten du kasu guztiak barne hartu ahal izatea. Zikloaren emanaldiez gain, liburu bat argitaratuko da.

En el Festival Internacional de Cine de San Sebastián, un ciclo de 35 películas representará un panorama lo más variado posible de cómo el cine ha tratado los conflictos violentos de las últimas décadas, en diferentes lugares del mundo: Palestina, Israel, Colombia, la ex-Yugoslavia, México, Irlanda, Euskadi, Ucrania, Ruanda, Sierra Leona o Afganistán serán, entre otros, algunos de los lugares que tendrán protagonismo en este ciclo. Será una mirada dialéctica y amplia, aunque no exhaustiva, ya que la gran cantidad de países involucrados en este tipo de situaciones violentas lo impide. Se editará, también, un libro que acompañará a las proyecciones.



## URRIA - ABENDUA OCTUBRE - DICIEMBRE

TRATOS	86
ANTZERKIGINTZA BERRIAK	
NUEVAS DRAMATURGIAS	86
ARKITEKTURA: FILM-MINTZAIKAK	
ARQUITECTURA: LENGUAJES FÍLMICOS	87
LEKURIK GABE, DENBORARIK GABE	
SIN LUGARES, SIN TIEMPO	87
KOMISARIO BERRIAK	
NUEVAS/OS COMISARIAS/OS	88
CHEJOV VS. SHAKESPEARE	88
KONTUKONTANITZ	89
IRRIZETAK	89
FEMINISTALDIA	89
EUROPAKO HIZKUNTZA	
ANIZTASUNAREN GOI BILERA	
CUMBRE EUROPEA DE	
LA DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA	90
PASSION FOR KNOWLEDGE	91
MISTERIOAREN ITSASARGIA	
FARO DEL MISTERIO	91
AZKEN TRENA TREBLINKARA	
ÚLTIMO TREN A TREBLINKA	91

URRIA  
OCTUBREBIZITZA  
VIDA

# Tratos

Cervantes reloaded

ANTZEZLANA REPRESENTACIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
MADRIL / MADRID

SARRERAREKIN CON ENTRADA

ERAGILEAK AGENTES  
CENTRO DRAMÁTICO NACIONAL

tratos.dss2016.eu

#Tratos2016

LITERATURA EUROPARRA / BALIO  
ETIKOAK  
LITERATURA COMÚN EUROPEA /  
VALORES ÉTICOS

Cervantesen *Los tratos de Argel* (1580) komediaren berrirakurketa garaikidea proposatzen du *Tratos*-ek. Europan etorkin izatearen esperientzia bizi izan duten jatorri ezberdineko aktoreak izango dira antzezlan honen protagonistak.

Jatorrizko antzezlaneko egoera abiapuntu hartuta, hau da, pirata berberiek bahitutako espainiar talde baten konfinamendua, istorioa irauli eta oraingoan Afrikako etorkin talde bat izango da penintsulan atzerritarrak barneratzeko balizko zentro batean giltzapetuta dagoena.

Ernesto Caballerok koordinatuta, Centro Dramático Nacionaleko Rivas Cherif antzerki-ikerketa laborategian egingo den sormen prozesuan jasoko dira pertsonaia horien guztien bizipen eta lekukotzak.

*Tratos* propone una relectura desde una óptica contemporánea de la comedia cervantina *Los tratos de Argel* (1580) a cargo de un elenco internacional de actores que ha vivido la experiencia de ser inmigrantes en Europa.

Partiendo de la situación planteada en la obra original, esto es, el confinamiento de un grupo de españoles secuestrados por piratas berberiscos, se pretende llevar a cabo una radical trasposición donde es ahora un grupo de inmigrantes africanos el que se encuentra recluido en un hipotético centro de internamiento peninsular.

Sus vivencias y testimonios se integrarán en un proceso creativo coordinado por Ernesto Caballero en el marco del Laboratorio de investigación teatral Rivas Cherif del Centro Dramático Nacional.

URRIA - AZAROA  
OCTUBRE - NOVIEMBREAHOTSAK  
VOCES

# Antzerkigintza berriak Nuevas dramaturgias

Oihala gora! ¡Se cambia el telón!

TAILERRA / ANTZEZLANA TALLER / REPRESENTACIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
VITORIA-GASTEIZ  
BILBOERAGILEAK AGENTES  
TEATRO VICTORIA EUGENIA, TEATRO  
ARRIAGA DE BILBAO, PRINCIPAL  
ANTZOKIA DE VITORIA-GASTEIZantzerkigintzaberriak.dss2016.eu  
nuevasdramaturgias.dss2016.eu#AntzerkigintzaBerriak  
#NuevasDramaturgiasADIERAZPENA / LITERATURA / ARTE  
ESZENIKOAK  
EXPRESIÓN / LITERATURA / ARTES  
ESCÉNICAS

Deialdi honen helburua da idazketa dramatiko propioa sustatzea, ahots eta testu berriekin. Gerora ere jarraitzeko aukera du, eta beka emango die beste literatur genero batzuetako idazleei, arte eszenikoen profesionali eta, oro har, antzerkiaren esparruan kontatzeko istorioren bat duen orori. Victoria Eugeniaren, Arriaga Antzokiaren eta Gasteizko Principal Antzokiaren laguntzak ahalbidetuko du obra horietakoren bat (tutoreen laguntzarekin, kideen ekarpenekin eta nazioarteko masterclass batekin eraikiko dira) oholzetara eramatea.

Promover una escritura dramática propia alimentándola con nuevas voces y textos es el propósito de esta convocatoria con vocación de continuidad que becará a escritoras y escritores de otros géneros literarios, profesionales de las artes escénicas y, en general, a quien tenga una historia que contar en el marco teatral. La complicidad del Victoria Eugenia, el Teatro Arriaga y el Principal de Vitoria-Gasteiz permitirá que alguna de esas obras, construidas con la ayuda de los tutores, las aportaciones de sus compañeras y compañeros y una masterclass de escala internacional, se aúpen a los escenarios.



URRIA  
OCTUBREBIZITZA  
VIDA

# Arkitektura: film-mintzairak


## Arquitectura: lenguajes fílmicos

Heldulekurik gabe pentsatzea Pensar sin barandillas

PROIEKZIOA / HITZALDIA / TAILERRA

PROYECCIÓN / CHARLA / TALLER

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
TABAKALERA, CRISTINA ENEA

 ERAGILEAK AGENTES  
CRISTINA ENEA FUNDAZIOA,  
TABAKALERA

 [afm.dss2016.eu](http://afm.dss2016.eu) [alf.dss2016.eu](http://alf.dss2016.eu)

 #AFM2016 #ALF2016

 ARKITEKTURA / IKUS-ENTZUNEZKOA  
ARQUITECTURA / AUDIOVISUAL

*Arkitektura: film mintzairak* urteroko hitzaldi, tailer eta proiektio zikloa da eta ikus-entzunezko lengoaiaren eta arkitekturaren arteko harremana aztertzen du. Horretarako, denon buruan dauden hiriko topaguneak birpentsatu nahi dira, begirada ezberdinetatik toki horiei aniztasuna eta bizitza emate aldera.

Azken edizioaren haria jarraituz, Hannah Arendt filosofoaren pentsamenduan dute oinarria 2016rako proposatu diren edukiek. Saiotara gonbidatutako egileek proiektatuko den ikus-entzunezkoari

buruzko hitzaldi eta tailer bana eskainiko dute, inguru fisikoa eta imaginarioa mugatzen dituzten irudiei buruz hausnartzeko.

*Arquitectura: lenguajes fílmicos* es un ciclo anual de conferencias, talleres y proyecciones que indaga en las relaciones que se establecen entre el lenguaje audiovisual y la arquitectura y el urbanismo. Pretende repensar los lugares comunes que conforman el imaginario popular de la ciudad, sumando otras

miradas que la puedan hacer más diversa y más viva.

Siguiendo la línea de la última edición, el pensamiento de la filósofa Hannah Arendt sostendrá los cimientos de la programación del 2016. Cada autor invitado ofrecerá una charla, escogerá el material que se visionará e impartirá un taller para reflexionar sobre las imágenes que acotan y urbanizan un entorno, físico e imaginario a la vez.

AZAROA - ABENDUA  
NOVIEMBRE - DICIEMBREBAKEA  
PAZ

# Lekurik gabe, denborarik gabe

## Sin lugares, sin tiempo

Gizartea bazterketaren prismatic  
La sociedad desde el prisma de la exclusión

ERAKUSKETA / FOROA

EXPOSICIÓN / FORO

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
KOLDO MITXELENA

 ERAGILEAK AGENTES  
SENSIBILI ALLE FOGLIE

 [lekurikgabe.dss2016.eu](http://lekurikgabe.dss2016.eu)  
[sinlugares.dss2016.eu](http://sinlugares.dss2016.eu)

 #LekurikGabe #SinLugares

 @BakeaPaz2016

 INKLUSIOA / GIZA DUINTASUNA /  
ELKARBIZITZA /  
INCLUSIÓN / DIGNIDAD HUMANA /  
CONVIVENCIA

Proiektu honek instituzio totaletan (kartzelak, psikiatria-zentroak...) sartutako pertsonen mundu sinboliko berriak sortzea sustatzen du. Helburua da bizitzako muturreko egoera horietan eta beste batzuetan sortutako adierazpideei balio soziala eta kulturala ematen laguntzea.

Proiektuak bi fase ditu. Lehenengo eta behin, ikerketa-lan bat egin da, eta zortzi hilabetez Martuteneko kartzelan sartutakoei laguntzen dieten kolektiboekin jardun da. Lan horren emaitzarekin erakusketara egingo da Koldo Mitxelenan; gainera, Italiako "arte sumindu" artxibo baten zati bat bilduko du. Erakusketaren

inguruan hainbat jarduera eta hitzaldi emango dira, eta gure gizarteetan dauden eskusio- eta inklusio-mekanismo sozial eta politikoei buruz hausnartzea sustatuko du.

Este proyecto fomenta la creación de nuevos mundos simbólicos por parte de personas internadas en instituciones totales (cárceles, centros psiquiátricos...) con el objetivo de contribuir a la valorización social y cultural de los lenguajes expresivos producidos en esas y otras situaciones extremas de vida.

El proyecto se ha construido en dos fases. En primer lugar, se ha elaborado un trabajo de investigación y participación de ocho meses con los colectivos que realizan tareas asistenciales con las personas internas en la cárcel de Martutene. El resultado de esa labor desemboca en una exposición en el Koldo Mitxelena que recogerá, además, parte de un archivo de "arte irritado" procedente de Italia. La muestra, en torno a la cual se organizarán numerosas actividades y conferencias, invitará a la reflexión sobre los mecanismos sociales y políticos de exclusión e inclusión que operan en nuestras sociedades.

2015eko irailean hasitako ekimena.  
Actividad iniciada en septiembre de 2015.

# Komisario berriak

Komisario berrientzako ekoizpen laborategia  
Laboratorio de producción para nuevas comisarias y nuevos comisarios

LABORATEGIA / ERAKUSKETA

LABORATORIO / EXPOSICIÓN

📍 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN,  
BILBAO, VITORIA-GASTEIZ

👤 ERAGILEAK AGENTES  
AIMAR ARRIOLA, SABEL GAVALDÓN,  
TAMARA DÍAZ BRINGAS

👥 LAGUNTAILEAK COLABORADORES  
TABAKALERA, AZKUNA ZENTROA,  
ARTIUM

🌐 [komisarioberriak.dss2016.eu](http://komisarioberriak.dss2016.eu)

# #KomisarioBerriak

📌 ARTE PLASTIKOAK / ARTE BISUALAK /  
KOSORKUNTZA / BITARTEKARITZA  
ARTES PLÁSTICAS / ARTES VISUALES /  
COCREACIÓN / MEDIACIÓN

Komisario berriak komisario gazteak prestatzeko proiektua da, xede duena komisarioaren jardunaz hausnartzea eta profesional berriak sortzea. Horretarako, deialdi publiko bidez hamar komisario hautatuko dira, eta horiek modu kolektiboan sortuko eta ekoitziko dituzte bi proiektu, nazioartean sona handia duten arte-profesionalek zuzendutako laborategietan.

Tokioa izango da proiektua garatzeko testuingurua, eta barne hartuko ditu bisitak artisten estudioetara, espazio artistikoetara, eta sorkuntza garaikidearekin lotutako agenteak.

Nuevos comisarios es un proyecto de formación para comisarias/os emergentes que propone repensar la práctica del comisariado e impulsar la aparición



de nuevos profesionales. Para ello, seleccionará mediante convocatoria pública a diez comisarios que idearán y producirán dos proyectos de manera colectiva mediante laboratorios dirigidos por profesionales del arte de

prestigio internacional.

El proyecto se desarrollará en el contexto local e incluirá visitas a estudios de artistas, espacios artísticos y agentes vinculados a la creación contemporánea.

# Chejov vs. Shakespeare

Idazleen arteko gutun-trukea  
Correspondencias entre escritores

ARGITALPENA PUBLICACIÓN

📍 DONOSTIA, HENDAIA, GETXO,  
BURLADA, MADRID, BARCELONA,  
HANNOVER, MEDELLÍN, AMSTERDAM,  
LLANDYSUL, BUCAREST

# #ChejovShakespeare

📌 ADIERAZPENA, LITERATURA  
EXPRESIÓN, LITERATURA

🌐 [chejovshakespeare.dss2016.eu](http://chejovshakespeare.dss2016.eu)



“Ekialde Hurbilekoa bezalako gatazketan, bi literatur ikuspegi elkartzen dira: batetik, justizia poetikoa, Shakespearearena, non inork ere ez duen amore ematen, non ohorea gailentzen den edozeren gainetik, baita bizitzaren gainetik ere, eta eszenatokia odoloztatu egiten den; bestalde, Chejoven giza justizia tristea, non pertsonaiek desadostasunez hitz egiten duten, arazook konpondu egiten dituzten eta, azkenean, beren etxeetara frustraturik itzultzen diren. Baina, bizirik itzultzen dira”.

Amos Oz-en gogoeta oinarri hartuta eraiki da literatur proiektu hau. Idazle europarrek literaturari, gatazkei eta idazleen egitekoari buruzko gutunak trukatzeko dituzte. Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Luisa Etxenike, Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Fernando Aramburu eta Angel Erro izango dira komunitateen, kontaktuen eta literatur praktiken arteko gutun bidezko elkarrizketa elikatuko dutenak. Besteak beste, Bashkim Shehu, Dubravka Ugresic, Belén Gopegui, Menna Elfyn edo Mircea Cartarescu-rekin ariko dira.

“En conflictos como el de Oriente Próximo convergen dos visiones literarias: por un lado, la justicia poética de Shakespeare, en donde nadie transige, los principios y el honor prevalecen ante todo, incluso la vida, pero el escenario queda cubierto de sangre; y, por otro, la triste justicia humana de Chejov, con personajes que discuten sus desacuerdos, los resuelven y al final regresan a sus casas bastante frustrados. Pero regresan vivos”.

Inspirado en esta reflexión de Amos Oz se construye este proyecto literario en el que escritores europeos intercambian cartas sobre la literatura, los conflictos y el papel del escritor. Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Luisa Etxenike, Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Fernando Aramburu y Angel Erro alimentarán esta conversación epistolar entre comunidades, relatos y prácticas literarias con autores como Bashkim Shehu, Dubravka Ugresic, Belén Gopegui, Menna Elfyn, Héctor Abad Faciolince o Mircea Cartarescu.



AZAROA  
NOVIEMBRE

# Kontukontanitz

Funtzio bera, modu askotara  
Misma función, manera diversa

ARGITALPENA / IRAKURRALDIA PUBLICACIÓN / LECTURA

DONOSTIAKO KULTUR ETXEA  
CENTROS CULTURALES DE SAN  
SEBASTIÁN

[kontukontanitz.dss2016.eu](http://kontukontanitz.dss2016.eu)

#Kontukontanitz

ANIZTASUN FUNTZIONALA / INKLUSIOA  
DIVERSIDAD FUNCIONAL / INCLUSIÓN

Pertsonaia handiak protagonista dituzten istorio txikietan barrena bidaiatuko dugu, desgaitasun fisiko, intelektual, sensorial eta mentalak bizitzan bidelagun dituzten pertsonen egunerokotasuna hobeto ezagutu eta ulertzeko. Helburua: hesiak haustea eta horiek eragiten duten diskriminazioari aurre egitea.

Horretarako, egonaldiak antolatuko dira eta zenbait idazlek dibertsitate funtzionala duten pertsonekin elkarlanean, errealitate ugari gerturatuko dizkiguten ipuinak sortuko dituzte. Ondoren, Donostiako auzoetan zehar ibiliko diren ipuin kontalariak bizi emango diete istorio

horiei. Bilduma osoa hainbat hizkuntza eta lengoaiatan argitaratuko da; tinta, braille eta audio formatuan, hain zuzen.

A través de pequeñas historias protagonizadas por grandes personajes, viajaremos en compañía de la discapacidad física, intelectual, sensorial y mental para conocer y entender mejor el día a día de las personas que con ellas conviven. Objetivo: tratar de romper las barreras creadas por el desconocimiento y combatir la discriminación que de ellas deriva.

Para ello se impulsará un programa de residencias donde escritoras y escritores, en colaboración con personas con funcionalidad diversa, crearán una serie de cuentos que nos acercarán a las distintas realidades ligadas a la diversidad funcional. Posteriormente, las historias cobrarán vida en sesiones de cuentacuentos que se desplegarán por los barrios de San Sebastián. Además, se recopilarán en una publicación multilingüe y multiformato en tinta, braille y formato sonoro.

12 AZAROA  
NOVIEMBRE

# Irrizetak

Har ezazu umorearekin, baina ez da txantxa  
Tómalo con humor, pero no es broma

TAILERRA / LABORATEGIA / JARDUNALDIA TALLER / LABORATORIO / JORNADA

[irrizetak.dss2016.eu](http://irrizetak.dss2016.eu)

#Irrizetak

ONGIZATEA / SORKUNTZA  
KOLEKTIBOA  
BIENESTAR / COCREACIÓN

Umorista edo gidoigileak zenbait saiotan batuko dira osasungintzako langileekin eta osasunaren zenbait alderdirekin lotutako kolektiboekin, herritarrengana iristeko moduko mezuak (bizitza osasungarria izateak duen garrantzia nabarmentzen dutenak) sortzeko. «Botikin» bat sortuko da on line, ikus-entzunezko formatuan, bide batez mito eta sinakerak baztertzeko balio duten aholku osasungarriekin. Mezu komiko horiek, beraz, laborategietan sortuko dira: hainbat agentek hartuko dute parte, eta ikasketa-prozesua egingo da, gidoiak idazteko tekniken eta ikus-entzunezko euskarri soilak sortzearen inguruan.

Humoristas o guionistas convivirán en varias sesiones con personal sanitario y colectivos implicados en distintos aspectos de la salud para crear mensajes que lleguen a la ciudadanía y destaquen la importancia de llevar una vida saludable. Se creará un «botiquín» on line en formato audiovisual con recomendaciones saludables que además sirvan para romper ciertos mitos o creencias. Estos mensajes cómicos se crearán por tanto en laboratorios en los que participarán distintos agentes y en los que se llevará a cabo un proceso de aprendizaje entorno a técnicas para escribir guiones y la creación de soportes audiovisuales sencillos.

14 - 17 ABENDUA  
DICIEMBRE

# Feministaldia

Moldeak eta arauak zalantzan  
Cuestionando formas y normas

JAIALDIA / KONFERENTZIA / TAILERRA / PERFORMANCEA

FESTIVAL / CONFERENCIA / TALLER / PERFORMANCE



Édith Carron, 2014. [www.edithcarron.net](http://www.edithcarron.net)

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
TABAKALERA

ERAGILEAK AGENTES  
PLAZANDREOK

[feministaldia.dss2016.eu](http://feministaldia.dss2016.eu)

#Feministaldia

@Feministaldia

Feministaldia

FEMINISMOA / AHALDUNTZEA /  
SEXUALITATEA  
FEMINISMO / EMPODERAMIENTO /  
SEXUALIDAD

Donostiako Kultura Feminista Jaialdiak urteak daramatza arte eta politika garaikidearen jardura kultural esanguratsuenak ikuspegi feministatik lantzen. Modu eta leku ezberdinetan arauak zalantzan jartzen eta istorio berriak kontatzen dituzten sortzaile eta ekintzaileen topaleku bilakatu da jaialdi hezitzaile eta ludiko hau. Mari Luz Esteban (antropologoa eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea) eta Esther Ferrer (artista) bezalako pertsonen jantzen dute urteroko egitaraua.

2016ko abenduaren 14tik eta 17ra bitartean luzatuko da jaialdiaren XI. edizioa. Konferentziak, mahai-inguruak, tailerrak, proiektzioak, kontzertuak, performanceak... programa zabala antolatu du Plazandreok Emakumeen Plataforma Politikokoak, kultura partehatzzailea, parekidea eta demokratikoa aldarrikatzeko.

El Festival de la Cultura Feminista de San Sebastián lleva años abordando desde una sensibilidad feminista algunas de las prácticas culturales más relevantes del arte o la política contemporáneas. Es un planteamiento lúdico-formativo en el que se dan cita todas aquellas creadoras y activistas que, desde distintos lugares y maneras, trabajan para alterar significados, cuestionar formas y normas, contar nuevas historias... Nombres como el de Mari Luz Esteban (antropóloga, Universidad del País Vasco) y Esther Ferrer (artista) visten cada año la programación del festival.

En 2016, celebrará su XI edición entre el 14 y el 17 de diciembre, y la Plataforma Política de Mujeres Plazandreok propone una programación en forma de conferencias, mesas redondas, talleres, proyecciones, conciertos y performances, enfocada a reclamar una cultura más participativa, igualitaria y democrática para todas y todos.

8-10 ABENDUA  
DICIEMBREBAKEA  
PAZ


284+

# Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilera Cumbre Europea de la Diversidad Lingüística

Aurrera pausoa hizkuntza-berdintasuna eta elkarbizitzaren bidean  
Un paso adelante en defensa de la igualdad lingüística y la convivencia

HITZALDIA / HIZKETALDIA CHARLA / DIÁLOGO

 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
KURSAAL

 ERAGILEAK AGENTES  
EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
KONTSEILUA, UNESCO ETXEA, ECMI,  
ELEN, LINGUAPAX INTERNATIONAL,  
PEN INTERNATIONAL, CIEMEN,  
UNPO, BESTE ERAKUNDE BATZUEN  
ARTEAN / ENTRE OTRAS ENTIDADES

 gb.dss2016.eu

 #HizkuntzaGoiBilera  
#CumbreLingüística

 @BakeaPaz2016

 HIZKUNTZAK / ANIZTASUNA  
LENGUAS / DIVERSIDAD

Europako hizkuntza-aniztasuna kontinente zaharreko kultur aberastasunaren iturri nagusietakoa da. Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioak dio pertsona guztiek eskubide berberak ditugula inongo bereizketarik gabe arrazaren, kolorearen, sexuaren, hizkuntzaren, erlijioaren, iritzi politiko edo bestelakoan, jatorri nazional edo sozialaren, kokapen sozialaren, jaiotzaren edo bestelako ezaugarriaren arabera. Dударik gabe, oinarritzko eskubideen eremu horretan kokatu behar dira hizkuntza-eskubideak. Aniztasunaren errespetua eta kudeaketa egokirako baldintzak sortzea; elkarbizitzaren erronkari hizkuntzen ikuspegitik heltzea egiteke dugun zerbait da.

Europa osoan, hizkuntza komunitateak ehunka elkarre sozialetan antolatu dira beren hizkuntzan bizi eta bere garapena sustatzeko. Orain, Donostian gauzatuko da gizarte zibilaren gidaritzapean aurrera eramandako prozesu bat; berdintasuna zein aniztasunaren errespetua bilatzeko neurri eraginkorrak proposatuko dituen prozesua. Donostiako Goi Bileran adituak eta denetarik antolakundeak bilduko dira Hizkuntza Eskubideen Bermerako Protokoloa itxi eta aurkezteko; erakundeen eta eragileen konpromiso praktikoak lortzeko baliatuko duten tresna.

«Hizkuntza komunitateen artean benetako berdintasuna lortzeko, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Bartzelona, 1996) printzipioak eta izpiritua garatzeko Protokoloa sortu nahi dugu»

La diversidad lingüística de Europa es una de las principales fuentes de la riqueza cultural del viejo continente. Como dice la Declaración Universal de los Derechos Humanos, todas las personas tienen los mismos derechos sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición. Sin duda, es en el marco de esos derechos fundamentales donde se deben situar los derechos lingüísticos. Crear las condiciones para el respeto y la gestión adecuada de esa diversidad; afrontar el reto de la convivencia desde la perspectiva de las lenguas es aún una asignatura pendiente.



Harri Idoate

En toda Europa las comunidades lingüísticas se han organizado en cientos de organizaciones sociales para poder vivir en su propia lengua y fomentar su desarrollo. Ahora, San Sebastián será el lugar en el que se cristalizará un proceso liderado por la sociedad civil para proponer medidas efectivas, buscar la igualdad y el respeto de todos los derechos lingüísticos. En la Cumbre de San Sebastián se reunirán expertos y entidades de distinta índole para cerrar y presentar el Protocolo de Garantía de los Derechos Lingüísticos; la herramienta con la que trabajarán para lograr compromisos prácticos de todos los agentes e instituciones.

«Pretendemos elaborar un Protocolo que permita desarrollar los principios de la Declaración Universal de Derechos Lingüísticos (Barcelona 1996) y su espíritu, a fin de alcanzar una verdadera igualdad entre las diferentes comunidades lingüísticas»



Iñigo Urrutia

ZUZENBIDEAN DOKTOREA (EHU)  
DOCTOR EN DERECHO (UPV)

Donostiatik Europako kulturari eta elkarbizitzari begira hizkuntza-eskubideen esparruan erreferentziatzeko ekarpena egin daitekeelakoan nago. Gizarte zibila, euren hizkuntza eskubideak zalantzan jarriak ikusten dituzten milaka herritarren ahotsa bihurturik, Europako hizkuntza-aniztasunaren garapenerako tresna sortzen ari da. Giza eskubideei babes eraginkorra bilatzen ari gara. Hizkuntzak norbanako zein taldeen identitatearekin lotura estua izan arren, oraindik ere, giza eskubideen babeserako zuzenbideak arreta eskasa eskaini dien arren. Donostiako Goi Bilera eta Protokoloa, hizkuntza-eskubideen izaera konplexutik

abiatuz, berauek babesteko indarrean ditugun tresna juridikoak osatzera dator, berezko hizkuntzen garapenera baliabide berritzaileak eskainiz, eta ikuspegi juridikotik funtsezko ekarpena eginez.

Desde San Sebastián y de cara a la cultura europea y a la convivencia, creo que se puede hacer una aportación de referencia en el ámbito de los derechos lingüísticos. La sociedad civil, convertida en la voz de miles de ciudadanos que ven cómo se ponen en tela de juicio sus derechos lingüísticos, está creando un instrumento para el desarrollo de la diversidad lingüística europea.

Buscamos una protección eficaz para los derechos humanos. Las lenguas tienen una estrecha unión con la identidad, tanto individual como de grupo, y aun así, el derecho para la protección de los derechos humanos no les presta todavía la suficiente atención. Partiendo de la naturaleza compleja de los derechos lingüísticos, la Cumbre y el Protocolo de San Sebastián complementarán los instrumentos jurídicos que tenemos en vigor para proteger esos derechos. Para ello, ofrecerá recursos novedosos para el desarrollo de las lenguas y hará una aportación fundamental desde el punto de vista jurídico.

26 IRAILA - 2 URRIA  
SEPTIEMBRE - OCTUBREELKARRIZKETAK  
CONVERSACIONES

# Passion for Knowledge

Zientzia eta kulturaren arteko lotura  
La ciencia como parte de la cultura

JARDUNALDIA JORNADA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

ERAGILEAK AGENTES  
DONOSTIA INTERNATIONAL  
PHYSICS CENTER

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

ZIENTZIA / TRANSMISIOA  
CIENCIA / TRANSMISIÓN

*Passion for Knowledge* zientzia-dibulgazioa ardatz duen jaialdia da, eta hirugarren edizioa duen hau DSS2016EUrekin konplizitatean antolatuko da. Jardunaldien xedea zientzialarien eta herritarren arteko topagune izatea da, bai halaber zientzia-ezagutzaren inguruko interesa eta grina piztea. Kultur Hiriburutzaren urtearekin bat eginez, *Passion for Knowledge* aldarrikatuko du zientzia dela gizadiak taldean sortu duen kultur lan garrantzitsuenetakoa. Zientzia eta kulturaren arteko lotura hori nabarmentzeko asmoz, Victoria Eugenia Antzokian izango dira hitzaldi gehienak. Egitarauak Nobel sarituen parte-hartzea aurreikusten du, eta beste hainbat ekintzen artean, saio berezi batek ezagutzera emango ditu bertsolarien bat-bateko prozesu mentalarekin lotuta dauden alderdi zientifikoak.

El festival de divulgación científica *Passion for Knowledge* celebrará su tercera edición en complicidad con DSS2016EU. El objetivo de estas jornadas es servir de punto de encuentro entre la clase científica y la ciudadanía y despertar el interés y entusiasmo por el conocimiento científico. Coincidiendo con el año de la Capitalidad Cultural, y de la mano

de figuras internacionales, *Passion for Knowledge* reivindicará la ciencia como una de las obras culturales colectivas más importantes de la humanidad. Con objeto de subrayar ese vínculo, la mayoría de las conferencias tendrán lugar en el Teatro Victoria Eugenia. Además, el programa incluye la participación de premios Nobel y, entre otras actividades, una sesión especial que mostrará los aspectos científicos relacionados con el proceso mental de los bertsolaris mientras improvisan.



Donostia International Physics Center · Donostia

URRIA  
OCTUBRE

# Azken trena Treblinkara Último tren a Treblinka

Janusz Korczak in memoriam

ANTZEZLANA REPRESENTACIÓN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
LARRATXO KULTUR ETXEA

ERAGILEAK AGENTES  
VAIVÉN PRODUCCIONES, DONOSTIA  
KULTURA, GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA, EUSKO JAURLARITZA

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

DUINTASUNA / GIZA  
ESKUBIDEAK  
DIGNIDAD / DERECHOS  
HUMANOS

1942. urtea, Varsovia. Janusz Korczak mediku eta pedagogoa 200 umezurtz dituen babes-etxearen arduraduna da. Stefania Wilczynska laguntzaile leialarekin eta gaztetxoekin elkarlanean, Korczakek haur-errepublika sortu du bertan, berezko araudi eta kode penala dituena. *Treblinkara azken trena* antzezlanaren publikoak umezurtz-etxeko oheetan eseriko da, eta bertatik ezagutu ahal izango ditu bizilekuaren barne-antolakuntza eta egunerokotasuna, baita bizilagunen pozak eta beldurrak ere. Halako batean, ikusleak jakinarazpen krudel baten lekuko izango dira, Korczaken eta haurren ametsak eta bizia akabatuko dituen: etxea utzi eta Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trena hartu behar dute.

Año 1942, Varsovia. El doctor y pedagogo Janusz Korczak dirige un hospicio con 200 huérfanos judíos. Trabajando mano a mano con ellos, y junto con su inseparable colaboradora Stefania Wilczynska, Korczak forma allí una verdadera república infantil, con sus normas y código penal. Aposentado en las literas del orfanato, el público de la obra *Último tren a Treblinka* será partícipe de la organización interna del hospicio, de la rutina diaria, y de las alegrías y miedos compartidos; y asistirá a la terrible notificación que acabará con los sueños y la existencia de Korczak y sus discípulos: deben abandonar el orfanato y dirigirse al tren que les conducirá al campo de concentración de Treblinka.



Vaivén Producciones

URRIA - AZAROA  
OCTUBRE - NOVIEMBRE

# Misterioaren itsasargia Faro del misterio

Donostiako istorio paranormalak  
Historias paranormales donostiarras

TAILER IREKIA / WEBGUNEA TALLER ABIERTO / PÁGINA WEB

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
KURSAAL

ERAGILEAK AGENTES  
SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y  
DE TERROR, DONOSTIA KULTURA,  
GUGAN, AXELCASAS, PINTXO  
DEVELOPER, ARTEKLAB

#2016Elkarrizketak  
#Conversaciones2016

AHOZKOTASUNA / TRANSMISIOA  
ORALIDAD / TRANSMISIÓN

2015eko Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin batera hasi den proiektua da *Misterioaren itsasargia*, eta 2016 urtean zehar donostiarraren imaginario kolektiboak gordetzen dituen misteriozko istorioak dokumentatuko ditu: etxe sorginduak, mamuak, objektu hegalaria ezezagunak, gaueko iluntasunean ospatutako erritu arraroak... Prozesu parte-hartzaile honetan jasotako material guztiarekin webdokumental interaktiboa, bideojokoa eta *Paranormales* filma egingo dira. Hiru proiektu hauek 2016ko Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen aurkeztuko dira.

*Faro del misterio* es un proyecto que comienza con la Semana de Cine Fantástico y de Terror de 2015 y que a lo largo de 2016 documentará los relatos misteriosos del imaginario colectivo donostiarra: casas encantadas, espectros, objetos no identificados, extraños rituales celebrados en la oscuridad de la noche... El material recopilado en este proceso participativo resultará en un webdocumental interactivo, un videojuego y el largometraje *Paranormales*, que se presentarán durante la Semana de Cine Fantástico y de Terror del año 2016.

# Europar dimentsioa

# Dimensión europea

Ekarpena europar identitateari  
Una contribución a la identidad europea

Donostiak historikoki harreman handia izan du Europako gainontzeko herrialdeekin, eta lotura hori estutu egin da azken aldian, Donostia eta Baiona euskal Eurohirian protagonismoa hartu duenetik.

DSS2016EU proiektuak kokapen estrategiko hau baliatu du zenbait ekimenen bidez are gehiago sustatzeko modu naturalean izan duen lurralde arteko konexio hori, xede izanik elkar aberastea eta Europan hobeto integratzea.

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu aukeratu zuten, beste arrazoi batzuen artean, kultur programan europar dimentsioa modu egokian txertatu zuelako, hain zuzen. Europako hautaketa-batzordeak goraipatu egin zuen proiektuak bere baitako jardueren bidez kontinenteko hirien arteko elkartruckerako sare bat sortzearen alde egiten duela, kultur aniztasuna sustatu eta europar identitate komuna indartzeaz gain.

## HAINBAT HERRIALDETAKO ARTISTA ETA ERAGILEREN ARTEKO LOTURA

Enbaxada ibiltariak dira DSS2016EUk Europako beste herri, kultur eragile eta artista batzuekin harremantzeko abian jarri duen tresna nagusia. Era askotako garraio-bideen bitartez, Donostiak Europako zenbait hiri eta herrialdetako esperientziak jasoko ditu.

Kultur programako ekimen ugari, esate baterako, *Corners of Europe* proiektuak, europar sare hori sortzen lagunduko dute. Guztira, hamar bat herrialdetako 50 artista eta ikertzaile baino gehiagok eta 30 kultur erakunde baino gehiagok parte hartzen dute plataforma horretan.

Eta, jakina, Hiriburutzak Donostiari ahalbidetu dio iraganeko, oraingo eta etorkizuneko Europako kultur hiriburuekin lotura estua izatea, Pilsen, Wroclaw eta Aarhusekin, kasu, baita kultur arloan aktiboak diren beste hiri batzuekin ere, Derry eta Hull kultur hiriekin, adibidez.

## APUSTUA ANIZTASUNAREN ALDE

Hizkuntz aniztasuna DSS2016EUren identitate ikur nagusietako bat da, eta hori argi uzten dute zenbait proiektu, *Other Words*, *In Varietate Concordia* eta *Itzultzaile berriak* proiektuek, esate baterako.

Donostia 2016k kultur aniztasunaren aberastasuna goretzi nahi du eta, horretarako, arte-diziplina ugari lantzen ditu: musika *Emusik* proiektuan, ahozkotasuna *Europa bat-batean* proiektuan, literatura *Chejov vs. Shakespeare-en...* Erljioarteko solasaldiak ere izango du tartea *Baitara baita* ekimenean, eta *Zubideak* bezalako beste proiektu batzuk propio diseinatu dira Donostia kultur aniztasunaren erakusleho bihurtu da.

## EUROPAR KULTURA PARTEKATUA

Europako Kultur Hiriburutza aukera ona da tokiko kulturaren berezitasunak ezagutzera emateko baina, batez ere, gure Europako herritar izaera sustatzeko eta kultur ondare partekatua goraipatzeko parada izango da.

*Bake-ituna* Europako ondare artistikoaren erakustaldi bikaina izango da, nazioarteko museo ugarietako lanak hartuko baititu eta garai historiko ezberdinak aztertzearen bidez Europako bakeari buruzko gogoeta ekarriko baitu.

Europar kultura partekatua laudatuko duten beste proiektu batzuk *Uda-gau bateko ametsa*, *Tratos* eta *Europar elkarrizketak* izango dira. Lehenengo biek Shakespearearen eta Cervantesen heriotzaren 400. urteurrena ospatuko dute eta besteak Europan eraikuntzarekin lotutako gaiak landuko ditu herritarren debateetan.

San Sebastián ha guardado históricamente un fuerte vínculo con el resto de Europa, unos lazos que se han visto estrechados en tiempos recientes por su inclusión protagonista en la Eurociudad vasca San Sebastián-Baiona.

El proyecto DSS2016EU aprovecha esta ubicación estratégica para fomentar más si cabe esta conexión interterritorial natural mediante diversas iniciativas, en busca de un enriquecimiento mutuo y una mayor integración europea.

San Sebastián fue elegida Capital Europea de la Cultura 2016, entre otras razones, precisamente porque incorporó adecuadamente la dimensión europea en su programa cultural. El comité europeo de selección reconoció que este proyecto aboga mediante sus actividades por generar una red de intercambio con otras ciudades del continente, promover la diversidad cultural y reforzar la identidad común europea.

## CONEXIÓN ENTRE ARTISTAS Y AGENTES DE VARIOS PAÍSES

